



**bertsozale**  
**elkartea**

**2021eko memoria**

## Aurkibidea

KOORDINAZIOA .....	3
Deskribapena.....	3
Proiektuak.....	7
HEZKUNTZA .....	17
Deskribapena.....	17
Proiektuak .....	23
IKERKUNTZA .....	40
Deskribapena.....	40
Proiektuak .....	42
XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.....	48
Deskribapena.....	48
Proiektuak .....	52
SUSTAPENA .....	60
Deskribapena.....	60
Proiektuak .....	66
LANKU KULTUR ZERBITZUAK .....	76
HEDAPENA.....	79
Deskribapena.....	79
Proiektuak .....	83
KOMUNIKAZIOA .....	95
Deskribapena.....	95
Proiektuak .....	100
ADMINISTRAZIOA.....	102
Deskribapena.....	102
Proiektuak .....	110
ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA.....	112
BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA.....	130
BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA .....	136
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA.....	142
NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA.....	152

# KOORDINAZIOA

## Deskribapena

<b>Urteko helburuak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Bertsozale Elkartearen proiektua gauzatzeko behar diren harremanak bideratzea, sarearen mapa osatzea.</li><li>- Proiektu bateratuaren koordinazioa egitea eta bateratze ariketan sakontzea.</li><li>- Lurraldeei eta sailei babesak eta laguntza ematea eta haien jarraipena egitea.</li><li>- Ekonomia sozial eta eraldatzailea Bertsozale Elkartean lantzea eta egituraren prozesuan txertatzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Pandemiak Elkarteari eragin diona kudeatzea ez da lan larria izan eta lan karga oso handia izan du koordinazio bikoteak.</li><li>- Biko koordinazioaren balorazioa egin dugu eta proiektuaren dimentsioa eta beharrak aztertuta EHBEko berrantolaketa proposamen bat egin du koordinazioak lehendakaritza taldearekin batera.</li><li>- Lurraldeetako eta EHren arteko zubi lanak hobetu direla baloratu dugun baina oraindik proiektu guztien beharrak aseta ez daudenaren balorazioa ere egiten dugu. Uste dugu funtzionamenduan emango diren aldaketek eta parte hartze prozesuan atera diren ondorioei helduta hobekuntzak etorriko direla aurrera begira.</li></ul>

Sailaren kudeaketa		
Helburuak	Ebaluazio adierazleak	Balorazioa
Elkartearen funtzionamenduan eragitea	<p><b>Koordinatzaile bikoaren funtzionamendua aztertzea.</b></p> <p><b>Bileren kudeaketa egokitzea:</b>            Batzar Nagusia, Zuzendaritza, Lehendakaritza, Kudeaketa, Koordinazioa...            Egutegien eta ordutegien betetzea, bileren iraupena eta dinamizazioa, informazioa lantzea.</p> <p><b>Aurrekontuaren gorabeherei jarraipena egitea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 50.000 emaitzara gerturatzea.</li> <li>- Zerbitzu komunen finantzaziorako ekarpen bateratua aztertzea.</li> </ul> <p><b>Pertsonal gaiak lantzea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan egutegia eta ordutegia zehaztea.</li> <li>- Lan erregistroen jarraipena egiteko modua erabakitzea eta gauzatzea.</li> <li>- EHBEko langileen formazio bateratua bultzatzea eta etorkizuneko plana zirriborratzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza bilera ia guztiak pare bat kenduta online egin dira. Horrek parte hartzea zaildu duela baloratzen dugu. Presentzialak egiteko ahalegina egin dugu pare bat saiotan eta emaitza oso desberdinak lortu dira. Gaien arabera parte hartzea presentziala izatea lehenetsiko da.</li> <li>- Aurrekontuari aurre egiteko dirulaguntza lerro berriak lortu dira eta aurreikusitako emaitza %58an hobetzerara iritsi gara.</li> <li>- Antolakuntza eta parte hartze prozesuak emandako emaitzetan eta koordinatzaileen behaketan oinarrituta berrantolaketa bat proposatu da. Horrek langile batzuen baldintzak aldatu ditu. Antolaketa berri horren eraginez, koordinazioa bikotetik talde izaerara pasako da 2022an.</li> </ul>

<p><b>2018ko gogoeta estrategikoa dibulgatzea eta sozializatzea, eta funtzionamenduaren eta antolaketaren inguruko partaidetza prozesua garatzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Partaidetza prozesuaren dinamizazioa eta jarraipena egitea.</li> <li>- Ondorioak zuzendaritzan lantzea, etorkizuneko lanketak identifikatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Partaidetza prozesuak eman dituen ondorioak gunez gune aurkeztu dira eta aurrera begirako pausoak zehaztu dira. Zuzendaritzan ere ondorio orokorren zein gune propio horren nondik norakoak landu dira.</li> </ul>
<p><b>Sailen eta lurraldeen egitasmoen jarraipena egitea; eta egitasmoen eta sailen funtzionamenduaren jarraipena egitea. Ikus, sailez sail egitasmoak (segidan)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mintzola patronatuan parte hartzea.</li> <li>- Lankuren Bitariko Batzordean parte hartzea.</li> <li>- Lurraldeen jarraipena egiteko moduak berraztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mintzola patronatuan eta Mintzola azkentze prozesuan interlokutore nagusi izan da EHBE Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.</li> <li>- Lurraldeekin EHBEk izan behar duen harremanaren inguruan eztabaidatzen hasi gara. Parte hartze prozesuan atera ziren gakoetatik tiraka emango dira hurrengo pausoak.</li> </ul>

<p><b>Harremanak eta elkarlanak:</b>  <b>administrazioa, gizarte erakundeak eta enpresa.</b></p>	<p><b>Hitzarmenak zaintzea:</b> Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Laboral Kutxa, Emakunde, Kutxa, UPV/EHU.</p> <p><b>Diru laguntzen etengabeko bilaketa eta lanketa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kultura, euskara, hezkuntza eta berrikuntza atalean daudenak identifikatzea eta deialdi berriak aurkitzea.</li> </ul> <p><b>Babesletza pribatua:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Babesletza sustatzeko enpresen interesguneak identifikatzea.</li> <li>- Hamabost enpresa izendatu eta proposamenak egin. 15.000 euroko diru sarrera bideratzea.</li> </ul> <p><b>Gizarte erakundeetan parte-hartzea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskaalgintza: Kontseiluan parte hartzea.</li> <li>- Kulturgintza: eragileen mapa osatzen jarraitzea.</li> <li>- Artisten estatutuaren lanketa egitea elkarte barruan eta inguruko eragileekin.</li> </ul> <p><b>Publizitatea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <a href="http://www.bertsoa.eus">www.bertsoa.eus</a> bideoen atariko publizitatea lantzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Genituen hitzarmenak mantentzeaz gain, Jaurlaritzako HPSko hitzarmena handitu dute. Horrez gain, Jaurlaritzako hezkuntza sailarekin bilera egin dugu hezkuntza berrikuntzan egiten ari garen lana azaldu eta lankidetzak harremanetarako bideak irekitzeko.</li> <li>- Nafarroako gobernuarekin harremanak ireki dira EHBETik eta proiektua azurkezteaz gain lankidetzak hitzarmen bat lortu da.</li> <li>- Diru laguntza lerro berrietara aurkeztu gara eta emaitza oso onak izan ditugu.</li> <li>- Kontseiluko batzarretan eta Euskaraldiko batzordeetan parte hartu dugu.</li> <li>- UEUrekin batera kulturaren hezi, sormenean hazi jardunaldiak antolatu ditugu Euskal Herriko lau herrietan.</li> <li>- Artisten estatutuaren lanketa egiteko pausoak eman ditugu EAEn.</li> <li>- Kanpo ordezkariak eskatzen duten eskaera asko jasotzen du EHBETik eta momentuko ahalmenen arabera ordezkariak hori eman dugu, soldatapeko eta borondatezkoen artean</li> </ul>
--	---	---

	<p><b>Gure egitasmoen gonbidapenak</b> lantzea: txapelketen finalak, bereziki.</p> <p><b>Elkarlan egitasmoak ditugun erakundeen ekitaldietan elkarre arteko ordezkariak</b> lantzea.</p>	<p>lanak banatuz. Egon garen ekitaldi batzuk aipatzearen: Korrikako aurkezpena, Euskaraldiko aurkezpena, Kotseiluko urteko irakurraldia...</p>
--	--	--

## Proiektuak

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSOZALE ELKARTEAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO PARTE-HARTZE PROZESUA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2020 urria - 2021 uztaila
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Elkarteko egitura eta antolakuntza hobetzeko parte-hartze prozesua da. Gogoeta estrategikoan jasotako helburuei erantzuneko dien egitura orekatu eta moldagarri, osasuntsu zein eraginkor bat diseinatzea da asmoa. Elkartearen egungo baliabideetara egokituko den funtzionamendua zein izango den zehaztea eta erabakitzea, hain zuzen ere.</p> <p>Asko gara eta askotarikoak bertsojaritzan ari garen eragileak, bertso jardura bera bezala, baina 1980. hamarkadan zirriboratu ziren egitura eta funtzionamendua dugu Bertsozale Elkartearen. Eta urteen joanean, aldatzen doaz jendartearen eta komunitatearen parte hartzeko moduak, bertsojaritza ulertzeko moduak eta bertsoa hurbiltzeko erak. Helburua da, borondatezko, soldatapeko, eragile, arduradun, bertsozale, bazkide eta Bertsozale Elkartearen osatzen dugun ekosistemako partaideen parte hartzearen bidez egitura eta funtzionamendua berritzea. Bazkideen eta borondatezkoen elkarrekin eta borondatezkoen harremanak estutzea da asmoa. Horretarako, 42 lantalde ezberdinetan, bakoitzean bina saio egingo dira: lehen saioan egungo egituraren azterketa egingo da, eta bigarren saioan ekintza plana osatuko da. Ekaina bitarte</p>

	iraungo du parte-hartze prozesuak, eta Farapi kooperatibako kideen gidaritzapean egingo da. Guztira, prozesuan, 400 pertsona inguruk parte hartuko dutela aurreikusten dugu. Amaiera emateko ospakizun egun bat egingo dugu.
<b>BALORAZIOA</b>	<p>2021eko apirilera bitartean gunez gunez diagnostikoa osatu genuen. Denera 30 gune eta 200 bat parte-hartzaile izan ziren lehendabiziko fase hartan. Han bildutako oinarritik abiatu zen bigarren fasea gunez gunez plangintzak osatzeko helburuarekin. Bigarren fasean guneetan egin ziren plangintzetatik 15 lan lerro identifikatu dira. Gune bakoitzean zehaztu ziren gune bakoitzaren antolaketa funtzionamendua hobetzeko egin beharreko ekintzak zeintzuk ziren. EHBE, lurralde nahiz sailetan egin den prozesua izan da eta parte hartze handia egon da. Hemendik aurrera landu beharrikoak argi geratu dira prozesu honekin.</p> <p>Gehiegi landu ez den arloa borondatezkoen parte hartzearen ingurukoa izan da eta hutsune hori bete asmoz egingo da 2022an borondatezkoen parte hartze prozesua.</p>

<b>Proiektuaren izena</b>	BAZKIDETZAREN INGURUKO GOGOETA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 apirila – 2021 uztaila
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsozale Elkarteak 2.400 bazkide inguru ditu. Gogoeta egin nahi da gure bazkidetza motari buruz: bazkide motak, harreman motak... Gogoetaren ostean, 2022. urtean egingen da bazkidetza kanpaina berritua.
<b>BALORAZIOA</b>	2022an zehar egingo dugu Txapelketa nagusiaren testuingurua baliatuta.



<b>Proiektuaren izena</b>	BEBEKA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 apirila – 2021 uztaila
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Elkartasun kutxa ez da tresna nahikoa elkartearen behar ekonomikoari erantzuteko. Erreminta berri baten beharra usaindu genuen, eta BEBEKA izena du proposamen berriak: Bertsozale Elkaratearen Behar Estrategikoetarako Kutxa. Proposamenak bi zati ditu: batetik, BEBEKA kutxa finantzatzeko moduak; eta bestetik, erabilerak.</p> <p>Kutxa bakarra izango dugu, baina bere baitan bilduko ditu erabilera mota ezberdinak eta erabilera horiek momentuaren arabera aldakorrak izango dira (aurrekontua orekatzeko kutxa/erabilera, salbuespen kutxa/erabilera, sormen kutxa/erabilera...). Finantzazio gisa diru gerakinak baliatzea ere proposatzen da, dagozkien mugekin eta arautegiarekin beti ere.</p> <p>Finantza tresnaren eta egitura ekonomiko osoaren gogoeta egitea da urteko helburua.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Tresnaren gainera eztabaida ematekoak baginen ere, azkenean ez dugu egin. Izan ere, finantza ereduaren gainera eztabaida eman behar da aurretik eta horretarako 2022an egingo dugun eztabaida izango da klabea.</p> <p>Orain arte izan dugun Elkartasun kutxa finantzaketarako tresna moduan baloratu, bere ibilbidea analizatu eta egungo finantza beharrak asetzeko tresna berriak sortzeko beharra ikusten da. Hala ere, tresnak sortu aurretik proiektu bateratua zein den zehaztea beharrezkoa da.</p> <p>Berrantolaketa berria dela eta, atal hau finantza eta pertsonen kudeaketa estrategikora pasako da.</p>

<b>Proiektuaren izena</b>	ONURA OROKORREKO IZENDAPENA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 uda (diseinua) eta 2021 udazkena (lanketa)
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Onura orokorreko izendapena lortzea da helburua. Izendapena lortzearen helburuak bi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Finantzaketa iturri berriak eskuratzeko erraztasun gehiago</li> <li>2. Bazkideentzako eta laguntzaileentzako onura fiskalak</li> </ol> <p>Onura orokorreko izendapena lortzeko beharrezkoa den dokumentazioaren prestatu behar da.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Txostena egin dugu baina aurkeztu behar da.</p> <p>Proiektu hau finantza eta pertsonen kudeaketa estrategikora pasako da.</p>

<b>Proiektuaren izena</b>	FINANTZAKETA BERRIAK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 uda (diseinua) eta 2021 udazkena (lanketa)
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Bertsozale Elkartearen diru sarrerak indartzeko bi pauso ematea aurreikusten da:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Autofinantzaketa gehiago duten proiektuen azterketa egitea</li> <li>2. Babesle pribatu izan daitezkeen 20 erakundeekin harreman erronda egitea</li> </ol> <p>Azken lan honetarako, lagungarri dira Onura Orokorreko izendapena eta Txapelketa Nagusia.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Pandemiak ekarri duen ezegonkortasun egoerak argi erakutsi digu gure finantzabideei buelta bat eman behar diegula. Zentzu horretan landu ditugu orain arte landu gabe genituen administrazio publikoko hainbat harreman. Lankidetzan harreman berrien bidez finantza iturri berriak lortu ditugu, Nafarroako Euskarabidearekin edo Bizkaiko Aldundiarekin, esaterako.</p>

	Horrez gain, orain arte aurrez ElkarTEak parte hartzen ez zuen hainbat diru laguntzetara jo dugu proiektuak aurkeztuz eta emaitza onak jaso ditugu.
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	PUBLIZITATEA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Egunerokoan, eta, nagusiki, txapelketetan kudeatzen ditugun euskarrietan publizitate saltzea. Euskarri hauek diseinatzea, saltzea eta kudeatzea da aurreikuspen handiz egin beharreko lana. Era berean, ikuspegi kritikoa garatu eta iragarkien salmentarako irizpide propioak sortu nahi dira.
<b>BALORAZIOA</b>	Emaitza onak bildu dira 2021ean publizitateari dagokionean. Xilaba, Nafarroa eta Bizkaiko bertsolari txapelketetan landu da batez ere baina baita beste plaza batzuetan ere. Azpimarratzekoa da bertsoa.eusen ere publizitatea eskaintzeko aukera eman dugula.

<b>Proiektuaren izena</b>	EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILERA BIDEAN
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Jarraia
<b>Deskribapen motza</b>	Etorkizunera begira, elkarTEaren kokapenaren eta egitekoen, zein ekonomiaren eta giza baliabideen ulerkeraren inguruko azterketa burutu da, eta langileekin eta zuzendaritzarekin eztabaidatu nahi da hurrengo pausoak erabaki aurretik.
<b>BALORAZIOA</b>	2020an egin zen lanketari jarraituz, arlo honetan aurrera egin da, eta berriazko lanketarik egin ez den arren, EHBEn berrantolaketa oinarrian ikuspegi hori txertatzen hasi gara, berrantolaketa

	<p>proposamen, finantza ereduaren eztabaida mahai gaineratuz eta egungo proiektuak behar dituen tresna desberdinak sortzeko beharra adieraziz.</p> <p>Horrez gain, HUHEZlrekin ikerketa bat egiteko kontratua sinatu genuen eta Aritz Zerain ari da 2022ko abuztuaren 31an amaituko den lankidetzaren gaineko ikerketa burutzen.</p>
--	--

<b>Proiektuaren izena</b>	FORMAZIO PLANA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 udarako
<b>Deskribapen motza</b>	Formazioaz zer ulertzen dugun hausnarketa egitea, formakuntza beharrak identifikatzea, formazioaren beharra azalera ateratzea, formakuntza plana diseinatzea, eta formazio saiok planteatzea eta egikaritzea.
<b>BALORAZIOA</b>	Formakuntza beharrak identifikatu ziren urte hasieran eta horren arabera hainbat formazio egin ditugu. EHBEko soldatapeko langileek denboraren erabilera eraginkorra eta akta eta bileren dinamizazioa egin dute. Indarkeria matxisten kudeaketarako mezuak lantzeko lana egin dute zuzendaritzakideek.

<b>Proiektuaren izena</b>	BERDINTASUN PLANA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 udatik aurrera
<b>Deskribapen motza</b>	lido feminista garatzeko ekintza plana diseinatzea da asmoa. Batetik, bertso mugimenduaren egitura eta antolaketan, eta bestetik, egun duen jardunean genero perspektiba txertatzea. Egitura

	eta jardun feminista lortzeko bidean ekintza plana osatu nahi da. Bide horretan, ekintza asko egiten dira dagoeneko, baina urrats hauen bidez, zehar-lerroa egituratu nahi da. Epe ertainerako zein luzerako helburuak eta ekintzak zehaztuko dira.
<b>BALORAZIOA</b>	9 soldatapeko eta borondatezko osatutako lantaldea aritu da berdintasun plana diseinatzen. 2018ko gogoeta estrategikoan feminismoaren tailerrean atera ziren ideia guztiak sailkatu, ordenatu eta Bertsozale Elkartearen I.Berdintasun planaren hezurdura diseinatu da Farapi kooperatibako kideen gidaritzapean. 2022an diseinu horren kontrastea egingo da eta planaren inplementazioa eramango da aurrera.

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSO MUNDUKO EMAKUMEEN VI. TOPAKETAK
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Udazkenean
<b>Deskribapen motza</b>	Egun plazan dabiltzan emakume bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta bertsozaleak biltzea eta elkar ezagutzea eta saretea lortu nahi da; azken batean, emakumeon artean harreman sarea sortzea, gaur egun bakoitzak dituen kezka nagusiak zein ikuspegi teorikoak elkarrekin partekatzea, eta bertotan (sorkuntza mailan) zer pauso eman ditzakegun lantzea da topaketan helburua. Aurten, 2016. urtean egin ziren azken topaketak berreskuratu nahi dira formatu eta eduki berritzaileekin. Horretarako, bi eguneko topaketak egingo dira Gipuzkoako aterpetxe batean.
<b>BALORAZIOA</b>	Pandemia dela eta ezin izan ditugu topaketak egin.

<b>Proiektuaren izena</b>	ARGITALPEN POLITIKAREN AZTERKETA
---------------------------	----------------------------------

<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Udazkenean
<b>Deskribapen motza</b>	Elkartearen argitalpen politikak ez du bide-orri jarraitua izan. Bide-orria marrazteko bi dira aurten egin nahi diren lanak: 1. laz markatutako bideetan informazioa jaso 2. Argitalpen politikaren eztabaida egin
<b>BALORAZIOA</b>	Lankuren berrantolaketa eman da eta orain arte Lankuk zuen argitalpenen bidea bertan behera uztea ekarri du. Hori dela eta, Elkarteak bere argitalpen politika zein izan behar den erabaki behar du. Hori lotuta eman da eztabaida Elkarteak argitaratu beharko lituzkeenak nondik nora joan beharko liratekeen. Momentuz lehentasunak markatu dira eta erabaki diren argitaratu beharrekoak lantzeko kanpo harremanak egin dira, Bizkaiko Foru Aldundia eta Elkarrekin.

<b>Proiektuaren izena</b>	MINTZOLA AHOZKO LANTEGIA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urtean zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Mintzola Ahozko Lantegiaren egitasmoaren eta egituraren birdefinizio eta gogoeta prozesu bat gauzatuko dugu 2021ean. Hamabost urteko ibilbidea egin dugu, Mintzola proiektua definitzen hasi ginenetik, eta bidea oparoa izan da. Bertsolaritzaren ikerketari dagokionez, pauso esanguratsuak eman dira, unibertsitateekin harreman iraunkorrak landu dira, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren jardueraren gizarteratzean aurrerapausoak eman dira... Egitura konplexua du Mintzola Patronatuak, oso izaera ezberdineko eragileak ari gara elkarlanean patronatuan, eta, funtzionamenduari zein edukiari buruzko gogoeta egiteko abagunea dela iritzita, horretarako prozesu bat abiatu dugu.

<b>BALORAZIOA</b>	<p>2021an zehar Mintzolako patronatuan eman den hausnarketa prozesuaren ondoren, Mintzola fundazioa azkentzea eta likidatzea erabaki da. Hausnarketa prozesua Emun kooperatibak gidatu du eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bertsozale Elkarteak izan dira interlokutore nagusiak.</p> <p>2021eko urte amaieran egin den fundaziok patronatuan Mintzola proiektuak hemendik aurrera Euskaltzaindian jarraituko duela erabaki da eta, bide horretan, orain arte Mintzolak sede izan duen Subijana etxea Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen sede bilakatu da Villabonako udalarekin horrela adostuta.</p> <p>Mintzola berrian EHBek izango duen parte hartzea eta lankidetzak proiektuak zeintzuk izango diren erabakiko da 2022an zehar Euskaltzaindiarekin batera. Mintzolak hamabost urtetako ibilbidean sortu duen eduki eta jakintza biltzen dituen webgunearen eduki-transferentzia EHBE eta Euskaltzaindiarekin batera egingo da.</p>
-------------------	--

<b>Proiektuaren izena</b>	ERASO MATXISTEI ERANTZUTEKO KOMUNIKAZIOA LANTZEKO FORMAZIO SAIOA ETA GIDA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 uda aurretik (protokoloa), 2021 uda (sozializazio kanpaina diseinatu) eta 2021 udazkena (martxan jarri)
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Eraso matxistak kudeatzeko protokoloa osatu genuen 2020. urtean. Protokoloa Bertsozale Elkartean sozializatzeko beharrezkoak ditugu bi pauso:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Emagin elkartekoekin formazio saioa egingo dugu, egoera ezberdinetara egokitzeko Bertsozale Elkartek hartu behar duen jarrera lantzeko eta argitzeko</li> <li>2. Bertso-eskoletara protokoloa modu praktikoan eta ulergarrian helarazteko sozializazio kanpaina egingo dugu. Horretarako sortu nahi da gida praktikoa: erasoak identifikatzeko eta horiei erantzuna emateko baliagarria izateko. Lan berezia egingo da komunikazio ekintzak identifikatzeko; mezuak eta kanalak zein izan behar duten, alegia.</li> </ol>

<b>BALORAZIOA</b>	<p>Eraso matxisten protokoloa maketatu eta horretan oinarritutako erantzun azkarreko gida sortu da. EHBEko zuzendaritzakideekin formazio saio bat egin da komunikatiboki zein mezu eman nahi ditugun eta Elkartearen kokapen politikoa aztertzeke.</p> <p>Eraso matxistak kudeatzeko lantaldea sortu da eta <a href="mailto:lantaldeafeminista@bertsozale.eus">lantaldeafeminista@bertsozale.eus</a> helbidea sortu da eraso matxisten salaketa kanal modura.</p> <p>Protokoloa eta gida sozializatzea izango da 2022ko helburua.</p> <p>Era berean, Txapelketa nagusirako protokolo berezitua sortuko da.</p>
-------------------	--

<b>Proiektuaren izena</b>	ONDARE IMMATERIALAREN IZENDAPENA EAEn ETA IPAR EUSKAL HERRIAN
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 udaberria (erakundeen zain gaude EAEn); Ipar Euskal Herrian bilerak hasi behar dira
<b>Deskribapen motza</b>	Eusko Jaurlaritzak bertsolaritza Ondare Immaterial izendatzea, Elkargoarekin prozedura abiatzeko lehen harremanak bideratzea, Unescoren hautagaitzarako Administrazioan interesik dagoen aztertzea eta izendapen bat dagoenean komunikazio lanketa egokia egitea.
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Urte oparoa izan da. Nafarroan izendapenaren ostean bertsolaritzaren ikerketarako eta bilketarako hitzarmena lortu da. Parisen bertsolaritza ondare inmaterial izendatzeko eskaria egin da (Gobernuko kultura saileko 6000 euroko laguntza bati esker Beñat Iturralde antropologoak egin du eskaria).</p> <p>EAEn 2020. urtean egin zen eskaria eta ez du gobernuak izendapena ebatzi, geldirik daukate gaia. NAEN Euroregioak eta Unesco Etxeak interesa dute Unescoren hautagaitza bateratua lantzeko.</p>



# HEZKUNTZA

## Deskribapena

<b>Urteko helburuak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Hezkuntza Saileko lantaldea eta egitasmoak koordinatzea.</li><li>- Lurraldeei hezkuntzan babesa eta laguntza ematea. Haien jarraipena egitea.</li><li>- Lurraldeekin batera eraikitzea Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko hezkuntza egitasmoak, parte-hartze arduratsua zainduz denok. Proiektu bateratuaren koordinazioa egitea.</li><li>- Eskolartekoan, materialgintzan eta formazioan, finantzaketa bateratua gauzatzea, lurraldeekin eta Lankurekin batera.</li><li>- Zaintza. Egitasmoa orekatzea, aurrekontua eta giza baliabideak. Prozesuetan harremanak zaintzea, norberaren eta taldearen hazkunderako.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- EHBeko Hezkuntza Saileko lantaldea eta egitasmoak koordinatu ditugu. Partaide bakoitzaren funtzioak eta kokapena argitu ditugu.</li><li>- Lurraldeei hezkuntzan babesa eta laguntza ematen saiatu gara. Jarraipena egin diegu.</li><li>- Saiakera egin dugu EHBeko hezkuntza egitasmoak lurraldeekin batera eraikitzeko, parte-hartze arduratsua zainduz denok. Proiektu bateratuaren koordinazioa egin dugu.</li><li>- Elkarteko parte hartzea aztertzeko tailerretan ateratako ondorioekin, batzordeetako bileren dinamikak berrikusi ditugu.</li><li>- Eskolartekoan, materialgintzan eta formazioan, finantzaketa bateratua gauzatu dugu, lurraldeekin eta Lankurekin batera.</li><li>- Zaintzan jarri dugu begia. Egitasmoa orekatzen saiatu gara, aurrekontuz eta giza baliabidez. Prozesuetan harremanak zaindu ditugu, norberaren eta taldearen hazkunderako.</li></ul>

<b>Sailaren kudeaketa</b>		<b>BALORAZIOA</b>
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	
<b>Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Hezkuntza Saileko lankideen arteko funtzionamendu eraginkorra eta jasangarria lantzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinatzailearen eta saileko eragile/proiektu arduradun bakoitzaren (aisialdia, formazioa, materialgintza, diseinatzailea) funtzioak eta zereginak argitzea.</li> <li>- Saileko lankideen arteko koordinazio iraunkorra lantzea.</li> <li>- Sailean lanpostu jasangarriak antolatzea: zaindu eta jarraipena egin kide bakoitzaren lan-kargari.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinatzailearen eta saileko eragile/proiektu arduradun bakoitzaren (aisialdia, formazioa, materialgintza, diseinatzailea) funtzioak eta zereginak zehaztu ditugu. Baita bakoitzak Elkartean eta batzordeetan izan behar duen kokapena argitu ere.</li> <li>- Saileko lankideen arteko koordinazio iraunkorra mantendu dugu, urte osoan zehar.</li> <li>- Sailean lanpostu jasangarriak antolatzeari jarri diogu begia: zaindu eta jarraipena egin diogu kide bakoitzaren lan-kargari.</li> </ul>

<p><b>Hezkuntza Saileko batzordeak kudeatzea, erabakigune bakoitzaren gaiak zainduz</b></p>	<p><b>Batzorde Txikia</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza Batzordean eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritzan landu beharreko gaiei jarraipena egitea.</li> <li>- Euskal Herriko proiektuak eta gaiak kontrastatzeko baliatzea.</li> <li>- Borondatezko arduradunaren (Oihanaren) parte-hartzea zaintzea, erritmo ezberdinak uztartuz.</li> </ul> <p><b>Hezkuntza Batzordea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrialdeen parte hartzea eta koordinazioa zaintzea.</li> <li>- Euskal Herriko proiektuak herrialdeekin eraikitzea eta erabaki nagusiak bertan hartzea zaintzea.</li> <li>- Eskolartekoa, formazioa eta materialgintzako aurrekontu bateratuei jarraipena egitea eta ikasturteko erabakiak hartzea batzordean.</li> <li>- Bileren dinamika eta informazio trukea zaintzea.</li> </ul> <p><b>Batzorde Pedagogikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrialdeetako ordezkarien parte-hartzea eta koordinazioa zaintzea.</li> <li>- Didaktikan, formazioan eta materialgintzan erabaki estrategikoak bertan lantzea eta prozesuak lantaldetik bideratzea.</li> <li>- Bileren dinamika eta informazio trukea zaintzea.</li> </ul> <p><b>Irakasle mintegiak</b></p>	<p><b>Batzorde Txikia</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza Batzordean eta EHBeko Zuzendaritzan landu beharreko gaiei jarraipena egin diegu.</li> <li>- Euskal Herriko proiektuak eta gaiak kontrastatzeko baliatu dugu.</li> <li>- Borondatezko arduradunaren (Oihanaren) parte-hartzea zaintzen saiatu gara, erritmo ezberdinak uztartuz.</li> </ul> <p><b>Hezkuntza Batzordea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrialdeen parte hartzea eta koordinazioa zaindu dugu. Gai ordenean eta urteko gaien planifikazioan aldaketak egin ditugu herrialdeen parte hartzea sustatzeko.</li> <li>- Euskal Herriko proiektuak herrialdeekin eraiki ditugu eta erabaki nagusiak bertan hartu ditugu.</li> <li>- Eskolartekoa, formazioa eta materialgintzako aurrekontu bateratuei jarraipena egin diegu eta ikasturteko erabakiak batzordean hartu ditugu.</li> <li>- Bileren dinamika eta informazio trukea zaindu dugu.</li> </ul>
---	---	---

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Didaktikan, formazioan eta materialgintzan irakasleek aktiboki parte har dezaten, ikasturteko prozesuak zaintzea.</li> <li>- Herraldeetako irakasle mintegietara errondak egitea eta informazio trukea zaintzea.</li> </ul> <p><b>Aisialdi batzordeak: Udalekuen Batzordea eta Sormen egitasmoen Batzordea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzordean soldatapeko eta borondatezkoen engranje egokia zaintzea.</li> <li>- Proiektu bakoitzaren barne erabakiak dagokien guneetan hartzea.</li> <li>- COVID-19 egoerara egokitzeko forma eta modu berriak diseinatzea, egiteko aukera ez baztertzen saiatzea.</li> </ul>	<p><b>Batzorde Pedagogikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herraldeetako ordezkarien parte-hartzea eta koordinazioa zaindu dugu.</li> <li>- Didaktikan, formazioan eta materialgintzan erabaki estrategikoak bertan landu ditugu eta prozesuak lantaldetik bideratu ditugu.</li> <li>- Bileren dinamika eta informazio trukea zaindu dugu.</li> </ul> <p><b>Irakasle mintegiak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Didaktikan, formazioan eta materialgintzan irakasleek aktiboki parte har dezaten, ikasturteko prozesuak zaindu ditugu.</li> <li>- Herraldeetako irakasle mintegietara errondak egin ditugu eta informazio trukea zaindu dugu.</li> </ul> <p><b>Aisialdi batzordeak: Udalekuen Batzordea eta Sormen egitasmoen Batzordea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzordean soldatapeko eta borondatezkoen engranje egokia zaintzen saiatu gara.</li> </ul>
--	---	--

		<ul style="list-style-type: none"><li>- Proiektu bakoitzaren barne erabakiak dagokien guneetan hartzeari begia jarri diogu.</li><li>- COVID-19 egoerara egokitzeko forma eta modu berriak diseinatu ditugu. Bertso Udalekuak egin ahal izan ditugu baina Ahots Baten sormen egonaldia ez.</li></ul>
--	--	---

<p><b>Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko gainerako sailekin eta lantaldearekin koordinazioa zaintzea</b></p>	<p><b>Euskal Herriko Bertsozale Elkartea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko Elkarteko lantaldea zaintzea, partaide gisa.</li> <li>- Beste sailekiko eta zehar-lerroekiko koordinazioa zaintzea.</li> <li>- Elkarteko funtzionamenduaren parte-hartze prozesuan eragitea eta gure sailetik/sailean ekarpenak egitea/eraldaketak lantzea.</li> </ul> <p><b>Lanku</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Materialgintzan, diseinatzailearen lanpostua argitzea (dedikazioa, lan gunea, kokapena).</li> <li>- Materialgintzako diru-sarrera eta gastuen banaketa argitzea, Euskal Herriko Bertsozale Elkartea-Lanku harremanari dagokienean.</li> </ul>	<p><b>Euskal Herriko Bertsozale Elkartea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko Elkarteko lantaldea zaintzen saiatu gara, partaide gisa.</li> <li>- Beste sailekiko eta zehar-lerroekiko koordinazioa zaindu dugu.</li> <li>- Elkarteko funtzionamenduaren parte-hartze prozesuan eragiten eta gure sailetik/sailean ekarpenak egiten/eraldaketak lantzen aritu gara.</li> </ul> <p><b>Lanku</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Materialgintzan, diseinatzailearen lanpostua definitu dugu (dedikazioa, kokapena). Lankutik EHBE-ko lantaldera pasa da diseinatzailea.</li> <li>- Materialgintzako diru-sarrera eta gastuen banaketa argitu dugu, EHBE-Lanku harremanari dagokionean. 2021etik aurrera gastu eta sarrera guztiak EHBEk asumituko ditu.</li> </ul>
---	--	--

## Proiektuak

<b>Proiektuaren izena</b>	WWW.BERTSOESKOLA.EUS
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar, asteroko maiztasunez berrituz
<b>Deskribapen motza</b>	Astero edukiak berrituko dira, aktualitateari jarraipena eginez. Horrez gain, atal hauek garatuko dira: <i>Hasiberriak atala, Gaitegia atala eta Bertso jarriak atala.</i>
<b>BALORAZIOA</b>	Ataria astero berritu dugu. Hauek dira 2021ean sareratutako eduki berriak: -Bertso jarriak, 32. -Historiako bertsoaldi, dokumental, ikus-entzunezko hautatuak: 9 -Zirtoak lantzeko material didaktikoa bere ikus-entzunezkoekin (5 bideorekin). Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunearekin eginiko materiala da. -Bertso pantaila jolasak: 10 -Bertso karta jolasak eta horiekin baliatzeko ikus-entzunezkoak zein pantaila jolasak: 10 -Gaitegia atalean sareratutako gai berriak: 46 -Aktualitateari jarraipena egiteko, albisteak (gehienak, jatorrizko iturriko loturak dira): 146 Atariak 2021ean izan dituen erabilera datuak: 14.000 erabiltzaile. Sesiok 26.000 izan dira.

<b>Proiektuaren izena</b>	WWW.BERTSOIKASGELA.EUS
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar, asteroko maiztasunez berrituz
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Astero edukiak berrituko dira, aktualitateari jarraipena eginez eta asteko lanketa didaktikoak proposatuz. Horrez gain, atal hauek garatuko dira: bertsoaren lanketa mailakatua (eta, honen barruan, zirtolari atala) eta gelan egiteko jarduera bilduma.</p> <p>Ikasliburua berritzean sortzen diren edukiak ere atariratuko dira.</p>
	<p>Asteroko maiztasunez eguneratu dugu ataria.</p> <p>2021ean sareratutako edukiak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-“Zozoak beleari” ikasmaterial berriko 10 sekuentzia didaktikoak. Bakoitzean: eduki didaktikoen pantaila, ereduzko bertso sortak (audio eta ikus-entzunezkoekin), bideoteka (ereduzko bertsoaldiekin), gelan bat-batean egiteko dinamikak (pantailaz gidatzekoak), pantaila jolasak, doinutegia eta jendaurrean jarduteko errubrika.</li> <li>-Urteko data seinalatuetan, albisteak sortu ditugu, gelan egun horren bueltan egiteko proposamen didaktikoekin.</li> </ul> <p>Atariak 2021ean izan dituen erabilera datuak: 53.000 erabiltzaile. Sesioak 106.000 izan dira.</p>



<b>Proiektuaren izena</b>	IKASLIBURUA BERRITZEA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 iraila
<b>Deskribapen motza</b>	Ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko <i>Mundu bat bertso</i> ikasliburuaren lehen liburua berritzea
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Ikasliburua berritu dugu eta “Zozoak beleari... Kopla bi!” ikasmateriala sortu dugu. Euskari ezberdinen bidez gelaratzeko materiala da, osotasuneko proposamen didaktikoa egiten duena: <a href="http://www.bertsoikaskgela.eus">www.bertsoikaskgela.eus</a> atarian, sekuentzia bakoitzari dagozkion material guztiak eskaintzen dira. Irakasleek gelan bat-bateko dinamikak sustatzeko karta jolasen bilduma ere badakar, eta nahi duten ikastetxeek, ikasliburua baliatu dezakete (gelan egindako bertsoak erregistratzeko eta ikasleei oinarritzko azalpen teorikoak zein erreferentziazko bertso sortak eskaintzeko).</p> <p>Ikasmaterial sorkuntzan herrialdeetako irakasle mintegiak aritu dira. Bertsolariei enkarguzko sortak eskatu dizkiegu, musikatu eta bideoz sareratu ditugunak. Diseinua ere zaindu da. Metodologiari dagokionez, “Mundu bat bertso”k zekarren oinarriari gelan bat-batean bertsotan egiteko planteamendua integratu diogu. Pozik gaude, oso, emandako pausoaz.</p>

<b>Proiektuaren izena</b>	KARTA JOLASAK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Argitaratu ditugu karta jolasen erabilerari jarraipena egitea eta irakasleen balorazioa jasotzea. Proiektu honen hurrengo pausoa adostea, lantaldearekin.
<b>BALORAZIOA</b>	Bertso-eskolentzat sortu genituen karta jolasak oso gustura erabili dituzte irakasleek, eta material honek pista handia eman digu ikastetxeetarako "Zozoak beleari... kopla bi!" material didaktiko berria planteatzerakoan. Hala, material berria elkarren osagarri izan den euskarri ezberdinen bidez ekoizteko pausoa eman dugu. Eta 2021ean beste karta baraja berria ekoiztu dugu: ikastetxeetan baliatzeko 10 sortarekin, ikasmaterialean datozen 10 sekuentzia didaktikoei lotuta berariaz. Irailerako ekoiztu ditugu, eta eduki bera pantailaz baliatzeko ere prestatu dugu: <a href="http://www.bertsoikagela.eus">www.bertsoikagela.eus</a> eta <a href="http://www.bertsoeskola.eus">www.bertsoeskola.eus</a> atarietan sareratu duguna.

<b>Proiektuaren izena</b>	MATERIALGINTZA: FINANTZAKETA ETA EKOIZPEN BATERATUA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Lankurekin argitzea material sorkuntzan erakunde bakoitzak hartuko duen ardura (eta lan dedikazioak), bi erakundeen arteko lan funtzionamendua eta finantzaketa
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Batetik, ikasmaterial hauentzat Jaurlaritzako Euskalgintza deialdiko diru laguntzak lortu ditugu: <a href="http://www.bertsoeskola.eus">www.bertsoeskola.eus</a> atarian eduki berriak sareratzeko eta karta jolasak ekoizteko.</p> <p>Bestetik, Lankurekin material sorkuntzan erakunde bakoitzaren ardura zein izango den argitu dugu. Lankuk berrantolaketa egin du 2021ean eta argitalpenekin ez jarraitzeko erabakia hartu du. Hortaz, hemendik aurrera ikasmateriala ekoizteko ardura, gastuak eta sarrerak osoki EHBE-k hartuko du. Lankuko diseinatzailea ere EHBE-ko lantaldera etorri da, ikasmateriala diseinatzeko dedikazioaz.</p> <p>Hirugarrenik, herrialdeekin 2019/2020 ikasturtetik abian dugun materialgintza finantzaketa bateratuaren planteamendua landu dugu berriz ere, gogora ekartzeko zein diren adostuta ditugun irizpideak eta oinarriak eta zein izan den, horiek abian ditugunetik, diru sarrera eta gastuen bilakaera. Adostu dugu hiru urtekako zikloetan funtzionatzea: bai materialgintzan zer sortu definitzerakoan (3 urteko plangintzak eginez) eta baita finantzaketa irizpideei dagokienez ere.</p>

<b>Proiektuaren izena</b>	MINTZA JOLAS – BERTSO UDALEKUAK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2020 urria – 2021 abuztua
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Udan haur eta gazte horiei, elkar ezagutzeko eta bertsoan gozatzeko gune bat eskaintzea izan da, sorreratik, Bertso Udalekuen funtzioa. Ikastetxeetan eta bertso-eskoletan zaletu diren haur horiei, edo oraindik bertsolaritzarekin harremanik izan ez harren interesik duten haur eta gaztetxoei begirako udalekuak baitira Bertso Udalekuak.</p> <p>1996. urtean hasi zen Bertsozale Elkarteak udalekuak antolatzen: Ipar Euskal Herrian egin ziren lehen bi txandak (14-17 urte bitarteko 25 gaztek hartu zuten parte). Urteak joan ahala proiektua zabalduz joan da Euskal Herri osora. Bertso Udalekuen funtzioa zaletzea denez, bertsolaritzak presentzia handia du udalekuotan. Alabaina, ez dira bertsolaritzako klase formalak ematen udalekuotan. Aisialdiko ekintza, jolas eta bertso afarien bidez lantzen da zaletasuna.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Edizio honek Covid neurriekin antolaketa egokitzeko zailtasuna izan du ezaugarri nagusi. Hala, bost txanda beharrean oraingoan 8 antolatu ditugu, baina egun kopuruak murriztuz (5 egunetara) eta taldekideak ere erdira ekarriz egonaldi bakoitzean. Hauek izan dira datak eta lekuak:</p> <p>9-11 urtekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Beizama (Gipuzkoa). Uztailak 3-7</li> <li>- Uitz (Nafarroa). Uztailak 10-14</li> <li>- Irañeta (Nafarroa). Uztailak 25-29</li> </ul> <p>12-14 urtekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sopela (Bizkaia). Uztailak 2-6</li> <li>- Uitz (Nafarroa). Uztailak 15-19</li> </ul>

15-18 urtekoak

- Beizama (Gipuzkoa). Uztailak 8-12

- Amaiur (Nafarroa), 1. txanda. Uztailak 20-24

- Amaiur (Nafarroa), 2. txanda. Uztailak 25-29

Partehartzeari dagokionez, datuak hauek dira:

Adina eta sexuaren arabera

-9-11 urtekoak: 65 haur %74 neskak, %26 mutilak.

-12-14 urtekoak: 54 gaztetxo %48 neskak, %52 mutilak

-15-18 urtekoak: 59 gazte %73 neskak, %27 mutilak

Orokorrean beraz: guztira 176 partaide, horietatik %66 neskak,%34 mutilak.

Parte hartzea lurraldetasunaren arabera:

-Gipuzkoarrak 60 haur, %34

-Bizkaitarrak 59 haur, %34

-Arabarrak 20 haur, %11

-Nafarrak 19 haur, %11

-Lapurtearrak 14 haur, %8

-Xiberutarrak 3 haur, %2

-Baxenafartarrak haur 1, %1

Hezitzaile taldean 40 kide aritu dira.

Udalekuak antolatzeke ardurua Eider Perezek hartu du (lehen aldiz) eta transmisio lana egin diogu, baita jarraipena eta laguntza eskaini ere. Lan ederra egin du, antolaketan eta aisialdi zein udaleku batzordeen dinamizazioan.

2022ko edizioari begira, soldatapeko langileei dagokien lan antolaketa berria diseinatuta utzi dugu. Bertso Udalekuak antolatzeko ardura soldatapeko langile bakarrak eraman izan du orain arte (lan bakartia izan dena), baina hemendik aurrera soldatapeko lantaldean egingo da jarraipena eta bidelaguntza. Lantalde horretako kide bakoitzaren funtzioak eta dedikazioak ere zehaztuta utzi ditugu (Bertso Udalekuen koordinatzaile rola ere sortuz).

<b>Proiektuaren izena</b>	AHOTS BATEN SORMEN EGONALDIA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 iraila – 2021 abendua
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Bertsozale Elkarteak eta Mintzola Ahozko Lantegiak elkarlanean egindako proiektua da, Euskal Herriko gazte sortzaileak sormenean murgildu eta saretzeko asmoarekin sortua.</p> <p>5 edizio egin dira guztira, eta, orain arte, Eguberrietako oporraldietan bost egunetako egonaldia egiten zen arren, aurten helburuak berak izanda, segurtasun neurriak bermatu ahal izateko ekimenaren formatua aldatu behar izan da: bi eguneko egonaldia eskaini zaie euskarazko sorkuntzan aritzen diren 18-22 urte bitarteko gazteei.</p> <p>Hala, euren zaletasun bera duten beste herrialdeetako gazteak ezagutu eta harreman sareak eraikitzeke aukera dute, sormenari eta euskarazko adierazpenari eskainitako egonaldian.</p> <p>Egunero kultur adierazpide bat lantzen da: antzerkia, bertsolaritza, kantagintza eta literatura.</p> <p>Horretarako, alor horietan aritzen diren hezitzaileekin eta artista gonbidatuekin osatutako lantaldeak egun osoko dinamika bideratzen du.</p> <p>Egunean zehar adierazpide batean barneratu, girotu eta esperimintatzeko dinamikak egiten dituzte talde handian. Gazteek aukera dute artista gonbidatuengandik tailerrak jasotzeko eta harekin batera taldean sorkuntzan murgiltzeko. Artistek ere euren emanaldiak eskaintzen dituzte gazteentzako formatu txikian.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Ekimena diseinatzeko lana egin dugu (hezitzaile taldeaz eta sortzaile gonbidatuekin); finantzaketa lortu dugu eta deialdia zabaldu dugu, eta gazteen aldetik izen-ematea handia izan da (35 gazte).</p> <p>Baina Covid-a dela-eta (hezitzaile eta artista gonbidatu askok azken unean positibo eman dutela-eta), ez dugu gauzatzerik izan. Datorren urterako, ekimena dataz aldatzea aztertzea da</p>

(abenduan egiteak arrisku hori izan dezake-eta, datorren urtean ere). Aurten egin dugun antolaketa lan guztia, datorren urteko ediziorako baliatzekoa da.



<b>Proiektuaren izena</b>	ESKOLARTEKOA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 ekaina
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Bertsozale Elkartek eta Ikastolen Elkartek 2012-2013 ikasturtean egindako gogoeta bateratuen ondorio da gaur egun esku artean dugun Eskolartekoaren proiektua. Gogoetaren ondorioz, oso egoera anitzei erantzuteko Eskolartekoa behar zela ondorioztatu zen. Izan ere, herrialde bakoitzaren egoera soziolinguistikoa oso ezberdina da. Horrek eragin zuzena du ikastolen eta bertsolaritzaren egoerarekin.</p> <p>Euskal Herri mailako ekimena den Eskolartekoa Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek antolatzen dute elkarlanean, bertso-eskolen laguntzari esker. Bertso-eskoletako 15-18 urteko gazteek hartzen dute parte Eskolartekoan, bat-bateko txapelketan. Lehenik, lurraldeetako Eskolarteko txapelketak jokatzen dira, eta Euskal Herriko finala dator gero. Finalean lurralde bakoitzeko bertsolari bi aritzen dira kantuan, aurretik jokatuko diren lurraldeetako finaletatik sailkatuko direnak.</p> <p>Euskal Herriko finalista guztiak izaten duten saria: hurrengo Gabonetan egiten den Ahots Baten egonaldiaren hirugarren edizioan parte hartzeko aukera. Egonaldian antzerkigintzatik, kantagintzatik zein literaturatik datozen beste euskal gazteekin elkartzeko aukera izango dute bertsolari gazteek.</p> <p><b>14 urtetik beherako ikasleen plazaratzea</b></p> <p>2012-2013 ikasturtean gauzatu zen gogoetaren ondorioz, 14 urtetik beherako ikasleen kasuan, lehia osasuntsua ez zela ondorioztatu zen. Halere, ikasleen plazaratzea eta komunitate bateko kide sentitzeko premia asebate behar da, beste zenbait helbururen artean. Horregatik, bi ekimen mota proposatu dira:</p>

	<p>-Bertso meriendak: bailaraka edo herrika gauzatzen dira, tokian tokiko ezaugarrien arabera. Bertso-eskolako ikasleak bildu eta kanturako, naiz bertsolaritzaren inguruko ekimenekin gozatzeko aukera eskaini nahi da.</p> <p>-Bertso saio didaktikoak: idatzizko saioen osagarritzat ulertu dira. Hemen, bertso-eskoletako haurrei taularatzeko aukera eskaintzen zaie. Era berean, bertso saio bat ikusteko aukera izaten dute (idatzizkoaren exekuzioarekin lotuta dago bertso saio didaktikoa).</p>
<b>BALORAZIOA</b>	

<b>Proiektuaren izena</b>	AHOSTEGUNAK
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 iraila – 2021 abendua
<b>Deskribapen motza</b>	<p>2019. urtean lehen aldiz martxan jarri zen Ahostegunak proiektua, Mintzola eta UPV/EHUko Laboa Katedraren arteko elkarlanean, eta Bertsozale Elkartearen laguntzarekin. Euskaltzaindiako Tolare baserriko ganbaran egiten da.</p> <p>Unibertsitatean dabilzan ikasleei ahozko kultur sorkuntzako disziplina desberdinak ezagutzeko proiektua da; Ahots Batenen ideiatik ateratako egitasmoa da.</p> <p>Bost ostegunetan egiten da, egun bakoitzean diziplina bat lantzen da: literatura, bertsolaritza, kantagintza eta antzerkia; eta azken egunean, parte hartu duten sortzaile guztien artean mahai inguru txiki bat egiten da.</p> <p>Normalean, 40 ikasle parte hartzen dute; azken urtean 20, aforoa mugatu zelako.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Ekimena diseinatzeko lana egin dugu (hezitzaile taldeaz eta sortzaile gonbidatuekin); finantzaketa lortu dugu eta deialdia zabaldu dugu, baina izen-emate txikiagatik ez dugu gauzatzerik izan. Datorren urterako, talde kopurua osatu dadin, gakoak bi izan daitezkeela ondorioztatu dugu: fakultatea aldatzea (Gasteizkoa izan daiteke egokiena, hizkuntza ikasketetan ari diren ikasleak bertan daudenez) eta epeetan denbora gehiagorekin egitea iragarpena eta izen-ematea. Bestalde, Ahostegunak Mintzolak antolatutako ekimena izan da sorreratik, eta Mintzola Fundazioa eten ostean, datorren urtetik aurrera ekimen honen antolaketaz zein erakunde arduratuko den eta finantzaketa ere argitu beharko dugu.</p>

<b>Proiektuaren izena</b>	METODO DIDAKTIKOAREN BERRIKUNTZA HEZKUNTZA ARAUTUAN
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021eko uztaila (2020-2021 ikasturteko fasea)
<b>Deskribapen motza</b>	Hezkuntza arautuan dugun metodo didaktikoa berritzeko proposamena garatzeko proiektua da. Proiektua faseka gauzatzen da. 2017-2018an hasi zen, eta, pixkanaka, Euskal Herri osoan zabalduz doa. Funtsean ahozkoa eta bat-bateko bertsolaritzara gehiago hurbilduko den metodo baterantz hurbiltzea da gakoa, batez ere ikasprozesua mailakatuz eta hura errespetatuz.
<b>BALORAZIOA</b>	<p><b>Metodoaren ikerketa</b></p> <p>Metodo didaktikoaren berrikuntza prozesuak jakintzan sakontzea eskatzen duela aipatu izan da behin eta berriz. Eginkizun horretan bi ikerketa txiki baina oinarrizko egin dira azken urtean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Aiztondoko Zirtotsa</i> : <i>Aiztondoko zirta tradizioa eta aplikazio didaktikoa</i>. Ikerketa honek zirtuak bertsolaritzaren ikasprozesuan nola lagundu dezakeen aztertu da, Curriculumaren arlo guztietan. Dena den, arreta hizkuntzan jarri da bereziki, esaldi errimatuak egiten ikasteko ikasleek izaten dituzten zailtasunei erreparatuz. Material didaktikoa osatu da, eta bertsoikasgela.eus eta bertsoeskola.eus atarietan dago eskuragarri. Ikasprozesuaren hasierako fasean lagungarri izan daitekeela ondorioztatu da. Horretarako saioetako grabazioak izan ditu aztergai. Ikerketak Kilometroak eta Mintzolaren laguntza jaso du.</li> <li>• <i>Bertsolaritzaren didaktika Bertsozale Elkartearen hezkuntza arautuko proiektuan: irakaslearen estrategiak eta ikasleen egiteko modua</i>. Hiru galdera izan ditu ikerketak: zer den bertsolaritza edo zer eraman nahi den gelara; zein estrategia erabiltzen dituen irakasleak horretarako; eta, azkeni, ikasleek nola egiten-ikasten duten. Lehenari teoriatik erantzun zaio; bigarrenari erantzuteko saioetako grabazioak eta autokonfrontazio saio baten grabazioa erabili dira;</li> </ul>

	<p>hirugarrenerako ikasle talde baten elkarrekintza grabatu da koplak sortzen ari ziren artean. Ikerketa Master Bukaerako Lan gisa aurkeztu da Mondragon Unibertsitatean.</p> <p>Bi ikerketak eskuragarri daude Xenpelar Dokumentazio Zentroan. Horrez gain, material sorkuntzarako eta irakasleen formaziorako oinarri erabiltzen ari gara.</p> <p><b>Inplementazioa</b></p> <p>Berrikuntza prozesua bertsolaritza saioetan zenbateraino gauzatu den jakitea ez da hain erraza, besteak beste, interpretazioak eta irakasle estiloak beti direlako desberdinak. Dena den, gogoeta orokortua izan da Euskal Herri osoan, leku batzuetan gehiago sakondu eta gauzatu den arren. Esan daiteke dagoeneko irakasle guztiek izan dutela honen berri eta baita hausnarketarako aukera ere. Aurrerantzean sakonduz, finduz... joan beharko da. Beharrezkoa izango da, baita ere, ebaluazioan sakontzeko pausoak ematea, egiten diren aldaketek zein emaitza ematen dituzten jakiteko.</p>
--	--

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSOLARITZAKO IRAKASLEEN FORMAZIOA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Ikasturteka lan egiten da: 2020ko irailean hasi eta 2021eko uztailan amaitu. Ondoren berriz ekingo zaio irailean.
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Bertsolaritzako irakasleen formazioa modu sistematikoan gauzatzea da ideia. Horretarako bi formazioaldi bereiziko ditugu: hasierakoa eta etengabekoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehenari begira: hasierako edo oinarrizko formazioa diseinatzen ari gara, erdi-presentziala izango dena, metodo didaktikoaren berritzearekin bat etorritik.</li> <li>- Bigarrenari begira: formazio gogoetatsuan ardatzuko da prestakuntza. Horretarako, HUHEZIKo irakasleekin prestakuntza saioak egingo dituzte batzorde pedagogikoko kideek.</li> </ul>

## BALORAZIOA

### Hasierako formazioa

Ez da oinarritzko ikastaroa martxan jarri. Beste lanek uste baino leku gehiago hartu dute, eta bigarren mailan geratu da eginkizun hau. Arrazoi nagusia hurrengoak da: oinarritzko ikastaroak orain arte dugun ezagutzaren mende egon behar du, batetik; eta, bestetik, adostasuna behar du irakasleen zein eragileen artean. Ezagutza lortzeko egin den ikerketa nagusia irailean amaitu da, eta orain hasi gara pedagogia batzordean gaia lantzen. Dudan gaude oraindik ikerketa sakonago bati itxoin behar zaion ala dugunarekin aurrera egin behar den. Moodle plataforman diseinatzen hasita gaude, hala ere.

### Etengabeko formazioa

Etengabeko formazioan aurrerapauso oso garrantzitsuak eman ditugu. Bitan banatu daitezke, eta biak ere HUHEZlko formazio saioekin lotuta daude.

- Irakasleak HUHEZln: hainbat irakasle autokonfrontazio saio sinpleak eta gurutzatuak egin dituzte Eskoriatzan. Ekainera bitarte pedagogia batzordeko kideak eta beste irakasle bat aritu dira kurtso guztian zehar, hilean behingo maiztasunez. Irailetik aurrera Bizkaiko zazpi irakasle jardun dute urtea amaitu arte. Formazio saio horiek oso baliagarriak izan dira, eta lotura estua sortzen ari gara HUHEZlko Miker ikerketa taldearekin. Gorago aipatutako ikerketa ere bertan egin da, eta tesi bat ere hasi dugu formazioan laguntzen ari zaizkigun bi irakasleak tutore harturik. Aurrerantzean irakasleak bertara joango diren ala geure kabuz moldatutako garen erabaki beharko du herrialde bakoitzak, martxorako. Gaia pedagogia batzordean ere landuko da.
- Prestatzaileak prestatzen: pedagogia batzordeko kideak beste irakasleen prestatzaile izateko prestatzen hasi gara. Azaroan ekin diogu horri HUHEZln, eta 2022an jarraituko dugu, ekaina bitarte, gutxienez. Konfrontazio saioak nola egin ikasten gabilta, batez ere.

**Egituraketan aldaketa**

Azken urtean %40ko lanaldiarekin jardun da formazio eta ikerketa eragilea Euskal Herriko Elkartetik. Fase hori amaitutzat jotzea erabaki da hezkuntza batzordean, eta aurrerantzean herrialde bakoitzak bere formazio eta berrikuntza arduraduna izango du. Herrialde bakoitzeko ordezkariak pedagogia batzordean bilduko dira hilean behin, eta hura izango da koordinazio gunea. Gunearen arduraren lehengo eragileak izango du oraingoz (Mikel Artola). Hartan pasatzen duen denbora Gipuzkoako Elkarrekin hartuko dugu bere gain. Egitura berri horrek herrialde bakoitzean zein forma hartuko duen lantzen ari gara dagokien batzordeetan.

# IKERKUNTZA

## Deskribapena

<b>Urteko helburuak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolaritzari buruzko ezagutzaz jabetzea.</li> <li>- Bertsolaritzari buruzko ezagutza eragitea.</li> <li>- Bertsolaritzari buruzko ezagutza aplikatzea.</li> <li>- Bertsolaritzari buruzko ezagutza hedatzea.</li> <li>- Ikerkuntza eragileekin eta ikertzaileekin dugun harreman sarea zaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdietsia. Ikerketak, gogoetak, idatziak jarraitu ditugu.</li> <li>- Erdietsia. Hainbat deialdi gauzatu ditugu eta lanak eginarazi</li> <li>- Hein batean lortua (transkribatzeko irizpide berriak). Ezin izan diogu zuzenean heldu, nahiz hainbat sailetan bideratu den (Sustapena, Hezkuntza).</li> <li>- Erdietsia. Bi Udako Ikastaro, artikulua eta elkarrizketen proposatu eta hedatzea hainbat euskarritan.</li> <li>- Erdietsia.</li> </ul>

<b>Sailaren kudeaketa</b>		<b>BALORAZIOA</b>
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	



<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Ikerkuntza Batzordearen funtzio, egiteko eta osaketa berrikustea eta berritzea.</b></li> <li>- <b>Azpibatzaordeen sendotzea eta garatzea: Doinutegia Batzordea, <i>Bapatean</i>, Irakurle, Aplikazioa, Ikertzaile...</b></li> <li>- <b>Lurralde, Xenpelar Dokumentazio Zentro, sail eta Feminismo Batzordearekin zuzeneko harremana errotzea eta egonkortzea.</b></li> <li>- <b>Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin bat izatea; ikuspegi partekatua edukitzea.</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikerkuntza Batzordearen funtzionamendua aztertzea; egitekoak identifikatzea eta banatzea; lurralde gehiagoren eta kide berrien parte hartzea.</li> <li>- Azpibatzaordeen dinamika eragitea eta zaintzea.</li> <li>- Lurralde, Xenpelar Dokumentazio Zentro, sail eta Feminismo Batzordearekin harremana eragitea eta zaintzea.</li> <li>- Xenpelar Dokumentazio Zentroko kideekin gogoeta eta ekiteko guneak partekatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezin izan diogu heldu. Herrialdeetan aipatu dugu bertako ordezkariaren beharra baina ez zaigu inor talderatu.</li> <li>- Doinutegi batzordea berpiztea eta sendotzea lortu dugu. Funtzioak eta egitekoak identifikatu ditugu. Ez dugu kide berrik xerkatu, hala hobetsita.</li> <li>- <i>Bapatean</i>-en inguruko lantaldea trinkotu dugu; inoiz bezain eraginkorragoa izan da.</li> <li>- Herrialde eta XDZrekin harreman gehiago eta erregularragoa eduki dugu.</li> <li>- XDZrekin gogoeta eta ekina partekatu dugu (bilketari buruzko gogoeta eta hedapena)</li> </ul>
<p><b>Sailaren jardun eremua identifikatzea</b></p>		

## Proiektuak

<b>Proiektuaren izena</b>	DOINUTEGIA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 abendua
<b>Deskribapen motza</b>	Sortzen edo aurkitzen ditugun doinu berri guztien identifikazioa, deskripzioa eta sailkapena egiten da; eta BDBn denontzat eskuragarri jarri. Gainera, doinuon sustapena eta hedapena eragiten da.
<b>BALORAZIOA</b>	Oso balorazio ona. Doinu berriak identifikatu, deskribatu eta sailkatu ditugu; BDBn denontzat eskuragarri jarri ditugu. Doinuok sustatu eta hedatu ditugu hainbat kanaletan. Horrezaz gain, doinu identifikatzailea kari, zenbait harreman bideratu ditugu ikertzaile eta unibertsitate taldeekin. Herri Musikaren Jardunaldietan konferentzia eman eta tailerretan parte arte genuen. Dorronsororekin harremana zaindu dugu. Dinamikari eutsi diogu. Oso urte emankorra izan da.

<b>Proiektuaren izena</b>	BAPATEAN
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urtean zehar (datuen eta bertsoaldien azterketa eta aukeraketari dagokionez) 2022 urtarrila – 2022 ekaina (aukeratutakoarekin, liburu eta audioa argitaratzea)
<b>Deskribapen motza</b>	<i>Bapatean</i> antologia bat da; txapelketakoak ez diren bertso saioetan kantatutako bertsoaldiekin osatutakoa. Horrezaz gain, informazio asko ematen da; sariketa, lehiaketa, txapelketen datuak, bertso saio, gai-jartzaile, gai, doinu, testuinguru... informazioa eta abar.
<b>BALORAZIOA</b>	Oso balorazio ona. Parte hartzen duten lankideekin lanak eta epeak adostu eta ekin diogu. Zurkaizgoak asko lagundu du kronograma betetzen; inoiz baino goizago prestatu dugu PDFa. Urtean zeharreko hautaketak eta transkripzioak urtean bukaerakoa lehenago egitea ekarri du. Eneko

	Salaberria diseinatzailearekin lan egiteak ere ahalbidetu du hori. Herrialdeetako datu eta argazkiak egitasmo bakoitza bukatu eta handik gutxira jaso behar ditugu horien hautaketa ere urtean zehar egiten joateko.
--	--

<b>Proiektuaren izena</b>	UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA IKERKETA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Zehaztu gabe
<b>Deskribapen motza</b>	Unibertsitatea, enpresa eta gizarteko ordezkari edo elkarte baten artean egingo litzatekeen ikerketa da. Unibertsitateko hiru doktorek gidatuta eta enpresa eta gizarte erakunde baten partaidetzarekin egingo litzateke. Proiektua aurkeztu behar da, eta onartuko balu UPV/EHUK, gero gauzatu beharko genuke; ikertzaileek ikerketa egin eta guk (Lanku Kultur Zerbitzuak, Bertsozale Elkarte) lagundu ahal dugun heinean, eta sosa jaso.
<b>BALORAZIOA</b>	Ez dugu aukerarik izan.

<b>Proiektuaren izena</b>	IKERKETA KONTRATUA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 urria
<b>Deskribapen motza</b>	UPV/EHUK, Mikel Laboa Katedrak eta Mintzolak deitzen duten ikerketa kontratua da, ahozko kultur sorkuntzari buruzko doktore tesi bat egin dadin. UPV/EHUK egiten du kontratua; hiru parteren artean finantziatzen da (bakoitzak 8.000 euro ezarriz, nahiz azken urteotan, Mintzolaren egoera ekonomikoa kari, bere herena Laboak ezarri duen).

<b>BALORAZIOA</b>	Mintzolaren bukaera kari ez zen deitu.
-------------------	--

<b>Proiektuaren izena</b>	IKERKETA PROIEKTU SARIA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 urria
<b>Deskribapen motza</b>	Mikel Laboa Katedrak eta Mintzolak deitzen duten bi ikerketa proiektu sariak dira, ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikerketa lan bat gauza dadin. 2.000 euroko bi sari dira eta urtebeteko epean burutu behar dira.
<b>BALORAZIOA</b>	Oso ona. Deialdia egin zen eta aurkeztutako hainbat lanen artean bi saritu ziren. Laboa Katedrarekin batera deitu ziren bi sariak.

<b>Proiektuaren izena</b>	GRAL SARIA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 urria
<b>Deskribapen motza</b>	Mikel Laboa Katedrak eta Mintzolak deitzen duten saria da, ahozko kultur sorkuntzari edo ahozkotasanari buruzko GRALak egin daitezten eragiteko. 500 euroko sari bakarra da.
<b>BALORAZIOA</b>	Oso ona. Deialdia egin zen eta aurkeztutako hainbat lanen artean bakarraren partez bi lan saritu ziren. Laboa Katedrarekin batera deitu ziren bi sariak.

<b>Proiektuaren izena</b>	KILOMETROAK IKERKETA PROIEKTU BEKA
---------------------------	------------------------------------

<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 urria
<b>Deskribapen motza</b>	Kilometroak Kultur Elkartek eta Mintzolak, Kilometroak ospatuko diren eskualdeko dhozko ondare eta kultur sorkuntzari buruzko ikerketa beka. 3.000 euroko sari bakarra da, urtebeteko epean burutu behar dena.
<b>BALORAZIOA</b>	Oso ona. Proiektu bakarra aurkeztu arren oso ontzat jo zen.

<b>Proiektuaren izena</b>	EUSKALTZAINDIA IKERKETA BEKA DEITZEKO SAIOA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 urria
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsogintza eta hizkuntzari buruzko ikerketa beka deitzeko saioa egitea. 3.000 euroko (edo gehiagoko) sari bakarra da, urtebeteko (edo gehiagoren) epean burutu behar dena.
<b>BALORAZIOA</b>	Ezin izan dugu jorratu

<b>Proiektuaren izena</b>	EMAKUNDE IKERKETA BEKA DEITZEKO SAIOA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 urria
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritza eta generoari buruzko ikerketa beka deitzeko saioa egitea. 3.000 euroko (edo gehiagoko) sari bakarra da, urtebeteko (edo gehiagoren) epean burutu behar dena.

<b>BALORAZIOA</b>	Ezin izan dugu jorratu
-------------------	------------------------

<b>Proiektuaren izena</b>	UIK IKASTAROA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2020 azaroa – 2021 uztaila
<b>Deskribapen motza</b>	Ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikastaroa da, unean diren gaien, gogoeten eta ikerketen arabera antolatu.
<b>BALORAZIOA</b>	Ona. Ikastaroa antolatu genuen eta oso balorazio ona jaso zuen. Matrikula kopuru txikia izan zen beste urteetako gogoan.

<b>Proiektuaren izena</b>	UEU IKASTAROA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2020 azaroa – 2021 uztaila
<b>Deskribapen motza</b>	Ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikastaroa da, unean diren gaien, gogoeten eta ikerketen arabera antolatzea.
<b>BALORAZIOA</b>	Oso ona. Aspaldiko partez ikastaroa antolatu genuen Iruñean, UEUren baitan, eta oso balorazio ona jaso zuen. Matrikula kopuru txikia izan zen hala ere.

<b>Proiektuaren izena</b>	MINTZOLA MINTEGIA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 abuztua – 2021 azaroa

<b>Deskribapen motza</b>	Ahozko kultur sorkuntzari buruzko mintegia da, uneko ikerketen arabera antolatu ohi da egitaraua.
<b>BALORAZIOA</b>	Hizlari potentzial gehien-gehienek ezin zutelako, sari banaketa izan zen antolatu genuena. 2021ean saritutako bi GRALak eta bi proiektu sariei buruzko azalpenak eman zituzten sarituek eta antolatzaileek. Balorazio ona.

# XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

## Deskribapena

<b>Urteko helburuak</b>	<b>Balorazioa</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Bertsozale Elkarteko egitura, funtzionamendua eta antolaketa definitzeko partaidetza prozesuan parte-hartzea.</li><li>- Lantaldearen koordinazioa berrantolatzea eta 2021-2030 aldirako lan-ildoen txostena osatzea.</li><li>- BDBko datu-base dokumentalak DSpaceen garatzea.</li><li>- Bat-bateko ez diren bertsoen tratamendua gogoetatzea eta finkatzea.</li><li>- Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien gauzatzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Bertsozale Elkarteko egitura, funtzionamendua eta antolaketa definitzeko partaidetza prozesuan parte-hartu da urtarriletik ekainera.</li><li>- Lantaldearen koordinazioa ez da berrantolatzerik izan eta 2021-2030 aldirako lan-ildoen txostena ez da osatu.</li><li>- Dspace tresna baztertuta, Omekaren ezagutzan sakondu da. Knosys tresnan dauden datu-baseak Omekara pasatzeko prestatu dira: Prentsa, Orotariko Artxiboa, Bertsozale Elkartearen Artxiboa, Iragarkiak eta Argazkiak</li><li>- Bertsoen tratamendua ikuspegi orokorrarekin landu da: Bat-bateko diren bertsoen tratamendua finkatu da eta bat-bateko ez direnen tratamenduaren gogoeta abiatu da.</li><li>- "Soinu artxiboak: Egitasmo eta esperientziak" izenburupean VII. Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak antolatu ditugu ekainean.</li></ul>



**Sailaren kudeaketa**

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
<p><b>Xenpelarren funtzionamendua eragitea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2021eko egitasmoa zehaztea eta Zuzendaritza Batzordeari proposatzea.</li> <li>- Urteko balorazioa eta memoria Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea urte amaieran.</li> <li>- Egitasmoaren eta aurrekontuaren garapena jarraitzea.</li> <li>- Barne orrian eta <i>BertsoZalean</i> Xenpelar Dokumentazio Zentroaren berri ematea.</li> <li>- Bertsolaritzaren eta Bertsozale Elkartearen sail eta lurraldeetako beharrak detektatzea, aztertzea, lanak antolatzea eta elkarlanean bideratzea:             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Iker taldeko bileretan parte hartzea.</li> <li>- Kudeaketa eta Koordinazio taldeetan parte hartzea eta beharrianak detektatzea.</li> </ul> </li> <li>- Xenpelar Dokumentazio Zentroaren koordinazio ardurak berrantolatzea.</li> <li>- Xenpelar Dokumentazio Zentroaren talde-funtzionamendua sustatzea eta kudeatzea: lanen ikuspegi orokorra denek txertatzea bultzatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2021eko egitasmoa zehaztu da eta Zuzendaritza Batzordeari proposatu zaio.</li> <li>- Urteko balorazioa eta memoria Zuzendaritzari aurkeztu zaio urte amaieran.</li> <li>- Egitasmoaren eta aurrekontuaren jarraipena egin da.</li> <li>- Barne orrian eta <i>BertsoZalean</i> Xenpelar Dokumentazio Zentroaren berri eman da.</li> <li>- Bertsolaritzaren eta Bertsozale Elkartearen sail eta lurraldeetako beharrak detektatu, aztertu, lanak antolatu eta elkarlanean bideratu dira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Iker taldeko bileretan parte hartuz.</li> <li>- Kudeaketa batzordean, Koordinazio batzordean eta aparteko lan-taldeetan parte hartuz.</li> </ul> </li> <li>- Xenpelar Dokumentazio Zentroaren koordinazio ardurak berrantolatzea ez da gauzatu.</li> <li>- Xenpelar Dokumentazio Zentroaren talde-funtzionamendua sustatzen eta kudeatzen jarraitu da, lanen ikuspegi orokorra denek txertatzea bultzatuz.</li> </ul>

<p><b>Bertsozale Elkarteko funtzionamenduaren eta antolaketaren inguruko partaidetza prozesuan parte hartzea eta 2021-2030 aldirako XDZren lan-ildoak finkatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsozale Elkarteko egitura, funtzionamendua eta antolaketa definitzeko partaidetza prozesuan parte hartzea.</li> <li>- Bertsozale Elkartearen gogoeta prozesuaren emaitzak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroaren barne gogoetak abiapuntutzat hartuz 2021-2030 aldirako lan-ildoak zehaztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsozale Elkarteko egitura, funtzionamendua eta antolaketa definitzeko partaidetza prozesuan parte hartu da.</li> <li>- Bertsozale Elkartearen gogoeta prozesuaren emaitzak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroaren barne gogoetak abiapuntutzat hartuz 2021-2030 aldirako lan-ildoak ez dira zehaztu.</li> </ul>
<p><b>Langileen formazioa ziurtatzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behar eta eskaintzaren arabera eta baliabide ekonomikoek eskaintzen duten aukeren arabera langileen formazioa bideratzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsozale Elkarteko hainbat barne formazio saiotan parte-hartzeaz gain, Euskal Autoritateei buruzko Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen VII. Bilkuran parte hartu da.</li> </ul>

<p><b>Harremanak eta elkarlanak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzarmenak zaintzea: Eusko Jaurlaritzako Ondare saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiako Euskara Saila.</li> <li>- Elkarlanak zaintzea: Renoko Euskal Liburutegia; HABE liburutegia; Koldo Mitxelena Liburutegia; Eresbil; Labayru; Herri Musikaren Txokoa, Topic Txotxongilo Zentroa</li> <li>- Xenpelar Dokumentazio Zentrorako oinarriko funtzionamendua eta lan-taldearen finantzazioa ziurtatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Txosten eta aurkezpenak prestatzea.</li> <li>- Erakunde ezberdinei Xenpelar Dokumentazio Zentroaren balioa aurkeztea eta finantzaziorako bideak lantzea.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eusko Jaurlaritzako Ondare sailarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiako Euskara Sailarekin ditugun hitzarmenak zaindu dira.</li> <li>- Renoko Euskal Liburutegia; HABE liburutegia; Koldo Mitxelena Liburutegia; Eresbil; Labayru; Herri Musikaren Txokoa, Topic Txotxongilo Zentroa erakundeekin ditugun hitzarmenen jarraipena egin da.</li> <li>- Xenpelar Dokumentazio Zentrorako oinarriko funtzionamendua eta lan-taldearen finantzazioa ziurtatzeko, Koordinazio sailarekin batera: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Behar izan diren Txosten eta aurkezpenak prestatu dira.</li> <li>- Erakunde ezberdinei Xenpelar Dokumentazio Zentroaren balioa aurkeztu zaie eta finantzaziorako bideak landu dira.</li> </ul> </li> </ul>
---	---	--

## Proiektuak

<b>Proiektuaren izena</b>	DOKUMENTAZIOAREN BILKETA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritzaren oinarrizko dokumentazio funtsaren bilketa.
<b>BALORAZIOA</b>	<p>XDZren oinarrizko egitura osatzen duten, eta bertsolaritzak egunero sortzen duen dokumentu eta datuak bildu dira, sail eta herrialde eta bertsozaleekin elkarlanean.</p> <p>Bertsolaritzaren corpusa osatzeko prozesuan sail eta herrialdeek duten parte hartzea eta ardura azaldu eta sozializatzeko lanak burutu dira, etorkizuneko bilketa ziurtatzeko: Bapatean eta Txapelketetako bertsogintzako corpusak.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Elkarteko sail eta herrialdeek dokumentazioa jasotzeko harremanak bideratu dira eta behar denetan formazioa eman da :<ul style="list-style-type: none"><li>- Grabazio-sarea indartuz</li><li>- Bilketa aniztasuna bermatzeko bitartekoak jarritz</li><li>- Transkripzio eta antologiaren bilketa bultzatuz</li><li>- Argazkien bilketaren garrantzia azalduz</li><li>- Saioen informazio-bilketaren garrantzia azalduz</li><li>- Beste dokumentazio-bilketa ere sustatuz</li></ul></li><li>- Hitzetik Hortzerako 2020/21 eta 2021/22 ikasturteetako dokumentazioa eskuratu da</li><li>- Bertsoa.eus-ek sortutako materiala eskuratu da</li><li>- Lankurekin harremana sendotu da.</li></ul>

	<p>- Bertsolari Aldizkaria: aldizkariak sortzen duen materiala eta aldizkari aleak eskuratu dira eta elkarlanean sakondu da.</p> <p>Dohaintzak erregistratzeko tresna urte bukaeran garatu denez, datuak gogoratu eta denak batera erregistratu behar izan dira BDBn sortutako tresna berrian.</p>
--	--

<b>Proiektuaren izena</b>	DOKUMENTAZIOAREN ANTOLAKETA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritzaren oinarriko dokumentazio funtsaren antolaketa.
<b>Arduraduna</b>	Koordinazioa: Oihana Aranburu eta Nere Erkiaga Lantaldea: Nere Erkiaga, Olatz Amundarain, Itsaso Noya, Oihana Aranburu
<b>Lantaldeko parte-hartzaileak</b>	
<b>Jarraipen organoak/erabakiguneak</b>	XDZ koordinazio taldea Koordinazio Batzordea Kudeaketa Batzordea Zuzendaritza Batzordea
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atal guztietako manual eta azalpenak eguneratu: Biografiak, Bat-bateko bertsoen corpusa (<i>Bapatean</i> antologia), Argazkiak eta Liburutegia</li> <li>- Artxiboan (BE eta OA) katalogatzeko dauden materialak ez dira leku bateratuan jaso</li> <li>- Antolaketa dokumentu Nagusian egindako egokitzapen eta hobekuntzak egunera mantendu dira.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- SGXDZ euskarrien tratamendua</li> <li>- Kokapen moten azalpenak</li> <li>- Izendapen mota guztien azalpenak</li> <li>- SGXDZ bilduma digitalaren kontrola egin da: fitxategien formatuaren, bolumenaren eta ezaugarrien arabera informazioa eskuratzea bideratu.</li> <li>- SGXDZ euskarrien kontrola egin da: kopiak egitea eskatu, robocopy-ren jarraipena egiteko eskatu eta materialaren erosketaren kontrola egin.</li> <li>- Bilduma digitalaren segurtasuna bermatzeko kopia sistema unitate berria martxan jarri da.</li> <li>- SGXDZ edukiaren hirugarren kopia, seguritate zinta, Subijana etxetik kanpo Eresbilen egoitzan gorde da.</li> <li>- Eusko Jaurlaritzaren Errepositorio digitala egitasmoari buruzko informaziorik ez da jaso.</li> <li>- Ikus-entzunezkoen Lan-guneko eta Digitalizaziorako Unitateko ekipamendua funtzionamendu egokian mantendu da.</li> <li>- Hedapen Sailarekin dokumentazio elkarlanari jarraipena eman zaio.</li> <li>- Ikus-entzunezkoen digitalizaziorako lehen tasunak Hedapen Sailarekin elkarlanean landu dira.</li> <li>- XDZ Audio grabazio bildumaren digitalizazio planari jarraipena eman zaio, egoera dela eta, jasotako dohaintzen digitalizazioa egin da.</li> <li>- XDZ Bideo grabazio bilduma eskaeren arabera digitalizatu da.</li> </ul>
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	DOKUMENTAZIOAREN GIZARTERATZEA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritzaren oinarriko dokumentazio funtsaren zerbitzu publikoa bermatzea eta zabalkundea egitea.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Internet: Bat-bateko 285 bertsoaldi mp3 fitxategi bidez entzuteko moduan eskaini dira, dagokien grabazioen digitalizazioa eta tratamendua eginez.</li> <li>- Harrera zerbitzua beharren arabera antolatu da.</li> <li>- Soinu artxiboak: Egitasmo eta esperientziak izenburupean, Xenpelar Dokumentazio jardunaldien 7. edizioa antolatu da ekainaren 4an.</li> </ul>

<b>Proiektuaren izena</b>	DATU-BASEEN EGITURAKETA ETA INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritzari buruzko informazioa eta dokumentazioa bildu, datuen elkar-loturak ahalbidetzea eta gizarteratuko dituen sistema diseinatzea eta kudeatzea, bai informatikoki eta baita lan prozesuen mailan ere.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio sail guztietako informazio, dokumentu eta fitxategien katalogazio osoaren bidea modu orokorrean aztertu da formazioaren bidez. Bat-bateko eta ez –bat-bateko bertsoen saila berraztertzeke lana hartu da.</li> <li>- Datuen arteko elkar-loturak eta gizarteratzeko aukera egokien azterketa Omekaren garapenaren lotuta atzeratu dira.</li> <li>- Katalogatzeko arau propioen garapenean aurreratu da, sail guztietan. Bertsoen katalogazioa finkatzea falta da, eta horrekin bertsoak jasotzen dizuten dokumentuen katalogazioa.</li> <li>- Lan-taldearen formazioa gauzatu da eta 2022 urtean jarraipena izango du: sistema dokumentalaren osotasuna eta bakoitzaren ardurapeko datu-base eta katalogazioa.</li> <li>- Omekaren garapena informatikarien aldetik atzeratu egin da.</li> <li>- Knosys tresnan dauden datu-baseak Omekara pasatzeko prestatuta daude: Prentsa, Orotariko Artxiboa, Bertsozale Elkartearen Artxiboa, Iragarkiak eta Argazkiak</li> <li>- Knosys datu-baseen garbiketa bukatu da: Prentsa</li> <li>- 2020an egindako diseinuaren jarraipena egin lametzarekin.</li> <li>- Autoritate berrien zuzenketak: Sailkapenarena 2022an egin ahal izango da eta Bilketa erregistroarena egin da.</li> <li>- Omekaren bolkatua ez da egin. 2022ko urte hasierara atzeratu dira lanak</li> <li>- Aurrez diseinatutako datu-base egitura egokia den ezin izan da ziurtatu</li> <li>- Fitxategi digitalen egituraketa eta internet-argitalpenerako aukerak aztertu dira. Garapen informatikoa ziurtatzeko dago. Knosys programa duen web zerbitzaria ez dabil eta oraindik ez da Omeka garatu. Zuzenketarik ez egitea eta knosys-en kontsulta Knosys 2004 programarekin egitea erabaki da (muga asko ditu), baliabideak garapenerako bideratzea garrantzitsuagoa dela ikusi delako</li> <li>- Omekaren garapena atzeratu denez, ez da zuzenketa eta etorkizunerako garapenik diseinatu.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bat-bateko ez diren bertsoen eta doinuen tratamendurako gogoeta abiatu da eta datu-baseen diseinurako oinarriak gogoeta horretatik jasoko dira.</li> <li>- Bertsozale.eus-erako prestatutako datu-bidalketak ziurtatu dira.</li> <li>- Bertsoa.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu dira</li> <li>- Bertsoikaskgela.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu dira</li> <li>- Bertsoeskolak.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu dira</li> <li>- Sortu daitezkeen datu-truke eskaerei erantzun ahal izateko dokumentazio estandarrak zaindu dira Omekaren garapenean.</li> </ul>
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	DIGITALIZAZIOA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritzaren oinarrizko dokumentazio funtsaren digitalizazioa.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atal guztietako manual eta azalpenak eguneratu: Biografiak, Bat-bateko bertsoen corpusa (<i>Bapatean</i> antologia), Argazkiak eta Liburutegia</li> <li>- Artxiboan (BE eta OA) katalogatzeko dauden materialak ez dira leku bateratuan jaso</li> <li>- Antolaketa dokumentu Nagusian egindako egokitzapen eta hobekuntzak egunera mantendu dira. <ul style="list-style-type: none"> <li>- SGXDZ euskarrien tratamendua</li> <li>- Kokapen moten azalpenak</li> <li>- Izendapen mota guztien azalpenak</li> </ul> </li> <li>- SGXDZ bilduma digitalaren kontrola egin da: fitxategien formatuaren, bolumenaren eta ezaugarrien araberako informazioa eskuratzea bideratu.</li> <li>- SGXDZ euskarrien kontrola egin da: kopiak egitea eskatu, <i>robocopy</i>-ren jarraipena egiteko eskatu eta materialaren erosketaren kontrola egin.</li> <li>- Bilduma digitalaren segurtasuna bermatzeko kopia sistema unitate berria martxan jarri da.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- SGXDZ edukiaren hirugarren kopia, seguritate zinta, Subijana etxetik kanpo Eresbilen egoitzan gorde da.</li> <li>- Eusko Jaurlaritzaren Errepositorio digitala egitasmoari buruzko informaziorik ez da jaso.</li> <li>- Ikus-entzunezkoen Lan-guneko eta Digitalizaziorako Unitateko ekipamendua funtzionamendu egokian mantendu da</li> <li>- Hedapen Sailarekin dokumentazio elkarlanari jarraipena eman zaio.</li> <li>- Ikus-entzunezkoen digitalizaziorako lehentasunak Hedapen Sailarekin elkarlanean landu dira.</li> <li>- XDZ Audio grabazio bildumaren digitalizazio planari jarraipena eman zaio, egoera dela eta, jasotako dohaintzen digitalizazioa egin da.</li> <li>- XDZ Bideo grabazio bilduma eskaeren arabera digitalizatu da.</li> </ul>
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	XENPELAR DOKUMENTAZIO JARDUNALDIAK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Ekainak 4
<b>Deskribapen motza</b>	Dokumentazio jardunaldien 7. edizioa <a href="https://www.mintzola.eus/eu/xenpelar-dokumentazio-zentroa/xenpelar-dokumentazio-jardunaldiak/2021">https://www.mintzola.eus/eu/xenpelar-dokumentazio-zentroa/xenpelar-dokumentazio-jardunaldiak/2021</a>
<b>BALORAZIOA</b>	Soinu artxiboak: Egitasmo eta esperientziak izenburupean, Xenpelar Dokumentazio jardunaldien 7. edizioa antolatu da ekainaren 4an. Euskadi Irratiko fonoteka, Euskaltzaindia: Euskararen Herri Hizkeren Atlas, Badok: Euskal Musikaren ataria, sortzaileen begirada eta ikertzaileen begiradatik esperientziak izan dira bertan.

<b>Proiektuaren izena</b>	BIOGRAFIK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar

<b>Deskribapen motza</b>	Bertsogintza nahiz bertsolaritza mugimenduko kideen biografien datu-basea.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Biografien katalogazio eta tratamenduaren manuala ez da sortu.</li> <li>- Iker taldearekin biografiak eguneratzeko egitasmoa ez da landu.</li> <li>- Internet bidez jasotzen diren iradokizunak dagokion arduradunari bideratu zaizkio.</li> </ul>

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSO CORPUSA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar.
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritza garaikidearen corpusa ( <i>Bapatean</i> , txapelketetako antologiak, idatziz jasotako bertsoak....)
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtero jaso beharreko transkripzioen bilduma eskuratu da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Bapatean 2020</i>ko transkripzioak</li> <li>- Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen saioetako transkripzioak eskuratu dira: Bizkaiko Txapelketa 2020-2021, Xilaba 2020-2021, Arabako Txapelketa 2021, Nafarroako Txapelketa 2021, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2021.</li> <li>- Transkribatzaileek behar duten informazioa (irizpideak, grabazioak, ereduak) antolatu da eta ezagutzera eman da</li> <li>- Transkribatzaile taldearen beharrei erantzun zaie</li> </ul> </li> <li>- Bat-bateko bertsoen katalogazioa egin da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Bapatean 2020</i>ko bilduma</li> <li>- Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen saioetako bertsoaldien katalogazioa egin: Bizkaiko Txapelketa 2020-2021, Xilaba 2020-2021, Arabako Txapelketa 2021, Nafarroako Txapelketa 2021, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2021</li> </ul> </li> <li>- Bat-bateko bertsoen antologiak publikatzeko irizpideak jarraitu dira eta BDBn publikatu dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Bapatean 2020</i>ko bilduma</li> </ul> </li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizkaiko Txapelketa 2020-2021, Xilaba 2020-2021, Arabako Txapelketa 2021, Nafarroako Txapelketa 2021, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2021.</li> <li>- Idatziz jasotako bertsoen corpora eratzeko politika zirriborratzen hasi gara.</li> <li>- Bat-bateko bertsoen corpora eratzeko politika errepasatu da eta prozedurak finkatu dira.</li> </ul>
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	KULTURARTEA MAPA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Nazioarteko kantu inprobisatuen mapa egitasmoa
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kulturarte Maparen katalogazio eta tratamendu manuala ez da sortu</li> <li>- Internet bidez jasotzen diren iradokizunak bideratu dira.</li> </ul>

# SUSTAPENA

## Deskribapena

<b>Urteko helburuak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Bertso saio eta ekitaldiak sustatzea. Plaza aztertu, jarraipena egin eta biziberritzea.</li><li>- Bertsogintza indartzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Plaza Biziberritzen proiektua gauzatu da bere osotasunean. Guztira 14 saio egin dira. Saio hauetan berritasuna, gazteen plazaratzea, beste antolatzaileekin elkarlana eta bitarteko digitalen indartzea bezalako atalak landu dira besteak beste. Plaza Biziberritzen memoriaren txostenean aurkitu daitezke xehetasun guztiak</li><li>- Bertsogintza indartzea eta lehen planora ekartzea izan da Sustapen sailaren egiteko nagusia 2021ean. Aurretik zetorren helburua izanagatik, pandemiaren eraginez zentraltasun berezia hartu du helburu honek. Gure mugekin, baina gure eskura zegoena egin dugu.</li></ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankuren berregituraketa eta egokitzea.</li> <li>- Lurralde mailan sustapen proiektuen jarraipena eta koordinazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankuren berregituraketa diseinatu eta inplementatu da 2021. urtean zehar. Urtearen hasiera eta amaieran bi argazki oso ezberdin ikusi ditugu Lankuri dagokionez. Lanku Sustapen sailean txertatu da funtzionalki, eta bulegoa Subijana etxera lekualdatu da. Lan lerroen doitze bat ere gauzatu da. Argitalpenen, diseinuaren eta txapelketen ekoizpenaren atalak EHBera pasa dira.</li> <li>- Sustapen batzordearen 9 bilera egin dira urtean zehar. Bilera hauetan herrialdeetako egitasmoen hustuketa eta interes orokorreko gaien hausnarketa, lanketa eta eztabaida eman da.</li> </ul>
---	--

**Sailaren kudeaketa**

<b>Sailaren kudeaketa</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>

Sustapen kudeaketa lortzea	Sailaren eraginkorra		
		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragilearen lan modua aztertzea eta eraginkortasuna bilatzea.</li> <li>- Lan-karga eta lan eremu jasagarria izatea.</li> <li>- Elkarrearen funtzionamenduaren barruan ondo moldatzea.</li> <li>- Beste sailekin eta lurraldeekin harreman eta lan jardun onak izatea.</li> <li>- Sustapen Batzordearen osasunaz eta funtzionamenduaz arduratzea. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Soldatapeko eta borondatezkoen engranaje egokia izatea.</li> <li>- Batzordearen funtzioa eta funtzionamendua birdefinitzea.</li> </ul> </li> <li>- Sustapeneko proiektuak eta parte hartzen duen proiektuak aurrera eramateko gaitasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldaketa asko egon dira sustapen eragilearen zereginetan. Oso denbora gutxian lan taldea asko handitu da eta horrek lan kargaren desoreka bat eragin du. Aldaketa guztiek dakarte ezinegona eta kokapen falta hasieran. Datorren urtean urak lasaitu eta lan modu eraginkorrak topatzea izango da helburua.</li> <li>- Sailarteko mugak zehazkatzea ez da erraza, baina proiektu askotan elkarlana behar da eta maila batean hori lortu da.</li> <li>- Sustapen batzordean funtzionamentu aldaketa bat proposatu da, eta horrek gure martxan eragin positiboa izan du. Kide berriak ere batu zaizkigu eta urtea osasun maila onarekin amaitu dugu.</li> <li>- Soldatapeko-borondatezkoen arteko engranajea ez da erraza, baina moldatzen gara.</li> <li>- Urte hasieran markatu genituen proiektu gehienak gauzatu dira.</li> </ul>

<p><b>Erreminta bateratuen kudeaketa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankuren lan-taldearen jarraipena eta laguntza.</li> <li>- Lankuren funtzionamentuan Elkartearen adarra izatea.</li> <li>- Lankuren egituraketa berrian parte aktiboa izatea.</li> <li>- Lankuren ikuspegi estrategikoa marrazten laguntzea.</li> <li>- Lankuren beharrak identifikatzea, eta aldaketak txertatzen laguntzea.</li> <li>- Publizitatearen kudeaketa egitea.</li> <li>- Publizitatearen inguruko gogoeta iraunkorra egitea, bide berriak jorratzea.</li> <li>- Lurraldeei segurtasun neurri eta babesen inguruko aholkuak ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankuren lan taldearen kudeaketa sustapen eragilearen esku geratu da irailaren 1etik. Urte amaitzerako lan harreman egoki eta saneatu bat daukagu lan taldean.</li> <li>- Lanku, plaza sustapenerako ezinbesteko erraminta da Elkartearentzat. Hori mahai gainean jartzen ahalegin handia egin da. Era berean, elkarteko ideologia plazan txertatzeko Lanku eta Elkartearen zubiak indartu dira.</li> <li>- Pandemia garai homnetan, txapelketak antolatzea egokitu zaiei herrialde batzuei. Osasun neurrien inguruan laguntza eta baliabideak eskaini diri. Esanguratsuena <a href="http://www.bertsosarrerak.eus">www.bertsosarrerak.eus</a> atariaren garapena izan da.</li> </ul>
--	---	--

<p><b>Sustapeneko proiektuak diseinatzea, koordinatzea eta kudeatzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Plaza Biziberritzen proiektuaren koordinazioa eta kudeaketa egitea.</li> <li>- Lurraldeen jarraipena egitea eta inplikazioa lortzea.</li> <li>- Herrialdeetako txapelketen jarraipena eta koordinazioa egitea.</li> <li>- BTN22 koordinatzea eta garatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- la bere osotasunean garatu da Plaza Biziberritzen proiektua. Hazparraren egin behar zen Bertso Eguna izan zen bertan behera utzi behar izan genuen saio bakarra.</li> <li>- Lurraldeak asko inplikatu dira Plaza Biziberritzen planean, eta beren egitasmo propioak egin dituzte.</li> <li>- Herrialdeetako txapelketei laguntza eta koerbertura eman zaiei.</li> <li>- BTN22ari begira aurre lan asko egin da, eta prest gaude 2022ari ekiteko.</li> </ul>
<p><b>Bertsogintza indartzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolari, epaile, gai-jartzaile eta abarren formazioak diseinatzea eta egoki kudeatzea.</li> <li>- Sortzaileen baldintzetan aurrerapausoak ematea.</li> <li>- Gazteen plazaratzearen diagnosia egitea.</li> <li>- Zehar-lerroen garrantzia eta presentzia bermatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epaille Eskola Iraunkorra izan da astindu ederra hartu duen taldeetako bat. Txapelketen itzulerarekin herrialdeetako dinamikak martxan jarri dira, eta 2022ko formazio zikloa antolatu da.</li> <li>- Gai-jartzaile eta bertsolariak ere izan dute gogoetarako gunea, GEL.</li> <li>- Gazteen plazaratzearen hustuketa egin da herrialdeetatik eta txosten batean bildu da. Ez dago amaituta, baina errealitatearen argazki bat egiteko balio du. Plaza azterketan atal berezia eskaini zaio gazteen plazako parte hartzeari.</li> </ul>





## Proiektuak

<b>Proiektuaren izena</b>	PLAZA BIZIBERRITZEN: BERTSO EGUNAK
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 maiatza
<b>Deskribapen motza</b>	Plazaren suspertzeari oihartzuna emateko, Bertso Egunaren hiru ekitaldi izango dira aurten.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ia bere osotasunean garatu da Plaza Biziberritzen proiektua. Hazparnen egin behar zen Bertso Eguna izan zen bertan behera utzi behar izan genuen saio bakarra.</li><li>- Iruñean eta Getarian egindako Bertso Egunek oso balorazio ona utzi zuten.</li><li>- Proiektu honetarako Jaurilaritzako diru laguntza bat lortu zen eta horren zuriketa eta justifikazioa gauzatu dira dagoeneko.</li><li>- Egoera okerrenetan ere, bertsolaritzak egokitzeko duen gaitasuna azaleratu da, eta horri esker eraman ahal izan dugu aurrera proiektu hau.</li></ul>

<b>Proiektuaren izena</b>	PLAZA BIZIBERRITZEN: BIDAIK
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	2020ean martxan jarri genuen Plaza Biziberritzen planaren barruko atala da Bidaiak. Bertsozale Elkarteak bultzatzaile nagusi izanik, beste eragile kulturekin elkarlanean bertsogintzari espazio berriak eskaintzeko helburua du. Berritasuna oinarri hartuta, beste disziplinekin hibridatuz mugarik gabeko saioak antolatu nahi ditugu.

<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bidaiak proiektuarekin bertsolaritzak duen tradizioa eta garaikidetasuna uztartu ditugu.</li> <li>- Beste eragile eta antolatzaileekin elkarlana eta harremanak estutzeko ere balio zian du. Abibidez Harituz, Señorako antolatzaile taldea, Ataria etdo Galtzaundi Elkarteak izan dira gurekin batera lanean aritu direnak.</li> <li>- 4 bidaia egin dira 2021.urtean. Uhinak Bidaia, Azken Bidaia, Sagardotegietara Bidaia eta Zirkura Bidaia.</li> <li>- Oso balorazio ona egin da. Bertsozalearen interesa piztu du eta aurrera begira gehiago antolatzeko asmoa dugu.</li> </ul>
	-

<b>Proiektuaren izena</b>	PLAZA BIZIBERRITZEN: DIBERTSOAK
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Maiatzean
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsogintzaren gaurko eta biharko aukerak partekatzeko saiakerak dira. Plaza Biziberritzen planaren barruan dagoen atala da. Sortzaileengandik eta bertsolaritzatik berrikuntza eta gogoeta egiteko espazio praktikoak dira. Dibertsoak urtero egitea da asmoa, eta aldi bakoitzak ardatz bat edukitzea: mami bat, sendotasuna emango diona, egin daitezkeen proba solte ugariak norantza bati lotuz.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Plaza Biziberritzen planaren barruan kokatu zen Gerturatu Eta Lau zikloa. Berritasunera bideratutako 4 saio experimental izan ziren. Bakoitza bere berezitasunekin. Atal honen memoria Plaza Biziberritzen 2021 memoria txostenean agertzen da.</li> <li>- Saioak Donostian, Zarautzen, Bilbon eta Gasteizen egin ziren.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ziklo honen diseinu lanetan 3 bertsolari eta gai-jartzaile bat aritu ziren: Eli Pagola, Miren Artetxe, Maite Berriozabal eta Beñat Gaztelumendi.</li> </ul>
--	--

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 udazkena
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolari Txapelketa Nagusiaren inguruko oinarrizko erabakiak egitasmoa gauzatu aurreko urtean hartu behar dira: helburuak, egitura, datak, saio nagusien egoitzak, talde teknikoen eta komunikazio lanen abiapuntua, elkarteko sail eta herrialdeen asmoak eta ekarpenak... Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022 urtean gauzatuko bada udazkenean burutuko ditugu aipatutako lanak.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrelan handia egin da BTN22ari dagokionez.</li> <li>- Araudiaren zirriborroa osatu da eta zuzendaritzara eramateko prest utzi da.</li> <li>- Talde antolatzaile berria osatu da, eta azpi-atal berri bat sortu da: Bertsogintza Taldea.</li> <li>- Epaille eta gai-jartzaile taldeen osaerarekin amrtxan jartzeko oinarriak ere zehaztu dira.</li> <li>- Saioen eta finalaren ekoizpena martxa jarri da.</li> <li>- Saioen eta zereginen egutegia zehaztu da.</li> </ul>

<b>Proiektuaren izena</b>	HERRIALDEETAKO BERTSOLARI TXAPELKETAK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan

<b>Deskribapen motza</b>	2021. urtean eta 2022. Urtearen lehen hilabeteetan herrialdeetako lau txapelketa jokatu dira. Hilabete gutxitan bete-betea izango dugu agenda, beraz, inoiz baino garrantzitsuagoa izanen da egutegiak, zerbitzu bateratuak eta bitarteko pertsonalak zein materialak behar bezala koordinatzea. Pandemiak baldintzatuko du txapelketen burutzea, beraz, zailtasun handiak espero ditugu koordinazio lanetan.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 3 herrialdetako txapelketak gauzatu dira:NBT21, BBT21 eta Xilaba 2021.</li> <li>- Txapeleketa denei laguntza eta kobertura eman zaie.</li> <li>- Covid19aren neurriak bete ahal izateko <a href="http://www.bertsosarrerak.eus">www.bertsosarrerak.eus</a> atariaren garapena egin da.</li> <li>- Kontrol sistema hobeto da, horretarako alikazio bat sortuz.</li> <li>- Txapelketen teknikariaren diseinuan parte hartu dugu.</li> </ul>

<b>Proiektuaren izena</b>	PLAZAREN AZTERKETA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Bertsozale Elkartearen gogoeta estrategikoan garbi geratu zen plazan pedagogia egiteko beharra. Plazaren azterketa lehentasunetan bosgarren tokian zegoen, baina lehenengoarekin oso lotuta: plazaren eragitea eremu ezberdinetan.</p> <p>Eragin edo pedagogia hau gauzatu ahal izateko, beharrezkoa ikusten da plazaren azterketa sakona egitea. Xenpelar Dokumentazio Zentroa oinarri hartuta, plazaren jarraipen iraunkorra egiteko oinarriak jartzea da asmoa.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Plaza azterketaren bidez plaza ezagutzea da helburua. Erabaki asko usteen gainean hartzen dira, eta askotan plaza azterketaren bidez uste hauek egikaritzen badira ere, ustekabeak</li> </ul>

	<p>hartzen ditugu emaitzekin. Egiten ditugun egitasmoei jarraipena egiteko eta eragiten duten inpaktua neurtzeko tresna baliagarria dela ziurtatu ahal izan dugu 2021ean zehar. Asko indartu da atal honetan egindako lana.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Datu bilketa handitzeari esker ere datu berriak eskuratu ahal izan ditugu, eta argazki osoago bat lortu dugu. 2021ean 13 azterketa gauzatu dira. Horietako batzuk herrialdeek eskatuak, eta beste batzuk Sustapen Saitetik proposatuak.</li> <li>- Beste herrialde edo proiektuetatik etorri diren 7 azterketa gauzatu dira 2021ean. Aurreikuspenak baina askoz gehiago.</li> <li>- 2 urte dira plaza azterketa modu honetan egiten hasi ginela, eta goiz da neurtzeko tresna baliagarria den edo ez ondorioztatzeko. Baina aztertu ditugun datuei esker, argi ikusten da Bertsozale Elkarteak egindako aldaketan edo proposamenen aurrean plazak erreakzionatzeko gaitasun handia duela. Adibidez, 2018an egin zen gogoeta prozesuaren ondorioz asko orekatu da gizon-emakume presentzia plazan.</li> <li>- Datu bilketa areagotzeko langile bat jarri da jornada erdira. Guretzat oinarritzkoak ziren datuak ekarri ditu plazatik, lehengo sisteman iristen ez zirenak. Lan honi esker antolatzaileekin harremana sendotu da eta dokumentazio bilketa handitu da.</li> </ul>
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	GIZONEZKOEN BERTSO ESKOLA FEMINISTA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2020 urria - 2021 ekaina
<b>Deskribapen motza</b>	Gizonezko bertsolariek lanketa feminista egiteko bertso-eskola

<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2021ean egin diren 9 saioetan gizontasunaren inguruko gogoetak egon dira erdigunean, eta ikuspegi feminista izan da ardatza. Guztira 3 saio teoriko eta 6 praktikoko gauzatu dira, bertso eskola formatuan.</li> <li>- Taldekide berdinek hasi dugu ikasturtea, kide berri bat batuta. Horrek asko lagundu du gure arteko konfidantza eta zaintza areagotzen. Baina ez da berri ona, gure helburua bertako lanketa hedatzea eta plazan eragitea ere bai baita.</li> <li>- Ikuspegi hau birformatu da 2021ean. Norbere bidetik bakarrik ez, gure inguruan eraginez eta kolektibotik ere aurrera pausoak eman behar direla uste bai dugu. Horregatik, aurrera begira gure lanketa hedatu nahi genuke. Bertso eskolak, plazan dabiltzan gizonezkoak, gai-jartzaileak,... gure taldera batzea nahi genuke.</li> </ul>
-------------------	--

<b>Proiektuaren izena</b>	EPAILE ESKOLA IRAUNKORRA
<b>Data (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Euskal Herriko epailetzari formazio jarraitua ematen dion proiektua da. Moodle plataforman ariketak eta trebakuntza eskaintzen dira. Aurrez aurreko saioak ere antolatzen dira gai zehatz bati lotuta. Hizlari gonbidatuen aurkezpenak eta ikerlanen txostenak ere epaileen esku uzten dira.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epaile Eskola Iraunkorra geldi samar egon da urte hasieran. Pandemiak eraginda txapelketak bertan behera geratu ziren eta horrela zaila da epaileen motibazioan eragitea. Udazkenean kontua asko aldatu da ordea. Epaile taldeak martxan jarri dira eta lan egiteko aukera izan</li> </ul>

	<p>dute Nafarroan, Bizkaia eta Iparraldean. Egoera berri honi esker berriz aktibatu da EEI. 2022rako 6 saioko ziklo bat antolatu dugu eta motibazio handia dago BTN22ari begira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Epaileen begirada kritikoan jarri da begia. Bertsogintza ulertzeko begirada zabaltzea da gure helburua. Idea hau epaileek presente izan dezaten komunikazioa asko landu da. Garrantzitsua da epaile talde sendo eta motibatua bat edukitzea. Baina gure zehar lerroekin bat etorri behar du ezinbestean. Beraz, gure ahaleginak herrialde osora zabaltzen dira, eta gazteengana batik batik. Ikusi duguna da, epaile taldera batzen diren gazteen gehiengoa emakumezkoa dela, eta berri ona da hori.</li> </ul>
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	GAI-JARTZAILE ESKOLA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 ekaina
<b>Deskribapen motza</b>	<p>2020ko ekainean egin genuen galdetegiaren ondotik sortu da gai-jartzaile eskola baten beharra. Bakoitzaren motibazioak eta gai-jartzailetza ulertzeko nahiz bizitzeko moduak ezberdinak dira eta uztargarri egiten saiatu behar dugu. Alegia, bertsolaritzak (mugimenduak) eta bertsogintzak (sorkuntzak) denak behar ditu. Beraz, zabal ulertu behar dugu gai-jartzaile figura: plaza, txapelketak, sariketak, taldean arituko dena, bakarrik arituko dena, ahalduntze bertso eskolan ari direnak...</p> <p>Ez da erraza ikuspegi guztientzat balioko duen egitarau bat osatzea. Horregatik, ikasturte hau egitarau malgu eta zabal batean osatu nahi genuke. Normalean gai-jartzaileen taldekako dinamikak txapelketetara mugatzen dira, baina plazara begirako formazioa ere eskaini nahi da.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da aurrerapausorik eman zentzu honetan. Hainbat elkarrizketa egin dira eskola honen nolakotasuna zehazteko.</li> <li>- Helburu honi gai-jartzaile eskolak erantzun behar zioen, eta ez denez martxan jarri, ez da aurrera pauso handirik eman.</li> <li>- Bertsolari Txapelketa Nagusiaren inertziarekin, txapelketa ostean zerbait egitea da asmoa. Txapelketak batzeko balio du, eta talde indar horretatik datozen urteetarako ibilbide bat zirriborratzea litzateke egokiena.</li> </ul>
--	--

<b>Proiektuaren izena</b>	GAZTEEN PLAZARATZEA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Gazteen plazaratzeari buruzko gogoeta, hausnarketa eta ekintzen proposamena lantzea nahi da. Horretarako lurralde osoko argazkia egin behar da, eta zailtasunei aurre egiteko plana osatu herrialdeekin elkarlanean.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2021a oso urte zaila izan da plazarentzat. Saio gutxiago eta oso tipologia konkretukoak antolatu dira. Ezin esan dezakegu urte ona izan dela gazteen plazaratzea indartzeko. Bertsozale Elkartek antolatu dituen saioetan oso presente izan dugu gazteen parte hartzea. Horren erakusgarri da urte hasieran antolatu genuen Eskolatik Plazara zikloa. EHko Eskolartekoak kantatzekoak ziren 11 gazte eta plazako 6 bertsolari elkartuz, 3 saio antolatu ziren.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Esan bezala 2021a ez da urte erraza izan. Plazak berreskuratzeko ahaleaginean zentratu dira gure indarrak, eta bertsolarien baldintzak hobetzeko ez da ekintza zehatzik egin. Ulertzen baita, plaza berreskuratzea dela bertsolariei baldintzak eskaintzeko modu eraginkorrena.</li> </ul>
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSOGINTZA ERAGITEN
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	<p>Bertsogintzaren dinamika osatzen duten alde desberdinen ezagutza emango digun azterketa zehatza beharrezkoa da epe luzerako estrategiak finkatzeko. Elkarrekin mekanismo ugariaren bitartez bertsogintzaren merkatuan eragiten du: Txapelketak, Plaza Biziberritzen, Hitzetik Hortzera, <i>Bapatean</i>, Lanku,...</p> <p>Bertsogintzan, fokuak argizatzen digun hura ikusten ari gara eta mugimendua hori baino aberatsagoa da. Zirkuitu jakin batzuetatik harago badago beste errealitate bat gizarteari ezagutzera emateko aintzat hartu behar dena eta bertsolaritza mugimenduaren oinarri izan behar duena. Beste proiektu guztiak zeharkatzen dituen proiektua da.</p>
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanartea-ri jarraipena egin zaio eta ekintza ugari egin dira. Esanguratsuena Lakuan kultura sailburuarekin izandako bilera da. Bertan sortzaileen egoera laboralaz hitz egin genuen. Bertsolariek epigrafe falta, BEZaren arazoa, erretiroa,...</li> <li>- Bide honek denbora eskatuko duen arren hasiak gara hariak mugitzen.</li> <li>- Bertsogintzari lekua egiten lan asko egin dugu 2021ean. Plaza Biziberritzen proiektuak barne bildu dituen saioetatik hasi, eta BTN22aren antolakuntza talde sistema berria diseinatu arte.</li> </ul>

Bertsogintzari zentraltasuna ematea da Sustapen Sailaren lehentasunetako bat, eta zeregin horretan jarraituko du 2022an ere.

- Plaza Biziberritzen planaren barruan kokatu zen Gerturatu Eta Lau zikloa. Berritasunera bideratutako 4 saio experimental izan ziren. Bakoitza bere berezitasunekin. Atal honen memoria Plaza Biziberritzen 2021 memoria txostenean agertzen da.

## LANKU KULTUR ZERBITZUAK

2021a urte berezia eta zaila izango da 2020a bezalaxe, 2021eko egitasmoa osatzeko zailtasun handiarekin aurkitu gara, izan ere aurreko urtea bezala pandemiak baldintzatutako urtea izango baita 2021a ere. Proiektu berririk apenas aurreikusten dugun, hitz emandakoak salbu. Orain artekoaren jarraipen urtea bezala planteatu dugu hori bai lehentasun osoa plazan jarrita.

Dokumentu honetan 2021 urterako Lankuren aurrekontuak lantzeko garaian kontuan hartu diren irizpideak biltzen dira. Irizpide hauetako gehienak Euskal Herriko Administrazio Batzordean adostuak izan dira eta elkarte guztiek modu bateratuan aplikatzea erabaki da.

Hauek dira negozio lerro bakoitzaren aurrekontuak osatzeko erabilitako irizpideak:

<b>HELBURUAK</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p><b>BERTSO SAIOAK</b></p> <p>Aurreikuspenak egiteko 2019ko datu errealetan oinarritu gara. Abiapuntua 2019. urtea izanik %30eko murrizketa aurreikusi dugu 2021erako.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Plazako saioen kopuruak behera eginagatik, Lankuk kudeatu dituen saioak gora egin du 2021ean.</li> <li>- Lan urte ona izan da Lankurentzat saioen kudeaketari dagokionez.</li> </ul>
<p><b>EMANALDI BEREZIAK</b></p> <p>Aurreikuspenak egiteko 2019ko datu errealetan oinarrituko gara eta %30eko murrizketa aurreikusi dugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ziklo aldaketa etorri da emanaldi berezien atalean.</li> <li>- Azken urteetan asko ibili den Erradikalak Ginen eta Gorria emanaldien beren bukaera iragarri ostean, 3 emanaldi berezi berrien ekoizpena egin da.</li> <li>- Lan honek oso oinarri ona utzi digu 2022ari begira.</li> <li>- Kudeatu diren saioen kopuruak gora egin du, urte arraroa izanagatik.</li> </ul>
<p><b>ARGITALPENAK</b></p> <p>2021eko azken hiruhilekorako disko baten argitalpena bat aurreikusi da. 2020ko salmentak kontuan harturik 2021erako proiektio bat egin da zuhurtiaz. Urte bukaerako izakinen balio galeraren estimazioa egin dugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Argitalpenen atala Lankutik kanpo kokatu du Bertsozale Elkarteak.</li> <li>- Gure existentzien kudeaketa egin da.</li> <li>- Diru laguntza bati lotutako CD baten ekoizpena egin da, Hedapen sailarekin elkarlanean.</li> </ul>

<p><b>ELKARTEEI LANAK</b></p> <p>2020ko datuak hartu dira oinarri moduan eta elkarte ezberdinekin proiektu ezberdinei buruzko kontsultak burutu dira lan hauek zerrendatu eta baloratu ahal izateko. Hezkuntza materialaren sarreren banaketa %50-%50 aurreikusi da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- BTN22rako aurre lanak burutu ditu Xabi Torresek.</li> <li>- 3 Herrialdeetako txapelketei ekoizpenak egin zaizkie betiko moduan.</li> <li>- Lan karga izugarria izan dugu udazkenean.</li> </ul>
<p><b>EGILE ESKUBIDEAK</b></p> <p>Behin 2020ko 2. seihilekoaren likidazioa ezagutu ondoren 2021erako sarreren aurreikuspena osatu du egile eskubideen sailak. SGAEtik ez da dirulaguntzarik aurreikusten.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EKKI rekin lan asko egin da. Sortzen ari den sistema bat izanik, zaitalsun asko daude oraindik egile eskubideak kobratzeko. Ubanek hartu-eman etengabea eduki du EKKIko kudeatzaileekin eta aurrera pauso asko eman dira. Baina egiteko asko dago oraindik.</li> </ul>

# HEDAPENA

## Deskribapena

<b>Urteko helburuak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>- GRABAZIOAK: plazaren bilketa egingo dugu, astero bi bertso saio grabatuz.</li><li>- HITZETIK HORTZERA: 26 programa egingo ditugu.</li><li>- BERTSOA.EUS: asteroko jarioari eutsi eta ahal dela sareratutako eduki kopurua igoko dugu.</li><li>- APARTEKO EKOIZPENAK: Euskal Telebistarako hiru aparteko ekoizpen prestatuko ditugu (Nafarroa, Xilaba eta Bizkaiko finalak); Bertsozale Elkarteko eta Mintzolako egitasmoen zabalkunderako ikus-entzunezkoak ekoitziko ditugu.</li><li>- ZUZENKOAK SAREAN: <i>Plaza Biziberritzen</i> egitasmoaren baitan, streaming bidez eskainiko ditugu hainbat saio.</li><li>- IRRATI-HEDAPENA: 2021erako hitzarmenak berriro eta asteroko zerbitzua eskainiko dugu.</li><li>- EMAKUME BERTSOLARIEI IKUSGARRITASUNA EMAN: Hitzetik Hortzeran eta Bertsoa.eus-en emakume bertsolariei ikusgarritasuna emateko plangintza egingo dugu.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- <b>GRABAZIOAK:</b> plazaren bilketa egin dugu. HHko denboralditik aparte gutxiago grabatu dugu, beraz urte osoan <b>77 saio</b> grabatu ditugu.</li><li>- <b>HITZETIK HORTZERA:</b> 2020-2021 denboraldian 13 atal eskaini ditugu, <b>eta 2021-2022 denboraldian beste 13. Guztira 26 atal.</b></li><li>- <b>APARTEKO EKOIZPENAK:</b> Xilaba, Nafarroa eta Bizkaiko <b>finalen zuzenekoak eta HH bereziak</b> ekoiztu ditugu. Bertsozale Elkartearen eta Mintzolareen egitasmoen <b>komunikaziorako ikus-entzunezkoak</b> ekoitzi ditugu. '<b>Gerora mugitzen</b>' ikus-entzunezkoaren ekoizpenean parte hartu dugu.</li><li>- <b>ZUZENKOAK SAREAN:</b> <b>3 saio</b> eskaini ditugu <i>streaming</i> bidez.</li><li>- <b>IRRATI HEDAPENA:</b> 2021eko <b>hitzarmenak berriro</b> ditugu (oraindik ez ditugu denak sinatuta jaso) eta asteroko <b>irradi zerbitzua gauzatu</b> ditugu. <b>Hitzarmen berria jarri dugu martxan</b> Durangaldeko Laixiar irratiarekin.</li><li>- <b>EMAKUME BERTSOLARIEI IKUSGARRITASUNA EMAN:</b> proiektu hau <b>ez dugu gauzatu</b> aurrekontu faltagatik.</li></ul>

Sailaren kudeaketa		
Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
<p><b>Taldekiddeen lan baldintzak egonkortzea</b></p>	<p><b>Lantaldea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lantaldeko lanaldiak eta egitasmoa doitzea eta zaintzea.</li> <li>- Barne formazio bidez, taldekideen eta lankideen ordezkagarritasuna lantzea.</li> </ul> <p><b>Hitzetik Hortzera</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Post-produkzioa: Bertsozale Elkarteak Haritz Arrizabalagarekin duen harremanari forma ematea eta lantaldea egokitzea.</li> <li>- ETBrekin aurrekontuaren igoera negoziatzea.</li> </ul>	<p><b>Lan taldea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hedapen taldearen funtzioak eta lan profilak zehazteko ahalegina egin da. Lan batzuk ordutara ekarri dira</b> eta horrek lagundu digu taldean egon diren bajak ordezkatzeko. Oraindik lan handia dago egiteko taldearen egitasmoa eta lanaldiak neurrira ekartzeko.</li> <li>- <b>Barne formaziorako saioak egin ditugu</b> eta manualak sortu ditugu taldekideen ordezkagarritasuna errazteko.</li> </ul> <p><b>Hitzetik Hortzera</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Post-produkzioa: <b>Haritz Arrizabalagaren fakturazioa lanaldi osora ekarri dugu.</b> Hau da, astean 40 ordu fakturatzen dizkio orain Bertsozale Elkarteari, Hitzetik Hortzerarako grabazio eta post-produkzioarengatik.</li> <li>- <b>Gidoilariaren kontzeptua aurrekontuan sartzea lortu dugu.</b> Jantzitegiaren ekarpena aurrekontuan sartu da. Guztira, <b>denboraldi osoko aurrekontua 6.000 euro inguru igo dugu.</b></li> </ul>



<p><b>Bertso aberastea, Elkarrearen lerroetan oinarrituta</b></p> <p><b>edukiak Bertsozale zehar-</b></p>	<p><b>Bilketa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolaritzaren mugimenduko informazio/grabazio bilketa indartzea, lurralde guztietako informazioa/bertsoak hedatzeko (lurraldetasuna).</li> </ul> <p><b>Emisioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erredaktore berriak bilatzea: Bertsozale Elkarteko lankideak eta kazetariak.</li> <li>- Emakume bertsolariei ikusgarritasuna ematea (feminismoa).</li> <li>- Editore-taldearen bidez, komunikazio ikuspuntu bateratua lantzea.</li> </ul>	<p><b>Bilketa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedapen taldetik aparte, <b>sustapenetik indartu da bilketa.</b></li> </ul> <p><b>Emisioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Bertsozale Elkarteko lankideek erredaktore lanak</b> egin dituzte, horretarako beharrezko formazioa eta baliabideak eskainiz.</li> <li>- <b>Emakume bertsolariei ikusgarritasuna emateko hedapen irizpideekin egin dugu lan:</b> saioen eta bertsoaldien hautaketa.</li> <li>- <b>Editore-taldeak ez du garapenik izan.</b></li> </ul>
<p><b>Gure hedabideen bideragarritasuna lantzea</b></p>	<p><b>Hitzetik Hortzera:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Telebistarekin lankidetzarako marko orokorra lantzea, Hitzetik Hortzera, txapelketen finalerako emisioak eta bestelako edukiak ekoizteko.</li> </ul> <p><b>Bertsoa.eus:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Administrazio Publikoarekin Bertsoa.eus atariaren diru-laguntzen igoera aztertzea.</li> <li>- Ordainpeko <i>streaming</i> saioak eskaintzea.</li> </ul>	<p><b>Hitzetik Hortzera:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzetik Hortzeratik haratago, <b>EITBrekin elkarlan marko berria lantzeko lehen pausoak eman ditugu.</b> 2022an izango du jarraipena.</li> </ul> <p><b>Bertsoa.eus:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Administrazio Publikoarekin Bertsoa.eus atariaren diru laguntzen gaia landu da.</b> Ildo horretan, 2022rako aldaketak aurreikusi dira.</li> <li>- <b>Ordainpeko 2 streaming saio eskaini ditugu.</b></li> </ul>

<p><b>Beste hedabideetan bertsolaritzak duen presentzia zaintzea</b></p>	<p><b>Irrati-hedapena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzarmenak ditugun irratietako kazetariekin hartu-emanan izan eta zaintzea.</li> </ul> <p><b>Hedapen bide berriak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko euskarri berriek eta ingurune digitalak bertsolaritzaren zabalkunderako eskaintzen dituen aukera berriak aztertzea.</li> </ul>	<p><b>Irrati-hedapena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hitzarmenak berritzeko hartu emana</b> izan dugu irratietako arduradun eta kazetariekin; hortik haratago, ez da gehiago egin.</li> </ul> <p><b>Hedapen bide berriak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Ez da aukera berririk aztertu.</b></li> </ul>
--	---	---

## Proiektuak

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSOA.EUS
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritzaren zabalkunderako sareko plaza
<b>BALORAZIOA</b>	<p><b>Asteroko jariora gauzatu dugu</b>, udako eta neguko oporretako etenak, salbuespen.</p> <p>Eskaini ditugun nabarmentzeko <b>edukiak</b>:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Berrikuntza gisa, '<b>Bertsolari bertsozale</b>' <b>podcasta</b> argitaratu dugu astero, urrian hasita.</li><li>- <b>Bertso-saioen kronikak</b> eragin eta argitaratu ditugu, eta iaz bezala, 'komunitatea' eta 'kolaborazioak' atalak elikatu ditugu.</li><li>- Udaberrian Bertso Egunen eta bestelako saioen <b>streaming emisioak</b> egin genituen, eta udazkenean, Xilaba, Nafarroa eta Bizkaiko <b>Txapelketen jarraipena</b> izan da nagusi: zuzenekoak, saioetako bertsoaldiak eta protagonisten elkarrizketak.</li></ul> <p><b>Eduki kopuruak</b> hauek: <b>1339 bertsoaldi</b> jarri ditugu ikusgai (astean batazbeste 27'9) eta <b>391 idatzizko eduki</b> sareratu ditugu (astean batazbeste 8'3), horietatik 56 bideo edo audioz osatuta (albiste guztien %14).</p> <p><b>Audientzia datuak</b> hauek: <b>1.190.163 bisita eta 298.706 saio</b> izan dira urte osoan Bertsoa.eus atarian, <b>95.107 erabiltzailek</b> eginak (horietatik 90.979 erabiltzaile berriak).</p>

	<p><b>Funtzionamenduari</b> dagokionez, <b>juxtu ibili gara dedikazioz</b>: proiektu arduraduna ez dugu bere osotasunean ordezkatu eta horrek ezina ekarri dio proiektuari.</p> <p><b>Komunikazio sailarekin elkarlanean</b> aritu gara jarioa eragiten, eta horrek lagundu du.</p> <p>Lan taldea: Jexux Mari Irazu proiektu arduradun (proiektu ardura Eneritz Urkolak ordezkatuta aldi batez) eta kazetari (kazetari lanak aldi batez Kerman Diazek eta Felix Irazustabarrenak ordezkatuta), Xan Alkhat podcast egile eta kazetari lanetan, eta komunikazio saila.</p>
--	--

<b>Proiektuaren izena</b>	HITZETIK HORTZERA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan
<b>Deskribapen motza</b>	Euskal Telebistako asteroko saioa, irailetik martxora emititzen dena
<b>BALORAZIOA</b>	<p><b>2021ean HH 2020-2022 denboraldiko 13 atal</b> ekoiztu ditugu, eta <b>HH 2021-2022ko denboraldiko beste 13 atal</b>.</p> <p><b>Emisio eguna:</b> urtarriletik apirilera, Hitzetik Hortzera larunbat eta igandetan emititu da, eta ETBk aldebarrez erabakita eta audientziak datuak arrazoibide gisa emanda, <b>irailetik aurrera larunbatez bakarrik</b> emititu da, salbuespen gutxirekin. Honen gaineko azalpenak eskatu genizkion ETBko zuzendaritzari, eta adierazi genien horrelako erabakiak bi aldeen arteko adostasunez hartu behar direla. Onartu ziguten hanka sartzea eta aurrerantzean ez errepikatzeko konpromisoa hartu zuten.</p>

### **Elkarrizketak eta gaiak:**

Bertsozale Elkartearen irizpideak hartu ditugu oinarri gaien eta elkarrizketatuen hautaketan: ikuspuntu feminista, lurraldetasuna, belaunaldiartekotasuna.

#### **HH2020-2021 (urtariletik martxora):**

- 1- Errepasoa 2020
- 2- Oier Lakuntza
- 3- Plateruena azken agurra " Erika Lagoma"
- 4- Umeen neurriko bertsoak. "Aissa Intxausti eta Eneko Arrate"
- 5- Oihane Perea
- 6- Albe 40 urte "jone Uria eta Unai Mendiburu"
- 7- Etxepare Rap "Imanol Epelde"
- 8- Bertsolari Aldizkariak 30 urte "Joxean Agirre eta Beñat Hack Embare"
- 9- Eskolatik Plazara "Irene Basagoiti, Leire Vargas, Naia Arrizabalaga, aitor Ugarte, Ekhiñe Zapiain, Aner Peritz, Haira Aizpurua, Irantzu Idoate, Juanjo Respaldiza eta Mikel Mendizabal.
- 10- Bertsolari gazteen hasierak "Aitor Servier, Aroa Arrizubieta, Ekhiñe Zapiain, Maider Arregi eta Xabat Illarregi"
- 11- Nafarroako Bertsolari Txapelketa gogoan " Irati Majuelo eta Arkaitz Goikoetxea"
- 12- Bollo bertso saioak "Amaia Agirre eta Eli Pagola"
- 13- Argazkietatik bertso tara "Danele Sarrugarte"

#### **HH2021-2022 (irailtik abendura):**

- 1- Bertso udalekuak: "Miren Artetxe, Ekhiñe Zapiain, Peru Abarrategi"
- 2- Señora Sariketa "Eli Pagola eta Udane Mugerza"

- 3- Azken bidaia" Nere Erkiaga
- 4- Bertsotan irakastea. "Mikel Artola"
- 5- Bertsolaritzaren erresistentziak. "Leire Amenabar eta Ines Uharte"
- 6- Gu ta Gutarrak "Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Josu Zabala"
- 7- Otañotarrak. "Oihana Iguaran eta Patxi Bisquet"
- 8- Bertso otorduak bueltan. "Iker Zubeldia eta Maialen Akizu"
- 9- Xilabako txapel emalea. Andoni Iturrioz"
- 10- Nafarroako txapel emalea " Estitxu Arozena"
- 11- Sebastian Lizaso
- 12- "Borroka da bidea" "Beñat Gaztelumendi eta Unai Gaztelumendi
- 13- Bizkaia txapel emaleak "Moises Enbeita eta Joseba Etxeberria"

**Audientziak:**

**HH 2020-2021** denboraldiko azken atalak:

- **larunbateko emisioaren** batazbesteko datuak: **rating 0'5 eta share 1'3** (euskaldunen artean rating 0'8 eta share 2'7)

- **igandeko emisioaren** batazbesteko datuak: **rating 0'1 eta share 0'4** (euskaldunen artean rating 0'2 eta share 0'9)

**HH 2021-2022** denboraldiko lehen 13 atalak:


- **larunbateko emisioaren** batazbesteko datuak: **rating 0'4 eta share 1'5** (euskaldunen artean rating 0'6 eta share 3'5)

- **igandeko emisioaren** batazbesteko datuak (3 igandetan eskaini da HH): **rating 0'3 eta share 1'1** (euskaldunen artean rating 0'6 eta share 3'1)

	<p><b>Lan-taldea:</b> Gaizka Azkarate zuzendaria, kamera operadorea eta editorea, Nerea Ibarzabal gidoilaria, Haritz Arrizabalaga errealizadorea eta kamera operadorea, Kerman Diaz kamera operadorea eta komunikazio lanak, Eider Perez, aurkezlea eta produkzio lanak, Feliz Irazustabarrena artxiboko edukien arduraduna eta azpidatziak.</p>
--	--


<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSO SAIOEN GRABAZIOAK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan
<b>Deskribapen motza</b>	Astero bi bertso-saio grabatuko ditugu
<b>BALORAZIOA</b>	<p><b>Asteroko bi grabazioen martxari eutsi diogu</b>, Hitzetik Hortzerako denboralditik aparte, gutxiago grabatuz. <u>Guztira 77 saio grabatu ditugu.</u></p> <p><b>Saioak hautatzeko irizpideak</b> hauek izan dira: ikuspuntu feminista, lurraldetasuna, belaunaldi ezberdinetako bertsolariak ikusaraztea, saioen formatu aniztasuna, Hitzetik Hortzerako gaitegia...</p> <p>Hauek dira grabatu ditugun saioen ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- LURRALDE TASUNA: <ul style="list-style-type: none"> <li>o Araba: 3 saio</li> <li>o Baxenabarre: 1 saio</li> </ul> </li> </ul>

- Bizkaia: 22 saio
- Gipuzkoa: 31 saio
- Lapurdi: 3 saio
- Nafarroa: 16 saio
- Zuberoa: 1 saio




- PAREKIDETASUNA:

- Parekideak: 33 saio
- Gizonezkoak gehiago: 24 saio
- Emakumezko gehiago: 20 saio



- SAIO MOTA:

- Jaialdiak: 47 saio
- Musikatuak: 6 saio
- Bereziak: 5 saio
- Lagun-arteoak: 2 saio
- Txapelketak: 15 saio
- Sariaketak: 15 saio





	<p><b>Funtzionamendua:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- kamera operadoreak: <b>saio gehienak 2 kamera operadoreekin</b> grabatu ditugu, 3 kameretara. Udako garaian, <b>hainbat saio kamera operadore eta kamera bakarrarekin</b> grabatu ditugu. Lan taldeko bajak ordezkatzeko, kamera operadoreak kontratatatu ditugu.</li> <li>- erredaktoreak: Bertsozale Elkarteko beste sailetako <b>lankideak aritu dira erredaktore lanetan.</b></li> </ul> <p><b>Dokumentazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- bertsoaldi fitxak: egungo beharretara <b>egokitu dugu bertsoaldi fitxa</b> Xenpelar Dokumentazioarekin batera.</li> <li>- grabazioen katalogazioa: <b>2021ean makala eta pisutsua izan da grabazioen katalogazio prozesua,</b> eta ez dugu lortu hori arintzea.</li> </ul> <p>Lan taldea: kamera operadore lanetan Haritz Arrizabalaga, Gaizka Azkarate, Jexux Mari Irazu (aldi batez Kerman Diazken ordezkatuta) eta Eneritz Urkola. Erredaktore lanetan Felix Irazustabarrena, Eider Perez eta beste sailetako lankideak.</p>
--	--

<b>Proiektuaren izena</b>	IRRATI HEDAPENA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Irailetik ekainera
<b>Deskribapen motza</b>	Hitzarmenak ditugun irratiei bertsoaldien audioak bidaliko zaizkie eurak bertsolaritzari buruzko irratsaioa egin dezaten.

<b>BALORAZIOA</b>	<p>Asteroko irrati zerbitzua gauzatu dugu, udako hilabeteak barne.</p> <p><b>Hitzarmen berri bat egin dugu 2021ean</b>, beraz dagoeneko 7 dira irratiekin ditugun hitzarmenak: Euskadi Irratia, Bilbo Hiria irratia, Laixiar irratia, Arraio irratia, Ataria irratia, Hala Bedi irratia eta Xorroin irratia.</p> <p><b>Irrati zerbitzurako irizpideak berrikusi beharraz</b> jabetu gara aurten.</p> <p><b>Lan taldea:</b> Eneritz Urkola irradi hitzarmenak bideratzen, Felix Irazustabarrena irradi zerbitzuan.</p>
-------------------	---

<b>Proiektuaren izena</b>	APARTEKO EKOIZPENAK - ZUZENKOAK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 udaberrian eta 2021 udazkena
<b>Deskribapen motza</b>	ETBrentzat ekoiztuko ditugun txapelketen finalerako emisioak eta Plaza Biziberritzen egitasmoaren baitan eskainiko ditugun zuzenekoak.
<b>BALORAZIOA</b>	<p><b>PLAZA BIZIBERRITZEN – ZUZENKOAK negu-udaberrian:</b></p> <p><b>3 ekitaldi zuzenean eskaini ditugu 2021 hasieran</b>, horietatik 2 ordainpekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ 2021-02-26 Amasa-Villabona, "Uhinak" bertso-saio berezia, ordainpeko streaming saioa</li> <li>○ 2021-03-27 Getaria, Bertso Eguna, ordainpeko streaming saioa</li> <li>○ 2021-05-08 Lesaka, Señora sariketaren finala, doako streaming saioa EITBrekin elkarlanean</li> </ul> <p><b>TXAPELKETAK udazkenean:</b></p>

Euskal Telebistarekin elkarlanean, ekoizpen bereziak egin ditugu Xilaba, Nafarroa eta Bizkaiko finalekin. Guztira **10 emisio**:

- XILABA:

- Azaroak 13, zuzenekoa, ETB4/EITB.EUS
- Azaroak 13, diferitua, ETB1
- Azaroak 14, HH berezia, ETB1

- NAFARROA

- Azaroak 28, zuzenekoa, ETB4/EITB.EUS
- Azaroak 28, zuzenekoa, ETB1
- Azaroak 28, difertia, ETB1
- Abenduak 5, HH berezia, ETB1

- BIZKAIA

- Abenduak 18, zuzenekoa, ETB4/EITB.EUS
- Abenduak 18, diferitua, ETB1
- Abenduak 19, HH berezia, ETB1

**Funtzionamenduari** dagokionez, **lanegun luzeak eta tentsio handikoak** izan dira finaletakoak. Gainera, zuzenekoaz gain hurrengo egunerako HH berezia prestatu beharrak, are zailago eta luzeago egin du lana.

**Aurrerapausoak** eman ditugu **Txapelketako arduradunen eta emisioen arduradunen koordinazio lanetan.**

	<p><b>Juxtuko baliabideekin</b> egiten dugu lan, ETBrekin adostutako aurrekontuak ez digulako gehiagorako aukerarik ematen. Gainera, lan taldean izandako bajak ez ditugu osotasunean ordezkatu eta hala ere, <b>bete ditugu helburuak.</b></p> <p><b>Audientziei</b> dagokionez, aipatzeko bi datu: larunbat iluntzean <b>ETB1en audientzia onak</b> eta <b>ETB4ko zuzenekoak, eskasak.</b> Horrelaxe baloratu du Euskal Telebistak ere.</p> <p><b>Lan taldea:</b> Eneritz Urkola zuzenekoaren zuzendaria eta produkzio lanak, Gaizka Azkarate Hitzetik Hortzera berezien zuzendaria, arduradun teknikoa, errealizadorea, kamera operadorea eta editorea, Haritz Arrizabalaga errealizadorea eta kamera operadorea, Kerman Diaz kamera operadorea eta komunikazio lanak, Eider Perez zuzenekoak eta Hitzetik Hortzera bereziak aurkezlea, Felix Irazustabarrena erredaktorea, Asier Garcia, Mikel Oiarbide eta Peru Galbete kamera operadoreak, Iñaki Otaegi polecama, Iñigo Azkue eta Xabi Arregi audio teknikoak, Ilaski Serrano zuzenekoan aurkezlea, Nahia Sasco, Irati Majuelo eta Zihara Enbeita iritzi emaleak.</p>
--	---

<b>Proiektuaren izena</b>	SARE SOZIALAK
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan
<b>Deskribapen motza</b>	Bertsolaritzaren zabalkunderako bideak

## BALORAZIOA

Bertsoa.eus eta Hitzetik Hortzerako FACEBOOK eta TWITTER orriak elikatu ditugu urte osoan.

### **Edukiak:**

BERTSOA.EUSeko Facebook eta Twitter orrietan bertsoaldiak eta albisteak argitaratu ditugu. Facebook orrian, batzaz beste 11 argitalpen astean; urtean 528 inguru. Twitterren 601 tweet argitaratu ditugu.

HITZETIK HORTZERAKo Facebook eta Twitter orrietan Hitzetik Hortzera programaren edukiak aurreratu ditugu. Guztira 203 tweet argitaratu ditugu.

### **Audientziak, erabiltzaile kopuruak:**

#### BERTSOA Facebook:

24.902 irismena; 4.179 bisita

#### BERTSOA Twitter:

704.800 aldiz agertu da gure edukia audientziaren arbeletan

30.109 bisita izan ditu orrialdeak

240 aldiz erabili da #bertsolaritza traola

186 jarraitzaile berri izan ditugu 2021 ean.

#### HH Facebook:

18.682 irismena; 1.110 bisita

#### HH Twitter:

177.837 aldiz agertu da gure edukia audientziaren arbelean

11.777 bisita izan ditu gure perfilak

288 aldiz erabili da HitzetikHortzera traola

134 jarraitzaile berri izan ditugu

**Lan taldea:** Gaizka Azkarate, Jexux Mari Irazu eta Kerman Diaz aritu dira sare sozialen kudeaketan.

<b>Proiektuaren izena</b>	EMAKUME BERTSOLARIEI IKUSGARRITASUNA EMAN
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan
<b>Deskribapen motza</b>	Emakume bertsolarien sorkuntza pantailara eramango da bertso-sorta musikatuaren bidez
<b>BALORAZIOA</b>	Proiektua ez da gauzatu aurrekontu faltagatik.

# KOMUNIKAZIOA

## Deskribapena

Urteko helburuak	BALORAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sailaren eta Taldearen funtzionamendua hobetzeko pausoak eman</li> <li>- Editore Taldea: dinamizatu</li> <li>- Hedapen sailarekin elkarlana areagotu</li> <li>- Diseinu lanen koordinazioa eta exekuzioa hobetu eta optimizatu</li> <li>- Taldearen formazioa sustatu: indesign, photoshop...</li> <li>- Gero@a mugitzen – aldizkaria erdal hizkuntzetara itzuli eta argitaratu.</li> <li>- Gero@a mugitzen aldizkaria oinarri izango duen ikus-entzunezkoa garatu</li> <li>- BTN22 – komunikazio plana diseinatu eta irudia, sintonia eta sariei buruzko lanketa abiatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Sailaren eta Taldearen funtzionamendua hobetzeko pausoak eman dira, tailer partehartzaileen bidez diagnostikoa eta eman beharreko pausoak zehaztuz.</li> <li>-Editore taldea dinamizatu da, elkartearen argitalpen agenda, ideiak... elkarrekin garatuz.</li> <li>-Hedapen sailarekin elkarlana areagotu da.</li> <li>-Taldearen formazioa sustatu da: Bertsozale.eus webgunean formularioak garatzeko, Gimp eta Power Point erremintak erabiltzeko eta webguneetako CSSak lantzeko ikastaroak antolatu eta gauzatu dira.</li> <li>-Gerora mugitzen aldizkariaren edukia ez da itzuli.</li> <li>-Gerora mugitzen aldizkarian oinarritutako elkarteari buruzko <a href="#">bideo korporatiboa</a> edo ikus-entzunezkoa garatu eta zabaldu da.</li> <li>-Txapelketa atzeratu da eta 2021eko urte amaieran ekin diogu, berriro, txapelketaren lanketari: komunikazio plan orokorraren diseinuari eta irudiaren zein sintoniaren lanketari.</li> </ul>

Sailaren kudeaketa		
Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA

<b>Funtzionamendua eta sailaren kudeaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio saila antolatu: eragilea, teknikaria, erredaktorea.</li> <li>- Komunikazio Taldea: batzordea dinamizatu.</li> <li>- Lurraldeetako elkarteetako eta Lankuko komunikazio beharrak asetu: aholkularitza.</li> <li>- Diseinu lanen koordinazioa eta exekuzioa.</li> <li>- Hedapen sailarekin elkarlana areagotu.</li> <li>- Funtzionamenduari buruzko sailaren parte hartze prozesua gauzatu.</li> <li>- BTN22 komunikazio taldea: batzordea sortu eta dinamizatu.</li> <li>- Editore Taldea: dinamizatu.</li> <li>- BTN22 dela eta saila indartzeko neurriak landu.</li> <li>- Komunikazio egitasmo orokorra landu eta planifikatu.</li> <li>- Aurrekontua landu eta jarraipena egin eta sailaren aurrekontuaren bolumen osoa ikusarazi.</li> <li>- Sailaren lan erregistroen jarraipena egin.</li> <li>- Komunikazio Taldeko kideen formazioa sustatu: indesign, photoshop...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2021ean saila horrela antolatu da: eragilea %100era, teknikaria %100era eta erredaktorea %10era. 2022rako, Bertsolari Txapelketa Nagusiari begira, saila indartu da, %40an lan teknikoetan ariko den pertsona batekin. 2022ari begira %10 erredaktorearen ekarpena izoztu egin da abenduan.</li> <li>- Komunikazio Batzordean dinamizatu da, zazpi bilera egin dira urtean zehar eta taldearen funtzionamenduari buruzko tailerrak ere egin dira.</li> <li>- Lurraldeetako elkarteetako eta Lankuko komunikazio beharrak asetu dira, eta Komunikazio Sail gisa bi bilera egin dira, komunikazio lanei lotutako koordinazio orokorrerako.</li> <li>- Diseinu lanen koordinazioari eta exekuzioari buruzko gogoeta egin eta aldaketak gauzatu dira: aurrerantzean kanpo hornitzaileen bitartez bideratuko dira lanak. Orain arteko diseinu lanen artxibatzea sustatu da.</li> <li>- BTN22ari begira Komunikazio Batzordea, elkartearen urteroko egitasmoaz arduratzen den batzorde bera izatea hobetsi da eta lanean ari da.</li> <li>- Komunikazio egitasmo orokorra landu eta planifikatu da.</li> <li>- Aurrekontua landu eta jarraipena egin zaio. Aurrekontu orokorrean komunikazioko partidak proiektuetan ikusarazten dira eta ez komunikazioko egitasmo gisa. Administrazio siletik hori beste era batera bisualizatzeko sustatzen jarraituko dugu komunikazioan inbertitzen denaren bisio objektiboagoa eman asmoz.</li> <li>- Sailaren lan erregistroen jarraipena egin da.</li> </ul>
---	---	---



		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazioaren alorrari lotuta, lankideen formazioa sustatu da: Bertsozale.eus webgunean formularioak garatzeko, Gimp eta Power Point erremintak erabiltzeko eta webguneetako CSSak lantzeko ikastaroak antolatu eta gauzatu dira.</li> </ul>
<b>Barne Komunikazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Barne Orria (BTN22)</li> <li>- Barne Orria (Elkartekoa eta Mintzolakoa)</li> <li>- <b>Bertsozalea berripapera</b></li> <li>- Egitasmoen agenda bateratua osatu eta jakinarazpenak bidali</li> <li>- Txapelketako Batzordean parte hartu</li> <li>- Koordinazio batzordean parte hartu komunikazio ikuspegia eskainiz</li> <li>- Kudeaketa batzordean parte hartu komunikazio ikuspegia eskainiz</li> <li>- Zuzendaritza batzordean parte hartu komunikazio ikuspegia eskainiz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteko Barne Orria prestatu eta helarazi zaie elkarteko kide aktiboiei (soldatapeko zein borondatezkoiei) hamabost egunetik behin. Txapelketako barne informazioa buletin orokorra baliatuz ematea deliberatu da.</li> <li>- Mintzolako Barne Orria prestatu eta helarazi zaie Mintzola Fundazioko patronatu kideei eta Bertsozale Elkarteko zuzendaritza kideei hilean behin.</li> <li>- BertsoZalea berripaperaren 10 ale argitaratu eta helarazi zaizkie: bazkideei, hedabideei, elkarlanean ari garen norbanako eta erakundeei...</li> <li>- Komunikazio lanen plangintza osatzeko eta barne komunikaziorako agenda bateratua osatu da.</li> <li>- Zuzendaritza, Kudeaketa, Koordinazioa eta txapelketako antolakuntza batzordeetan parte hartu da, komunikazio ikuspegia eskainiz.</li> </ul>

<b>Kanpo Komunikazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Harreman publikoen jarraipena eta bistaratzea</li> <li>- Hedabideekin hitzarmenak landu</li> <li>- Prentsa bulegoa: hedabideetara albisteak bidali, bitartekaritza egin....</li> <li>- Azokak: Durangoko Azoka</li> <li>- Legezko ohar, datuen pribatutasuna, cookie politikak... jarraipena</li> <li>- Publizitate akordioen jarraipena egin eta gauzatu</li> <li>- Elkartea bazkide den erakundeetako komunikazio estrategia amankomunak bideratu: Kontseilua</li> <li>- Elkarreak antolatzen dituen egitasmoen komunikazio plana diseinatu eta gauzatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Harreman publikoak zaindu eta hauen bistaratzea landu da.</li> <li>- Hedabideekin ditugun hitzarmenen jarraipena egin da Hedapen Sailarekin elkarlanean.</li> <li>- Prentsa bulego zerbitzua eskaini dugu urte osoan hedabideetara albisteak eta informazioa bidaliz eta bitartekaritza lana eginez.</li> <li>- Durangoko Azokako parte hartzea sustatu eta gauzatu da.</li> <li>- Sareko erremintetan lege oharrak, berrikusi eta inplementatu dira.</li> <li>- Publizitate akordioen jarraipena egin da hartutako konpromisoak gauzatzuz.</li> <li>- Elkartea bazkide den erakundeetako komunikazio estrategia amankomunak bideratu dira.</li> <li>- Elkarreak antolatzen dituen egitasmoen komunikazio plana diseinatu eta exekutatu da.</li> <li>- Modu berezitan bertso plazaren egoeraren komunikazioan jarri da indarra. Covid-19ak eragindako egoera epidemiologikoaren ondorioz bertsolaritzak geldialdi handia nozitu du eta egoeraren irakurketa eta elkartetik plaza suspertzeko egindako egitasmoen komunikazioan jarri da indarra. Aldi berean, kulturgintzan ari garenaren kontzientziaren zabalkundean eta ikerkuntzaren zabalkundean jarri da indarra.</li> <li>- Elkarrearen Internet sareko estrategiari buruzko <a href="#">solasaldia</a> eskaini da <a href="#">UEUK antolatutako jardunaldietan</a>.</li> </ul>
---------------------------	---	---

<b>Komunikazio Politika</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkidetza politika berrikusi</li> <li>- Youtubeko estrategia berrikusi</li> <li>- Hitzetik Hortzeraren sareko estrategia berrikusi eta elkarlana adostu ETBrekin.</li> <li>- BTN22</li> <li>- Txapelketaren komunikazio plan orokorra diseinatu</li> <li>- Sintonia lantzen hasi</li> <li>- Irudia lantzen hasi</li> <li>- Sariak lantzen hasi</li> <li>- Saila indartzeko neurriak landu</li> <li>- Helburuei lotutako komunikazio "diskurtsod" eraiki</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkidetza politika zaindu da eta berrikusteko gogoetatu da.</li> <li>- Youtubeko estrategia berrikusteko gogoetatu da baina ez da aldaketarik inplementatu.</li> <li>- EiTBrekin dugun elkarlan orokorraren markoaren berrazterketan parte hartu da.</li> <li>- Txapelketari begira hainbat alderdi lantzen hasi gara: plan orokorra, irudia, sintonia, sariak, saila indartzeko neurriak, kontakizuna...</li> </ul>
<b>Komunikazio erreminten kudeaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedabideen datu baseak: EH + estatua + atzerria eguneratu</li> <li>- Internet sarearen estrategia berrikusi</li> <li>- Sare sozialetan pausuak eman eta garaietara egokitu</li> <li>- Sare sozialen bidez albisteak hedatu: whatsapp, Facebook, twitter, Instagram, Linked-in, youtube</li> <li>- Webguneen ostatatzea, mantenimendua eta etengabeko berrikuntza</li> <li>- Webguneen eguneraketa: EUS, ES, FR, EN</li> <li>- Gero@a mugitzen aldizkaria itzuli ES, FR, EN</li> <li>- Gero@a mugitzen bideoa gauzatu EU, azpitoluekin: ES, FR, EN</li> <li>- Seinaleztapena: Subijana etxeko ataria txukundu</li> <li>- Gabonetako postalak</li> <li>- Plaza Biziberritzeko spot eta irrati soinu deigarriak garatu eta zabaldu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedabideetako datu baseak etengabe eguneratu dira.</li> <li>- Internet sareko estrategia berrikusi da, ez da aldaketarik eman 2021ean.</li> <li>- Sare sozialen bidez albisteak hedatu dira.</li> <li>- Webguneen etengabeko berrikuntza eragin da.</li> <li>- Webguneetako edukiaren etengabeko eguneraketa eman da.</li> <li>- Gerora mugitzen aldizkariko edukia ez da itzuli.</li> <li>- Gerora mugitzen aldizkarian oinarrituta, Bertsozale Elkarteari buruzko bideo korporatiboa edo <a href="#">ikus-entzunezkoa</a> gauzatu eta zabaldu da.</li> <li>- Seinaleztapena ez da berri 2021ean.</li> <li>- Gabonetako postala gauzatu zabaldu da.</li> <li>- Plaza Biziberritzeko <a href="#">spot eta irrati soinu deigarriak</a> garatu eta zabaldu dira, pandemiak eragindako geldialdia suspertu asmoz</li> </ul>

## Proiektuak

<b>Proiektuaren izena</b>	GERO(R)A MUGITZEN ALDIZKARIA: ERDARAZKO BERTSIOAK GAUZATZEA (ES, FR, EN)
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 ekaina
<b>Deskribapen motza</b>	2021ean elkarteari buruz argitaratutako euskarazko aldizkaria erdal hizkuntzatan argitaratzea.
<b>BALORAZIOA</b>	- Elkartearen berri (gogoetako ondorioak barne) emateko aldizkaria erdal hizkuntzetara itzultzerik ez da izan lehentasunak markatu behar izan direlako eta ikusentzuneakoari eman zaiolako lehentasuna. Bertan bai egin dira azpigituluak

<b>Proiektuaren izena</b>	GERO(R)A MUGITZEN ALDIZKARIA OINARRITUTAKO IKUS-ENTZUNEZKOA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 urtarrila – 2021 uztaila
<b>Deskribapen motza</b>	Elkarteari buruzko hamar bat minutuko ikus-entzunezkoa sortzea.
<b>BALORAZIOA</b>	Aldizkaria oinarri duen ikus-entzunezkoa garatu eta zabaldu da, euskaraz eta lau hizkuntzetan azpigitulatuta. <a href="https://www.youtube.com/watch?v=W1Yf9LzDLgM&amp;t=49s">https://www.youtube.com/watch?v=W1Yf9LzDLgM&amp;t=49s</a>

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSOZALE.EUS ATARI KORPORATIBOA: ITXURA ALDAKETA
---------------------------	--

<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 ekaina – 2021 abendua
<b>Deskribapen motza</b>	Elkarteko atari korporatiboaren itxura eguneratzea.
<b>BALORAZIOA</b>	Ataria itxuraldatzeko aukerarik ez da izan aurrekontuak horrela markatu duelako 2021ean.

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSOZALEA BERRIPAPERA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar 10 ale. Maiztasuna, hilean behin, uda partean etenaldiarekin.
<b>Deskribapen motza</b>	Elkartearen berripapera. Bazkideei, erakunde laguntzaileei, euskalgintza zein kulturgintzako erakundeei, hedabideei bidaltzen zaie, elkartearen proiektuaren berri emateko.
<b>BALORAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- BertsoZalea berri paperaren 10 ale argitaratu dira, sail eta herrialdeekin elkarlanean.</li> <li>- Ekintza jakinetan komunikazio ahalegin berezia egin da: Batzar Nagusia, Bertso Eguna, Txapelketak, argitalpenak...</li> <li>- Bazkide berriak erakartzeko komunikazio estrategiak gauzatu dira herrialdeetako txapelketetan.</li> <li>- -Parte hartze prozesuan parte hartu eta horren berri eman da.</li> </ul>

<b>Proiektuaren izena</b>	DURANGOKO AZOKA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	2021 abendua

<b>Deskribapen motza</b>	Euskal Kulturaren Azokan bertsolaritzaren presentzia bermatzea.
<b>BALORAZIOA</b>	- Durangoko Azokan Elkarteak izan behar duen presentzia aztertu eta Lankurekin batera stand-aren ardura hartu da. Baita gainontzeko azoketakoa ere, lurraldeekin eta Lankurekin elkarlanean.

## ADMINISTRAZIOA

### Deskribapena

<b>Urteko helburuak</b>
- Sailaren eta taldearen berrantolaketa eta egonkortzea.

<b>Sailaren kudeaketa</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>

<p><b>Administrazio Saila</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko Administrazio lantaldean, koordinazioa (astean behin bilera, lanak antolatzeke). Taldearen indartzea, berrantolaketa eta egonkortzea.</li> <li>- Diruzain eta koordinatzailearekin elkarlan estuan jardutea: koordinatzailearekin asteroko bilerak eta diruzainarekin harremana.</li> <li>- Administrazio Batzordearen koordinazioa eta jarraipena egitea.</li> <li>- Herrialdeetako diruzainekin koordinazio bilerak egitea: urtean bi.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Administrarien lantaldean lan banaketa diseinatu zen urte hasieran eta funtzionamendu berriarekin jardun dugu urte osoa.</li> <li>- Parte hartze prozesuan diruzainen batzordearen inguruan harunartu da eta 2022ra begira finantza talde abt sortzeko beharra ikusi da.</li> <li>- Administrazioen batzordeko maiztasuna salbuespenak salbuespen hilabetean behinekoa izan da eta lanketa bateratuak eta ekipo egiteko gune bihurtu dira.</li> </ul>
-----------------------------------	---	--

<p><b>Finantza gestioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrekontua orekatzea eta exekuzioaren berri Zuzendaritza Batzordeari ematea.</li> <li>- Kontabilitatea eguneratua eramatea.</li> <li>- Diruzaintzaren jarraipena egitea.</li> <li>- Inbentarioa eguneratzea.</li> <li>- Lurralde guztien kontuak eguneratzea.</li> <li>- Ogasuneko izapideak betetzea.</li> <li>- Irizpide bateratuak lantzea eta zaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinatzaile eta diruzainarekin elkarlanean aurrekontuaren egitura erabaki eta jarraipena egitea.</li> <li>- Aurrekontuen kontrol eta jarraipenerako bitartekoak prestatzea.</li> <li>- Laguntza eskariak eta beren zuriketa garaiz egiteko modua egitea.</li> <li>- Sarrera irteeren gaineko kontrola eramatea; ordainketa epeak kudeatzea jarritako irizpideen baitan.</li> <li>- Diruzaintzako kontuak adi zaintzea, sarrerak eta irteerak planifikatuz eta diruzaintza plana prestatuz. Behar den kasuetan, diruzaintza beharretarako maileguen koordinazioa eta kontrola egitea.</li> <li>- Arauzko kontabilitatea eramatea, BE osatzen duten elkarte guztietan.</li> <li>- Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta aitorpenak egunera eramatea, aholkularitzekin elkarlanean.</li> <li>- Urteko kontuak eta memoria prestatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etengabeko jarraipenerako datak markatu dira eta horrek ekarri digu momentuko egoerak eskatzen zituen neurri eta baliabideak bilatzea.</li> <li>- Dirulaguntza lerro berrietara aurkezteak aurreikuspena meioratzeko aukerak sortu ditu.</li> <li>- Zuriketak egiteko lan sistema adostu da lantaldean.</li> <li>- Euskal Herriko eta herrialdeetako administrazio beharrak eta lanak banatzeko ahalegina egin da. Maileguen sistema aldatu eta jarraipenerako metodoa adostu da.</li> <li>- Administrazioari dagozkion lanak egin dira eta lantaldean aldaketan eman diren arren lan banaketa egokiak funtzionamenduan hobekuntzak ekarri ditu, eta horren ondorioz lan erritmo bizigarriagoa ere lortu da.</li> <li>- Inbentarioa ez da eguneratu, aurretik ebste lehentasun batzuk hartu dutelako garrantzia.</li> <li>- Tarifien bateratzearen lanketa egiten hasi ginen baina ez dugu guztiz bukatu lanketarekin.</li> </ul>
---	--	--



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Inbentarioa eguneratzea, urtean behin.</li> <li>- Finantza gaietan ezarritako irizpideak bete daitezen bermatzea.</li> </ul>	
<p><b>Administrazio eta erakundeekiko betebeharrak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eusko Jaurjaritza – Elkarteak erregistroa.</li> <li>- Gipuzkoako Foru Aldundian.</li> <li>- Babeslaritza eta Fundazioen erregistroa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteak erregistroarekiko betebeharrak egunera eramatea.</li> <li>- Mintzolan Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitako erakunde gisa dituen betebeharrak erantzutea.</li> <li>- Babeslaritza eta Fundazioen erregistroarekiko betebeharrak egunera eramatea.</li> <li>- Elkarteak erregistratuta dituen marken kontrola (patente eta markak)</li> <li>- EUSTAT, INE,.. inkestak betetzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Administrazio eta erakundeekiko betebeharrak guztiak egin dira.</li> <li>- Mintzolan azkentzearen prozesuan EHBK paper garrantzitsua jokatu du eta lan horiek egin behar izanak ekarri ditu beste lan batzuk atzeratzea.</li> </ul>

<p><b>Giza baliabideen kudeaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan kontratuen gestioa eta jarraipena.</li> <li>- Gizarte Segurantzaren irizpideak bete.</li> <li>- Lan arrisku eta prebentzio plana bete</li> <li>- Formazio hobarien kudeaketa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza Batzordeak erabakitako lan hitzarmenak egitea eta baldintzak zaintzea.</li> <li>- Lan kontratuen kudeaketa (altak, bajak, aldaketak,...)</li> <li>- Nominen jarraipena egitea.</li> <li>- Gaixoaldi edo lan istripu bajeen kontrola egitea.</li> <li>- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera eramatea.</li> <li>- Baimen, eszedentzia,...kontrola.</li> <li>- Lanaldien erregistro orriak jasotzea.</li> <li>- Lan arrisku eta prebentzio plana.</li> <li>- Urteroko jarraipena.</li> <li>- Langileen azterketa medikuen egutegia.</li> <li>- Lan arrisku eta prebentzio planaren barruan langileen formazioa.</li> <li>- Langileen formazioaren bonifikazirako tramiteak bideratzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bajaldi asko izan ditugu urte honetan eta horrek pertsonalaren kudeaketan lan gehiago ekarri du.</li> <li>- Lan harremani dagozkien pauso denak eman ditugu.</li> <li>- Berrantolaketa proposamenak ekarri dituen aldaketak egikaritu dira.</li> </ul>
--	--	---

<p><b>Bazkide errolda</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkideen alta eta bajak erroldatzea, eta datu-baseak (Access, bertsosarrerak, Outlook,...) egunera eramatea.</li> <li>- Eskatzen diren informeak egitea.</li> <li>- Kuotaren kobraketa bideratzea eta jarraipena egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsona bat kontratatu da bazkideen datu basea berritzeko (dirulaguntza bati esker) eta aspaldi eguneratu gabe genituen datu asko jarri ditugu egunean. Datu berri horiekin analisi desberdinak egitea da asmoa: bazkidetzaren inguruko gogoeta eta arrakala digitalaren irakurketa, besteak beste.</li> </ul>
<p><b>Egiteko zehatzak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Onura Orokorreko Erakunde izendapena.</li> <li>- Datu Pertsonalen Babeserako legea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Onura Publikoko Erakunde izendapena lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa prestatzea eta prozedurak bideratzea.</li> <li>- Datu Pertsonalen Babeserako legea implementatu eta sail eta lurraldeen zalantzak bideratzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mezenasgoaren prozesua aktibatu dugu Gipuzkoako Foru Aldundian.</li> <li>- Onura orokorreko izendapena lortzeko ekintzen memoria osatu dugu eta atal ekonomikoa geratu da pendiente.</li> <li>- Datu babeserako legean Sigacus enpresak markatu dizkigun pausoak jarraitu ditugu eta hainbat aldaketa egin dira formulario, email eta kontratuetan.</li> </ul>

<p><b>Ohiko egitekoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Telefono deiak hartzea eta banatzea.</li> <li>- Postaz arduratzea: egunerokoak igortzea eta jasotakoak banatzea.</li> <li>- Koordinatzaile eta sailtako eragileei behar duten laguntza eskaintzea: informazioa, laguntza eskariak, zuriketak e.a.</li> <li>- Bitarteko teknologikoen funtzionamenduaren ardura eramatea:</li> <li>- Azpiegitura informatikoa (Sarearen mantentzea: zerbitzari, intranet, erosketak, erabiltzaileak,...)</li> <li>- Ikus-entzunezko baliabideen mantenua.</li> <li>- Artxibo informatikoen ziurtasun kopiak egitea.</li> <li>- Elkarteko artxibo administratiboa antolatu eta egunera eramatea.</li> <li>- Ibilgetua Materialaren inbentarioa egunera eramatea.</li> <li>- Tresneriaren sarrera-irteeren kontrola eramatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orokorrean administrazio sailarekiko balorazio ona egiten dugu, izan ere, aldaketak izan dira Mintzolaeren azkentzea dela eta. Hala ere, aurretik zehaztutako lan eta funtzio banaketak mantendu dira eta horrek arindu du administrazio saila.</li> <li>- Administrari batzordean egin diren lanketek herrialdeen –Lanku eta EHBEn arteko elkar ezagutza sakontzeko baliagarriak izan dira, baita elkar laguntzeko ere.</li> <li>- Ikusezntzunezko baliabideen mantenua administrazio sailtik ateratzea erabaki da.</li> <li>- Aretoen erabilerari dagokionean Villabonako udalarekin sistema hobetzeko aukerak bermatzen ari gara.</li> <li>- Bigarren urtez berogailurik gabe gaude Subijana etxean eta Udalarekin harremanetan ari gara konponbidea topatzeko.</li> </ul>
-------------------------------	--	--

	<ul style="list-style-type: none"><li>- Bulegoko material suntsigarria: aurreikuspenak, erosketak...</li><li>- Biltegiko izakinen mugimenduaren kontrola eramatea:<ul style="list-style-type: none"><li>- Biltegian, salmentarako dagoen materialaren ardura (sarrerak, irteerak, urteko inbentarioa,...)</li></ul></li><li>- Aretoen erabileraren kudeaketa.</li><li>- Etxearen mantenua orokorrean</li><li>- Bertsosarrerak webgunearen kontrola:<ul style="list-style-type: none"><li>- Salmentan jarriko diren ekitaldien urteko egutegia prestatu eta aurrelanak antolatzea, salmenten likidazioak prestatzea,...</li></ul></li></ul>	
--	--	--

## Proiektuak

<b>Proiektuaren izena</b>	ONURA OROKORREKO IZENDAPENA
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Zehaztu gabeak
<b>Deskribapen motza</b>	Elkarteak, onura orokorreko izendapena lortzeko beharrezkoa den dokumentazioaren prestaketa (Elkartearen egitasmoa, azken hiru urteko memoria ekonomikoak...)
<b>BALORAZIOA</b>	Azken hiru urteetako ekintzen memoria txostena osatu da baina txosten ekonomikoa egiteke geratu da.

<b>Proiektuaren izena</b>	BERTSOSARRERAK.EUS
<b>Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)</b>	Urte osoan zehar
<b>Deskribapen motza</b>	Elkarteak antolatzen dituen ekimen desberdinetarako sarrera salmenta webgunea.
<b>BALORAZIOA</b>	<p>Egokitzapen eta garapen berrien urtea izan da 2021<sup>a</sup> Bertsosarrerak.eus atariari dagokionez. Pandemiaren eta bere ondorioz ezarritako neurrietara egokitzeko berrikuntza batzuk egin behar izan dira. Bide batez, kontrol sistema berritzeko erabakia hartu da. Aurreko sistemak urte dezente zituen eta azpiegitura handia eskatzen zuen, saio handienetan batez ere. Sarreraren kudeaketan ere esfortzu handia egin behar izaten zen. Hauen dira 2021 ean egin diren garapenak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Sarrerak 0€tan eskuratzeko aukera jarri da.</li></ul>

- Ekitaldien irikiera eta itxiera programatzeko aukera jarri da.
- Bertsosarrerak aplikazioa garatu da kontrol sistema mugikorren bitartez egin ahal izateko. Android eta IOS sistemetarako garatu da.
- Online takila sistema garatu da.
- Tiketak momentuan inprimatzeko inpresora berezi bat erosi da.

Guzti honek 12.000€ inguruko aurrekontua izan du. Aurrekontu hori Oreka diru-laguntza eta Eskolartekoaren gerakinetatik finantzatu da.

# ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p>1. GIZA BALIABIDEAK, PROIEKTUAK ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK OREKATU</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Pertsonal dedikazioa zaindu lan taldea indartuz.</li><li>- Defizita murriztu 2021 urtean, pertsonalaren egitura aurrera begira jasagarria izan dadin. Baliabide berriak bilatu.</li><li>- Pertsonala eta lana egokitu. Lana berbanatu.</li></ul> <p>2. BERTSOGINTZAREN EKOSISTEMA ZAINDU</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Herrietako bertsozale taldeak egituratu eta zaindu komunitate horiek iraunkorrak izan daitezen.</li><li>- Bertsolariak eta bertsozaleak aktibatu.</li><li>- Bertso saio, elkarlan eta plaza berriak egon daitezen eragin.</li><li>- Bertsozale Elkarteak eta herrialdeko bertso mugimendua prestigiatu, ezagutzera eman.</li></ul> <p>3. TRANSMISIOKO LANA ERAGINKORRAGO EGIN</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Bertso-eskoletako ikasleen arteko harremana eta plazaratzea zaindu.</li><li>- Irakasleen formazioa eta erreleboa. Materiala.</li><li>- Zubiak: Bertso eskolak sortzeko lan intentsiboa. Amuarekin arrantzatu arrastrerik gabe.</li></ul> <p>Gazteak Bertso mugimendura erakartzeko zirkuituak aztertu (Ikerkuntzarekin elkarlanean).</p>	<p>Oso fin aritzen gara lan dedikazioak sarritan egokituz eta pertsonala zainduz. Defizita murrizteari dagokionez, azken bi urteak ez dira egokienak izan baliabide berriak bilatzeko. Ahalegina egin dugu, baina ez dugu emaitzarik lortu momentuz.</p> <p>Bertsogintzaren ekosistema ondo zaindua dugu nahiz eta bertsolariengan desaktibazio puntu bat sumatu dugun.</p> <p>Transmisio lana eraginkorra izan da eta oso ondo ari da funtzionatzen.</p>



IDAZKARITZA	BALORAZIOA
<p><b>2021rako helburuak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonal dedikazioa zaindu lan taldea indartuz.</li> <li>- Defizita murriztu 2021 urtean, pertsonalaren egitura aurrera begira jasagarria izan dadin. Baliabide berriak bilatu.</li> <li>- Pertsonala eta lana egokitu. Lana berbanatu.</li> </ul> <p>1. Kudeaketa orokorra:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartearen oinarizko funtzionamendu egokia bermatu eta arauzko betekizunak txukun bete. <ul style="list-style-type: none"> <li>o Zuzendaritza eta koordinazio bileren aktak eta deialdiak garaiz egin</li> <li>o Bulegoa txukundu bakoitzaren espazioak egokitu. Lan tokiaren egokitzapena egin ekaina eta irailean</li> <li>o Zerga aitopenak, zuriketak eta laguntza eskaerak dagokion epean burutu</li> <li>o Bulegoaren mantenua ziurtatu: informatika, telekomunikazioak, fotokopiagailua</li> <li>o Posta, telefonoa eta datorrenari harrera egin gutxieneko ordutegi bat bermatuz eta eskaria dagokion sailera bideratuz.</li> <li>o Outlooken dagoen Kontaktuen datu basea eguneratu</li> </ul> </li> </ul>	<p>Pertsonala oso ondo zaindu da.</p> <p>Defizita murriztea ez dugu lortu.</p> <p>Lanaren egokitzea uneoro egin dugun zarbait da beharra suertatu denean.</p> <p>Zuzendaritza eta koordinazio bileren aktak eta deialdien antolakuntzak ondo funtzionatu du, baina hobetu daiteke.</p> <p>Datu basea excellean eguneratzeko lana egin dugu, baina ez dugu outlookean eguneratu.</p> <p>Koordinazioari dagokionez, lankideak astero bildu gara, gauza baterako ez bada besterako. Ondo doakigu astero komunikaturik egoteak. Ostiralak libratzen saiatu gara eta ideia ona izan da maiztasun hori.</p>

<ul style="list-style-type: none"> <li>o Urteko artxiboa antolatuta utzi, bai paperean zein intraneten.</li> <li>- Egitasmoa eta ildo estrategikoak adostu eta bete direla ziurtatu <ul style="list-style-type: none"> <li>o Ekainean urteko egitasmoaren tarteko ebaluazioa eta egokitzapena burutu. Abenduan memoria eta 2019rako egitasmoa</li> <li>o 2021 lehentasunak finkatu eta plana adostu zuzendaritza eta bertso-eskolen batzordearekin</li> </ul> </li> <li>- Kargudunak eta Bolondresak ahaldundun elkartearen gidaritza egin dezaten <ul style="list-style-type: none"> <li>o Zuzendaritza batzordearen 10 bilera egin. Informazioa alde zuzenetik bidali erabakiak bertan</li> <li>o Zuzendaritzakideak eta kargudunak iraunkorki informatu elkartearen martxaz,</li> <li>o Arduradunaren bat duten bolondresen eta eragileen arteko koordinazioa bermatu zuzendaritzaz gain gutxienez 2 bilera eginez.</li> <li>o Batzar nagusia urtarilean, partehartzea bultzatu eta arin eta eraginkor izan dadin prestatu.</li> </ul> </li> <li>- Lan antolaketa eraginkorra egin, errekursoak optimizatu, eta ongi koordinatu <ul style="list-style-type: none"> <li>o Langileen lanaldiak eta proiektuak dauzkagun baliabideetara egokitu, bakoitzaren lan-taula burutu eta ebaluatu ekainean eta abenduan.</li> </ul> </li> </ul>	<p>Zordun eta hartzekodunei errepassoak egiterako oprduan ez gabiltza oso fin eta hobetu beharreko zerbait da hau.</p> <p>Arabako Foru Aldundiko kultura zerbitzuarekin biltzeko aukera izan genuen bereziki eta hiru saio antolatzeko hitzarmena lortu genuen.</p> <p>Arduradun eta bolondresen arteko komunikazioa eraginkorragoa egiteko saiakeretan ibili gara, hobetu daitekeen zerbait da eta.</p> <p>Gaur egun daukagun diruzainak ez du aukerarik Zuzendaritza Batzordeetara joateko eta ondorioz ez da diruzaintza batzordeetara ere joaten. Kosta egiten ari zaigu honi irtenbide bat bilatzea.</p> <p>Ardurak hartzeari dagokionez, batzuek ardurak hartzeko prestutasun handiagoa adierazi dute beste batzuek baino eta honek lan taldean eragina du. Arazoa landu eta hitz egin arren berriz ateratzen da arduren kontua noizean behin.</p> <p>Onura publikoko elkarte izendapena ez da egin.</p>
--	--

- o Saitetako eragileen arteko koordinazioa bermatu hilean ostiral baten
- o Profesionalen lan taldea zaindu, ardura banaketa orekatua, elkarlana eta optimismoa sustatuz.
- o Hamabostean behin Ostiraletan KOORDINAZIO BILERA langile guztiekin egitasmoaren jarraipena egiteko. Hilean behin sail eragileak bakarrik
- o Lanaldien araberrako banaketa berria eta urteko kronograma burutu otsailean
- Pertsonalaren kudeaketa egokia egin.
  - o Lanaldiak, baldintzak, kontratuak, lan-orduen kontrol orriak eta ordezkapenak txukun kudeatu.
  - o Langileen eskubide eta betebeharren hurbileko jarraipena egin. Behar diren neurriak hartu.
- Nazio mailan ongi koordinatu.
  - o Kudeaketa batzordean parte hartu hamabostero bilerara ordezkari bat bidaliz.
  - o Administrazio eta diruzain batzordean parte hartu.
- Aurrekontuaren eta diruzaintzaren jarraipen zorrotza egin. Finantzazio iturriak sendotu.
  - o Hilean behin kontabilitatea eguneratu, fakturak egin, ordaindu eta diru mugimenduak eguneratu
  - o Zordunei eta hartzekodunei errepassoa, hiruhileka

<ul style="list-style-type: none"><li>○ Aurrekontu ahalik eta orekatua egin. defizita saihesteko finantzazio iturriak ziurtatu, eta gastuak eta proiektua baliabideetara egokitu</li><li>○ Prezioen eguneraketa burutu 2021ko irailerako.</li><li>○ Onura publikoko elkarte izendapena tramitatu EHBE-arekin koordinatuta</li><li>○ Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko udalarekin bilerak egin hitzarmenak egokitu 2020rako</li><li>- Herrigintzan ekarpena egin bertsolaritzatik, ikuspegi propioa emanez.<ul style="list-style-type: none"><li>○ Euskalgintza foroetan parte hartu, erabaki kolektiboen parte izan</li><li>○ Arabako Foru Aldundiaren Euskararen aholku batzorde eta Gasteizko udalaren Kultura eta Euskara batzordeetan parte hartu ELKARTEA ordezkatu.</li></ul></li></ul>	
---	--

## KOMUNIKAZIOA

### 2021erako helburuak

- Herralde eta nazio mailako koordinazioa bermatu.
  - Barne komunikazioa: bazkideak informatu, komunitatea trinkotu eta parte hartzeko aukera eskaini.
  - Kanpo komunikazioa: elkartearen proiektu ezberdinez eta Arabako bertsolaritzaren mugimenduaz iraunkorki informatu gizartea.
1. Kudeaketa orokorra:
- Herralde eta nazio mailako koordinazioa bermatu:
    - o Komunikazio Saileko arduraduna izendatu eta zuzendaritzan bere parte hartzea bermatu.
    - o EHBeko komunikazio arduradun eta teknikariarekin koordinatu.
  - Barne komunikazioa: bazkideak informatu, komunitatea trinkotu eta parte hartzeko aukera eskaini:
    - o Batzar orokorra, emailez, albistea eta txartelarekin komunikatu.
    - o Emailez, bazkideak informatu astean behin agenda, albisteak.
    - o Berripapera 5 ale argitaratu (urtarrila, martxoa, ekaina, iraila, abendua). Bertso eskoletako ikasleei helarazi.
    - o Sare sozialak baliatu komunitatea harremanetan jartzeko sailekin elkarlanean.
    - o "Arabako bertso X" whatsapp taldea elikatu albisteekin, agenda eta beste edukiekin.
    - o 4na agerpen EHBeko Bertsozalea eta barne-orrian
  - Kanpo komunikazioa: elkartearen proiektu ezberdinez eta Arabako bertsolaritzaren mugimenduaz iraunkorki informatu gizartea:
    - o Herri mailako hedabideen datu-basea eguneratu eta iraunkorki informatu
    - o Orain arteko trukeko politikak mantendu egunkari (insertoa eta bannerrak) eta irratiekin (kuñak).
    - o WEB gunean: - 50-60 albiste argitaratu eta egitura baliatu egitasmoak komunikatzeko eta dagoen informazioa eguneratuta mantendu. - 15.000 bisita eta 5.000 bisitari lortu

- o ALEA aldizkarian 5-7 astetan behin kolaborazioa egin eta alea.eus-en gure albiste guztiak linkatu
  - o Sare sozialetan gure albisteak, gure agenda eta kanpotik ininteresgarriak izan daitezkenak zabaldu: 300-340 argitalpen
  - o Egitasmo berriak, egoerara egokituz
  - o bertsoa.eus-en Arabako txapelketarako proposamena egin eta hedapenerako egokiak diren plazako saioen berri eman 10-15 saio inguru grabatzeko
  - o Periodikoki bertso agenda bidali MAILING bidez bazkideak, hedabideak, ikastetxeak eta erakundeak
- **BALORAZIOA:** Komunikazio arduraduna azken unean lanean hasi zen eta ezin zuen azken zuzendaritza batzordeetan parte hartu.

HEZKUNTZA	BALORAZIOA
<p><b>2021rako helburuak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso-eskoletako ikasleen arteko harremana eta plazaratzea zaindu</li> <li>- Irakasleen formazioa eta erreleboa. Materiala.</li> <li>- Zubiak: Bertso eskolak sortzeko lan intentsiboa. Amuarekin arrantzatu arrastrerik gabe.</li> <li>- Gazteak Bertso mugimendura erakartzeko zirkuituak aztertu (Ikerkuntzarekin elkarlanean)</li> </ul> <p>1. Kudeaketa orokorra</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarrizko ezagutza herrialdean bermatzeko 7 eskualdetan lan egin hezkuntza, aisialdia eta bertso-eskoletan</li> </ul>	<p>Aurreko urtearen ondorioak oraindik nabariak izan dira eta nolabaiteko desaktibazioa nabari da ikasleen artean. Gazteengan bereziki nabari da. Zubi lana egiteko ekintzetan ere ezina izan da protagonista gazteen kasuan. Haurren taldeak aldiz oso motibatuta daude, bertso-eskola arnasmune bat izan delako. Irakasleei dagokionez, urrirarte talde indartsua egon da baino baja dezente egon dira. Irakasleak beharko dira. Gazteak mugimendura ekartzeko aparteko azterketarik ez da egon, genituenei eustearekin nahiko lan izan dugu. BAINO GAZTEAK BEHAR DITUGU</p>

<ul style="list-style-type: none"> <li>o 47 ikastetxetan bertsolaritzaren oinarriko ezagutza bermatu LH eta 16 ikastetxetan DBHn</li> <li>o Langileen bilerak ostiraletan, hamabostero, 2-3 ordukoak formazioa, materialgintza eta koordinazioa tartekatuz.</li> <li>o Ikasturteko egitasmoa adostu eskualde eta herrialde mailan</li> <li>o Eskualdeetako irakasle-arduradunak bertso eskolarekin koordinatu</li> <li>o Eskualdeetako erakunde eta eragileekin zuzeneko harremana izan</li> </ul> <p>- Bertso eskolak mantendu, ordezkapen naturala ziurtatu eta indarberritu 2018ko irailean</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Bertso eskolen batzarra bildu 5 aldiz: Iraila, azaroa, Abendua, otsaila eta ekaina. Batzordea ongi dinamizatu ahaldua eta partehartzailea izan dadin.</li> <li>o Irakasleei formazioa eta bitartekoak eskaini</li> <li>o Izena emateko aurrekanpaina eskolartekoarekin batera. Kanpaina arrunta irailean. Klase pasa 10 ikastetxetan 2021eko irailean.</li> <li>o Eskualdekako koordinazioa eta jarraipena</li> </ul> <p>- Gazte berriak plazarako trebatu, kolektibo bezala indartu eta motibatatu</p>	<p>Gasteizen eskualdeko arduraduna falta dela eta ikastetxetik kanpobertso jarduna bermatzeko lanak ez du funtzionatu. Ahalegin gehiago jarri behar da honetan eta arduradun bat behar da horretarako.</p> <p>Barnetegiei dagokionez, Gorbeialdean bakarrik egin zen eta oso ongi atera zen dena. Aiaraldean ez zen interesik egon.</p> <p>Aisialdiari dagokionez, eskualde mailako idatzizko topaketak aipatzea merezi du, bereziki ondo atera baitziren eta parte hartzea oso arrakastatsua izan baitzen. Bapatean aritzera ere animatu ziren batzuk.</p> <p>Bertsoa Bizi Gazte egitasmoari dagokionez, ahul xamarra izan da orokorrean guztia. Parte hartzea oso eskasa eta motibazioa txikia baita ere. Buelta sakona eman behar zaio egitasmo honi.</p> <p>Bertso-eskolarako zuzeneko zubiak izango diren aukera gertuko eta errealak eskaini haur eta gazteei. Helburu hau lortzea ez da posible izan. AMPA desaktibatik ibili dira eta ez dugu ikaslerik izan. BBG tailerrak eta klase pasak ere ezin izan dira egin.</p>
---	--

- o gaztetxoek taldeak dauden Herri bakoitzean bertso-eskolarekin elkarlanean plaza bana sortu gutxienez eskolartekoan hasi berriak diren gazteek lehen saioak egin ditzaten (LEGUTIO, ARAMAIO, AGURAIN, ZALDUONDO eta GASTEIZ).
  - o GAZTEENTZAKO "SARIKETA" erduari ta formatuari buruz hausnartu eta ANTOLATZEN lagundu 2021an
  - o Topaketa/trebakuntza asteburu bat egin gaztekin Udaberrian, eskolartekoaren aurretik. MANURGAN
  - Transmisioan egiten den lanaren Komunikazioa modu eraginkorrean egin
    - o BERTSO BILDUMAK egin eskualdeka. Otsaila amaierarako bertsoak eta argazkiak eta maketazioa martxoan burutu
    - o Berripapera urtean 5 ale eta 6 Urtekari mantendu eta zabaldu bertso-eskoletako ikasleen artean. Datu basea eguneratu
    - o WEB gunea eta sare sozialak : ekintza zehatzen zabalkundea egin. Eta kurtso hasiera eta amaieran aparteko komunikazioa burutu, datuak eskainiz
2. Gasteiz Bertsolari
- Hezkuntza arautuko lanari jarraipena eman, haur, gazte eta helduak bertso eskoletara erakarriz



- Barnetegiak 2 eskualdetan aurrera ateratzen saiatu eskaintza errealitatera egokituz, eta beste eskualdeetako haur eta gazteei ireki plaza libreak dauden guztietan.
- Eskolartekoa eskualde mailan haurren idatzizko topaketak burutu, presentzialki ahal bada, (6 eskualde) bertso-eskolen parte hartzea ziurtatu bat-batean
- Eskolartekoa herrialde mailan antolatu. Sari bateratua finalistentzat.
- 14-18 urteko eskolarteko txapelketarako Arabako gazteak zaindu eta babestu. Euskal herriko txapelketako finalera doazenei behar besteko arreta eskaini. Bertso-eskolaz kanpo entrenamenduak behar izanez gero antolatu

### 3. Aisialdia:

- Bertsolaritza aisialdirako gozamen eremu bezala eskaini eta zabaldu Arabako haur eta gazteen artean
  - Barnetegiak 2 eskualdetan aurrera ateratzen saiatu eskaintza errealitatera egokituz, eta beste eskualdeetako haur eta gazteei ireki plaza libreak dauden guztietan.

- Eskolartekoa eskualde mailan hurren idatzizko topaketak burutu, presentzialki ahal bada, (6 eskualde) bertso-eskolen parte hartzea ziurtatu bat-batean
- Eskolartekoa herrialde mailan antolatu. Sari bateratua finalistentzat.
- 14-18 urteko eskolarteko txapelketarako Arabako gazteak zaindu eta babestu. Euskal herriko txapelketako finalera doazenei behar besteko arreta eskaini. Bertso-eskolaz kanpo entrenamenduak behar izanez gero antolatu

#### 4. Hezkuntza arautua.

- Gu ere bertsolari programa arrakastaz eta kalitatez garatu oinarriko ezagutza bermatuz 10-12 urteko arabar gaztetxoan artean
  - 47 ikastetxetan klaseak 15ero 10-12 urteko hurren artean. Pandemiagatik galdutako ikastetxeak berreskuratzeko saiakera.
  - Tailer laburrak eskaini 7 ikastetxetan. Añana eta Gasteizen
  - 16 ikastetxetan tailer laburrak eman 13-16 urteko gazteekin

- Ikasgelen arteko harremana lantzeko topaketa edo ekimenak (bideo-kopla lehiaketa)
- Bertsoikasgela.eus elikatzekeo materialgintzan parte hartu

#### 5. Bertsoa Bizi Gazte

- Gazteak bertso mundura erakarri, bertsozaletu eta bertso eskolarako zubiak eraiki
  - Lehiaketa berritua gauzatu, TIKTOK erako bideo-esketx edo bideoklipak, 14 talderen parte hartzea eta 5 eskualdeetako gazteen presentzia bermatu
  - Sare sozialetan eta web gunean lehiaketaren berri eman.
  - Gazte- kultur eragile ezberdinekin harremana eta hausnarketa konpartitua burutu, gazteentzako bertso zirkuitu berriak ezagutu eta sortzeko.
  - Bertsoa bizi gazte jaia gazteen eskolartekoarekin batera Maiatza erdialdean

#### 6. Arabako bertso-eskolak

- Bertso-eskolarako zuzeneko zubiak izango diren aukera gertuko eta errealak eskaini haur eta gazteei
  - Bertso eskola egitura izan baino haurrik ez duten herrietan ikastetxeetan eskolaz kanpoko ekintza

bezala eskaini dezaten beharrezko kudeaketa lana egin AMPEKIN. Haurrek eskura izan dezaten.

- o Bertsoa bizi gazte 5 tailer bermatu eskola ordutegitik kanpo 2020ko udaberrian
- o Bigarren hezkuntzan gurekin ari diren ikastetxeetan bapateko taldeen eskaintza egin 2021-2022 ikasturterako. Klase pasa egin gazteak animatzeko finantzatzeko prest dauden 5 ikastetxetan
- Bertso-eskolak indartu, harremanak landu, plazaratzea zaindu eta jende berria erakarri
  - o Daudenak mantendu eta Gazte taldeen ordezkapen naturala eta indartzea bermatu
  - o Aurrera eraman 6 eskualdetako 10 herritan
  - o Irakasleen inplikazioa eta presentzia eskolaz kanpoko jardueretan, lanaldia egokituz
  - o ARABA BERTSOZALE Udaberriko proiektua bertso-eskoletako ikasleak plazaratzeko eta bertso-eskolen arteko harremanak lantzeko.
  - o kontratuak eta baldintza egokiak ziurtatu urritik ekainera

<b>SUSTAPENA</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p><b>2021rako helburu orokorrak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrietako bertsozale taldeak egituratu eta zaindu komunitate horiek iraunkorrak izan daitezen.</li> <li>- Bertsolariak eta bertsozaleak aktibatu.</li> <li>- Bertso saio, elkarlan eta plaza berriak egon daitezen eragin.</li> <li>- Bertsozale Elkarteak eta herrialdeko bertso mugimendua prestigiatu, ezagutzera eman.</li> </ul> <p>1. Kudeaketa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatzea</li> <li>- LANKUekin sustapen elkarlana</li> <li>- Bertso-saioen jarraipena egitea</li> <li>- Arabako bertsolaritzaren hedapena bideratzea</li> <li>- Saioen exekuziorako behar diren baliabideak lortzea</li> <li>- Gasteizko jaietako/ Gasteizko udalaren kultur programan egitarauan bertsolaritzaren presentzia bermatzea</li> </ul> <p>2. Gasteiz Bertsozale</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gasteizen bertsolaritzak dinamika propioa eduki dezan eragitea</li> <li>- Formatu ezberdinetako saioak antolatzea, Gasteizko bertsozaleak aktibatu eta Gasteiz bertsozaleen jarraitzea.</li> </ul>	<p>Helburuak bete dira, eta bertsolari eta bertsozaleak ez desaktibatzea lortu dugu naiz eta egoera ez den guztiz normala edo baikorra. Egoera orokorrak ere eragin digu. Plaza berriak sortu dira eta elkarlan politikak. Antolatu diren gauzak ongi atera dira eta plaza berreskuratzeko ekarpena izan dira. Binakakoa egitea aziertoa izan da, baino batetik irten eta bestean sartu gara. Bertsolariek ez duten hasieran argi baibno balorazio oso ona egin dute. Elkartearantzako ere apuesta ongi atera da.</p> <p>Hedapenaren kasuan, materiala bideratziari dagokionez, abuztuan azken unean grabatzaile gabe geratu ginen eta saio batzuen fitxak faltatu izan dira.</p> <p>Jaietako programa eta udaletako kultura programetan muturra sartzea lortu dugu eta bertso saio batzuk antolatu genituen.</p> <p>Gasteizen bertsolaritzak dinamika propioa hartzea ez zen erabat lortu. Orokorrean gizartea nahiko desaktibatuz ibili da eta honek zuzenean eragiten du jardueren antolaketan. Jai batzordea,</p>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolari, epaile eta gai-jartzaileentzat formakuntza gauzatzea</li> <li>- Gasteizen bertsogintzarekin zerikusia duena jasotzea</li> <li>- Gasteiz Bertsozale egitasmoa iragartzea eta hedatzea</li> </ul> <p>3. Araba Bertsozale</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Araban bertsolaritza leku berrietara zabaldu dadin eta dinamika propioa eduki dezan eragin</li> <li>- Bertsogintza aktibatzea formatu berriak sortuz eta bertsolarien arteko elkarlana eta konplizitatea landuz</li> <li>- Saio gutxi egiten diren eskualdeetara bertsolaritza hurbiltzea eta bertako agenteak aktibatzea</li> <li>- Bertsogintza osasuntsu mantentzea, txapelketarik gabeko urtean ere saio formalak antolatuz eta kalitatezko plazak sortuz</li> <li>- Araban bertsogintzarekin zerikusia duena jasotzea</li> <li>- Araba Bertsozale egitasmoa iragartzea eta hedatzea</li> </ul> <p>4. 2021eko Arabako Binakako Bertsolari Txapelketa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsozale elkarteak egiaztatzea.</li> <li>- Txapelketaren bidez Arabako bertsolaritzarentzat oihartzuna lortzea.</li> <li>- Parte hartzaileen motibazio, banakako eta binakako lanketa eta grina sustatu.</li> </ul>	<p>elkarte, euskaltegi eta abarrak ez dira ezer antolatzen ari eta horrek guri ere eragin digu.</p> <p>Bertso eskolen kasuan ere nolabaiteko desmotibazioa sumatu da. Gazteen galera egoerak eragindakoa izan da eta aktibatzeke ahalegina egin da. Espero da txapelketa motibazio pizgarri izatea.</p> <p>Binakako Txapelketaren antolaketatik ia zuzenean pasa ginen 2022ko Banakako Txapelketa antolatzera. Prestaketa lanak burutu dira erlojuaren kontra izan de arren.</p>
--	--

- Bertsolarien eta bertso-eskolen arteko harremana bultzatzea eta baita belaunaldi ezberdinen artekoa ere.
- Txapelketarekin zerikusia duena jasotzea.

#### 5. 2020ko Arabako Kuadrilla Arteko Txapelketa

- Kadrilartekoa kokatzea
- Bertso-eskolak aktibatzea
- Kantatuko duten taldeak zehaztea
- Antolakuntza martxan ipintzea

#### Kudeaketa orokorra

- Herrialdeko ekitaldien dokumentazioa bildu eta Xenpelarrera igorri
  - o Elkarateak kudeatutako saioen eta bestelako saioen grabazioak: audioa (%18-22=25 saio ), bideoak (%14-16 = 20 saio ) eta fitxak
  - o Ekitaldi garrantzitsuenen dokumentazio grafikoa bildu: argazkiak (%35=60 saio), kartelak (%60-70=110 saio )
  - o Arabako saioen datu bilketa egin agendarako
  - o Elkarateak antolatutako aldizkako ekitaldien informazioa arretaz bildu
  - o Prentsa lokalaren hustuketa: Interneten (ALEA, DNA, ELCORREO)
- Haitzondo datu basea eguneratu

<ul style="list-style-type: none"><li>○ Arabako bertsogintzaren fitxak eguneratuta mantendu eta behar direnak sortu edo ezabatu</li><li>- Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatu<ul style="list-style-type: none"><li>○ Arabako bertsogintzaren fitxak eguneratuta mantendu eta behar direnak sortu edo ezabatu</li><li>○ EHBEko Ikerkuntza Batzordean parte hartu</li><li>○ Nazio mailako ekimenak Araban antolatzen direnean koordinazio eta behar bada antolakuntza bermatu.</li><li>○ Ikerkuntza Saileko arduradun bat Arabako zuzendaritzan bermatu</li></ul></li><li>- Gazteak Bertso mugimendura erakartzeko zirkuituak aztertu (Ikerkuntzarekin elkarlanean)<ul style="list-style-type: none"><li>○ azken urteetan ze gazte eragilek antolatu dituzte bertso saio eta kultur ekitaldiak ikertu.</li><li>○ Eragile gazteekin gogoeta jardunaldia bat antolatu.</li></ul></li></ul>	
---	--



<b>IKERKUNTZA</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p><b>2021rako helburuak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Datu eta materialaren bilketa kopuruei eutsi</li> <li>- Gazteak Bertso mugimendura erakartzeko zirkuituak aztertu (Ikerkuntzarekin elkarlanean)</li> </ul>	<p>Eragileak kuantifikatzea falta bada ere egitekoak bete dira. Orokorrean betiko martxan bildu da. Egoitzekin batera grabaketa eta fitxa egiten ibiliko den beste kideren bat beharko da</p>

## BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA

Urterako helburuak	BALORAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dauden Bertsu eskolak indartu eta berri batzuk sortzen entseatu.</li> <li>- Hezkuntza arautuan (Seaskako ikastoletan) eta adar elebidunean klaseak ematen jarraitu.</li> <li>- Bertsu eskolen inguruko jarduerak antolatzen jarraitu.</li> <li>- Bertsulariak Ikastoletan - Bertsu Topaketak - Bertsulari Tiki Egunak – Eskola Elebidunen Besta Egunak – Gazteen Xapelgoa – Bertsu Eskolen Eguna – Haizea Dator.</li> <li>- Helduen Bertsu Eskolak bultzatu.</li> <li>- Iaz hasitako Adi Adin proiektua indartu eta zabaldu.</li> <li>- Bertsularitzaren eta Bertsu saioen sustapena.</li> <li>- Hernandorena Bertso Sariketa antolatu.</li> <li>- VI. XILABA Xapelketa antoaltu.</li> <li>- Hedapenean eta Komunikazioan indar berezi bat egin.</li> <li>- Punttuka irrati saioarekin jarraitu (Euskal Irratien hitzarmenaren barnean)</li> <li>- Saioen grabaketak eta bilketak egiten jarraitu.</li> <li>- Elkarrearen sostenigarritasun ekonomikoa aztertu eta aterabideak atxeman.</li> <li>- Eragile ezberdinekin harremanak egonkortu eta indartu. Haiekin hitzarmen ezberdinak sinatzen jarraitzeko eta berriak lortzeko.</li> <li>- Bertsu Eskolak dauden herrietako Herriko Etxeetako agintariekin harremank indartu eta posible bada hainbat hitzarmen lotu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da. Taldeak mantendu dira eta haur batzuk gehiago daude</li> <li>- Egin da</li> <li>-</li> <li>- Covid 19aren inguruko neurriak baldintzatuta ez dira denak ospatu. Horietatik Bertsulariak ikastoletan, Gazteen Xapelgoa eta Haize Dator (saio bat edo beste) ospatu dira, beste ekimenak ez.</li> <li>- Helduen Bertsu Eskolak bultzatu dira baina oraingoz bakarra lortu da.</li> <li>- Adin Adin ezin izan da gauzatu.</li> <li>- Egin da</li> <li>- Saio bateko Sariketa antolatu da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Martxan</li> <li>- Martxan</li> <li>- Batzutan egin da</li> <li>-</li> </ul>

### Zuzendaritza Batzordea:

- Lehendakaria: Xumai MURUA BERRA
- Idazkaria: Marikarmen ALBIZU ETXABE
- Diruzaina: Oihan DAGUERRE

**Eragilea:** Marikarmen ALBIZU ETXABE

**Gainerako kideak:** Eneritz Zabaleta, Ortzi Idoate, Odei Barroso Gomila, Aritz Bidegain, Karine Etxeberri, Amets Arzallus Antia eta Aitor Servier

<b>IDAZKARITZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p>Zuzendaritza: Zuzendaritza Batzordea: Lehendakaria.- Xumai Murua Berra Idazkaria.- Marikarmen Albizu Etxabe Diruzaina.- Oihan Daguerre Beste kideak: Eneritz Zabaleta, Odei barroso, Amets Arzallus Antia, Aritz Bidegain, Karine Etxeberri, Aitor Servier eta Ortzi Idoate.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza eta sailen funtzionamendua bermatu:</li> <li>- bilkuren maiztasuna bermatu.</li> <li>- Zuzendaritza kideen informazio bermatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> </ul>
<p>Eguneroko administrazio zereginak bete. Elkartearen sostengarritasun ekonomikoa aztertu eta aterabideak landu. Erakunde (EEP, Hirigune Elkargoa, EKE, Kontseilu Orokorra eta herriko-etxeak) hitzarmenak landu. Langileen kontratuak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Usaiako administrazio zereginak bete.</li> <li>- Aitzinkondua kudeatu: Gure eremuan eraman behar den kontabilitatea segurtatu, EHBE baitan kontuak eraman.</li> <li>- Dauden diru iturriak segurtatu eta berriak atxeman.</li> <li>- Urteroko diru laguntzez gain veste finantziario motak aztertu</li> <li>- Langileen kontratuak Bertsularien Lagunak elkartera pasatzeko abiatutako bideari jarraipena eman.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da (Covid laguntzak eta Kontratuen laguntzak)</li> <li>- Egin da</li> </ul>

--	--	--

<b>HEZKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p>- Dauden Bertsu eskolak indartu eta berri batzuk sortzen entseatu.</p> <p>- Hezkuntza arautuan (Seaskako ikastoletan) eta adar elebidunean klaseak ematen jarraitu. Kolegiotan era klaseak emanen dira.</p> <p>- Bertsu eskolen inguruko jarduerak antolatzen jarraitu.</p> <p>Bertsulariak Ikastoletan - Bertsu Topaketak - Bertsulari Ttiki Egunak - Eskola Elebidunen Besta Egunak - Gazteen Xapelgoa - Bertsu Eskolen Eguna - Haizea Dator</p>	<p><b>Orain arteko bertso eskoletako taldeei erantzun eta berriak sortu.</b></p> <p><b>2020-2021:</b> Haurren Bertsu Eskolak 17 herrietan, 31 talde eta 224 ikasle. Orokorki, ikasturtean 1256 oren emanen dira bertsu eskoletan.</p> <p><b>Bertso-eskolen dinamika laguntzeko ekintza osagarriak antolatzea:</b></p> <p><b>Xapelgoa (Eskolartekoa)</b></p> <p>Kanporaketak, Oxtikenian (Senpere) ekainaren 19 eta Finala, ekainaren 26ean Larraldean (Senpere).</p> <p><b>Bertsu topaketak</b></p> <p>Covid 19ak baldintzatuak ez dira ospatuko.</p> <p><b>Bertsu-eskolen besta:</b> Covid 19ak baldintzatuak ez da ospatuko.</p> <p><b>Haizea Dator</b></p> <p>8 Saio ospatuko dira</p> <p>Seaskan ematen den bertsu erakaskuntza jarraitu. Ikastolen Konfederazioarekin urteroko hitzarmena sinatu.</p> <p>Ekintza osagarriak antolatu (bertsulariak ikastoletarat, bertsulari ttipi eguna...).</p> <p>Ikastoletatik bertsu eskolarteko zubi lana egiten jarraitu.</p> <p><b>2020-2021:</b> 60 ikastoletan. 837 haur.</p>	<p>- Egin da</p> <p>- Egin da</p> <p>- Egin da</p> <p>- Egin da</p> <p>- Covid 19ak baldintzatuak ez dira ospatu.</p> <p>- Covid 19ak baldintzatuak ez da ospatu.</p> <p>- Covid 19ak baldintzatuak gehienak ez dira ospatu. Urte bukaeran bi egin dira.</p>

	<p><b>Bertsulari Tfiki Egunak</b> Covid 19ak baldintzatuak ez dira ospatuko.</p> <p><b>Bertsulariak eskoletarat</b> Urtero egiten den gisan, BERTSULARIEN LAGUNAK eta Seaskak elkarlanean «Bertsulariak Ikastoletarat» ekimena antolatzen dugu. Ikastola bakoitzak duen azken bertsularitza kurtsoan burutu ohi da ekimen hau. Bertsu eskoletan ari diren gazteek parte hartzen dute bertsu saioan eta Ikastolako haurrak dira ikusleak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Orotarat, 59 eskola eta kolegio elebidunetan, haur eta gazteek ukanen dute bertsularitzari buruzko ikastaroa.</li> <li>- 2021. urtean Bertsulari Bat klasean proiektuan, ikastaroetan zehar ikasleek prestatutako bertsuekin eta bertso saio batekin, maiatzean bi Besta eginen dira Donibane Lohizunen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Covid 19ak baldintzatuak ez dira ospatu.</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Covid 19ak baldintzatuak ez dira ospatu.</li> </ul>
--	---	---

<b>IKERKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
Bertsu saioen grabaketa eta bilketaren jarraipena egin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2021ean ikerkuntza sailak aitzineko urteetako proiektuei segida ematea du helburu.</li> <li>- Euskal Herriko Bertsozale Elkartek duen "plaza datu basea" baliatuko da Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoan antolatzen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> </ul>

	<p>diren bertsu ekitaldiak artxibatzeko: horretarako antolatzen diren saioen grabaketa egiten jarraituko da.</p> <p>- Xenpelarreko datu basea eguneratze lanetan jarraituko da.</p>	- Ez da egin
--	---	--------------

## SUSTAPENA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
Bertsularitzaren eta Bertsu saioen sustapena.	<p>- 2021ean ere, elkarteak bertsu saioen sustatze lana hiru moldetan egingen du: bertze elkarteek antolatu saioak diruz lagunduz, sustatzaile izanez, edota antolatzaile nagusi izanez.</p> <p>- 2021ean ere, EK Eren ekarpen ekonomikoari esker, antolatzaile andana diruz laguntzen ahalko dugu. Oraindik aitzina, diru laguntza eskaera egiteko webgunetik pasa beharko da, hartan atzematen baitira ere galdea egiteko formularioa eta abar.</p>	<p>- Egin da</p> <p>- Covid 19aren baldintzatuta saioa gutxiago lagundu dira. Guztira 20</p>
Aitor Sarasua Bertsupaper Lehiaketa	Otsailean bertsupaper lehiaketa ospatuko da. Gazteentzat eta Helduentzat	- Egin da. Arrakastatsua izan da. Gazteen sailan 21 lan aurkeztu dira eta Helduen sailan berriz 27
Hernandorena Bertsu Sariketa.	Eskolarteko ibilbidetik, plazako ibilbidera jauzia ematen ari diren 25 urte arteko gazteei, beren burua ezagutarazteko parada ematea da xedea. Hiru Kanporaketa eta Finala ospatuko dira.	- Covid 19aren baldintzatuta, egun bateko saio ospatu da
Helduen bertsu-eskolak segurtatzea.	Transmisio sailarekin batera indar berezi bat egiten ari gara azken urte hauetan Helduen Bertsu eskolak bultzatzeko. 2020an ere ahal dugun laguntza guzia	- Ez da guazatu

	eskainiko diegu talde ezberdinei, beren gogo eta erritmoan bertsutan aritu daitezzen.	
VI. XILABA Xapelketa.	<p>2021 an bigarren aldiz iaz amaitu ezinin gelditu zen gure eremuko VI. XILABA Xapelketa ospatuko dugu, eta molde egoki batean gauzatzeko arlo ezberdinetan lanean hasiak gara jadanik.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- diru-iturriak</li> <li>- epaile, gai-emaile, gai-egile taldeak osatzeko</li> <li>- komunikaziorako</li> <li>- Partehartzaileen izenak bildu</li> <li>- Formatua</li> <li>- Lekuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurten gauzatu da.</li> <li>- 24 bertsularik parte hartu dute.</li> <li>- Gai emaile taldeak lan handia egin du eta Epaile taldek ere ongi erantzun du,</li> <li>- 4 kanporaketa, 3 Finalerdi eta Finala Donibane Lohizuneko Jai Alai frontoian.</li> </ul>
Epaile eta gai-jartzaile taldeei jarraipena egitea eta baliabideak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeak indartu eta egonkortzeko apustuak egitea, jende berria erakarritz.</li> <li>- Formakuntza jarraitua eta baliabideak eskaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Martxan da</li> </ul>

## KOMUNIKAZIOA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
Barne komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkide eta bertsu eskolako gurasoekiko harremana landu:</li> <li>- Bertsozalean parte hartu.</li> <li>- EHBE elkarteko barne komunikazioa baliatu: barne orria, web orria.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> </ul>

Kanpo komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteko jardunaren berri eman: Transmisio ekintza osagarriak. Haizea Dator. Sustapen ekintzak: Aitor Sarasua Bertsupaper lehiaketa, Hernandorena, XILABA Xapelketa. Biltzar nagusien Berri eman.</li> <li>- Punttuka irrati saioa astero.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li>   <li>- Egin da</li> </ul>
--------------------	---	--

## BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

<b>Urterako helburuak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p>Elkartearen misioa da bertsolaritzaren ekosistema osoa, eskualdez eskualde, etengabe zaintzeko, elikatzeko eta garatzeko bideak edota baliabideak eskaintzea eta egikaritzea, lekuan lekuko errealitateari erreparatuz.</p> <p>Horretarako, urtero egokitu eta garatuz doan egitasmoa gauzatuko da. Iazko urtearen ondoren, proiektua lehengoratu eta egoerara egokituko da. Aurten, gainera, ohiko jarduera eta proiektuak gauzatzeaz gain, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urtea izango da batetik, eta bestetik gazteen plazaratzea laguntzeko egitasmo berri bat ipiniko ditugu martxan.</p>	

### Zuzendaritza Batzordea:

- Lehendakaria: Belate Olabarria
- Idazkaria: Goizalde Atxutegi
- Diruzaina: Miren Itziar Basterretxea



**Eskualdeetan banatutako arduradunak (ez sailka):** Ainhoa Markinez, Asier Galarza, Belate Olabarria, Beñat Vidal, Eneko Abasolo, Idoia Anzorandia

**Lantaldeetik:** Ander Elortegi Garatea eta Ione Narbaiza Gallastegi

<b>IDAZKARITZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
Zuzendaritza Batzordearen indartzea. Zuzendaritzetan lantzeko edukiak eta prozedurak zehaztea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza kide berriekin osatzea (lurraldetasuna, belaunaldiartekotasuna, generoa eta ezagutza kontutan hartuta).</li> <li>- Zuzendaritzan gai estrategiakoak lantzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da zuzendaritza osatzeko ahaleginik egin</li> <li>- Egin da</li> </ul>
Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko partaidetza prozesuan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herri mailan egingo den antolaketa eta funtzionamenduari buruzko partaidetza prozesuan parte hartzea zuzendaritzak, lantaldeak eta talde teknikoek.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> </ul>
Sostengarritasun ekonomikoa lortzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Finantzazio bide berriak lantzea.</li> <li>- Aurrekontuen jarraipen zorrotza egitea, negozio bide berriak aztertzea eta tarifak berrikustea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdizka. Ez da bide berriak landu, baina EJ-tik sarrerak asko handitu dira, eta BFArekin txapelketa urte bitan finantzatzea lortu da.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa pribatuen publizitate aukerak aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Txapelketari lotuta egin da</li> </ul>
Langileen etengabeko formazioa bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleen mintegiak erabiltzea barne formaziorako, etenbariko hobekuntza.</li> <li>- Kanpo formaziorako aukerak eskaintzea.</li> <li>- Hasiberriei zuzendutako formazioa diseinatzen jarraitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da, formazio gogoetatsuea.</li> <li>- Erdizka (Huheziko formazio jaso dute 6 irakaslek, baina ez da bestelako formaziorik egin lan taldean. )</li> <li>- Ez da egin</li> </ul>
Feminismoa, zehar-lerro	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera denetan feminismoa zehar-lerro moduan txertatzea.</li> <li>- Bizkaiko bertso mugimenduko emakumeen topaketa sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Ez da egin</li> </ul>

<b>HEZKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
Eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kudeaketan jarraipenerako prozedura egokiak diseinatu eta harremanak zaintzea.</li> <li>- Metodologiaren azterketarekin jarraitu, proposamen didaktikoa lantzen jarraitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdizka. Ez da metodologia bat zehaztu, baina ebaluazioa hobetzeko ikastetxeekin harreman estutu da.</li> <li>- Egin da</li> </ul>
Ekintza osagarriak sustatzea (aisialdia eta zubi-lana)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekintza osagarriak bultzatzen jarraitzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso saioak ikastetxeetan</li> <li>- Kantaldiak</li> <li>- Ikastetxeen arteko topaketak</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin dira</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso barnetegiak: negukoa eta udakoa</li> </ul>	
Eskualdeetako plangintzari jarraipena ematea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualdeetara/bertso eskoletara hurreratzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Urteko egitasmoa konpartitzea eta osatzea</li> <li>- Zubi lanean eragitea</li> </ul> </li> <li>- Eskualdeetako diagnosia egitea eta eragiteko guneak identifikatzea</li> <li>- Bat-bateko taldeen gaineko (hezkuntza arautua eta bertso-eskolaren arteko zubia) etengabeko hausnarketa eta egokitzapena egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Bertso eskolekin batzarrak egin dira, eta eskualdeko eragiletza egin da, baina ez da diagnostikorik egin.</li> <li>- Bat-bateko taldeekin beharrean jarraitu dugu, baina ez da egokitzapenik egin.</li> </ul>

## IKERKUNTZA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
Bilketa lana sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilketa sustatzea eta jasotakoa Xenpelarrera bideratzea. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gutxieneko grabazioak egon daitezen, biltzaile sarea motibatzea.</li> <li>- Grabazioak jasotzearen garrantziaz jabetzeko informazioa ematea.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdizka. Bertso eskolekin egindako rondan azaldu da gaia, jendea animatu dadin.</li> </ul>
Haitzondo fitxak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bereziki Txapelketari lotuta, Haitzondo fitxak sortzea eta eguneratzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> </ul>

<b>SUSTAPENA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa egitea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Txapelketaren beraren helburuak zaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> </ul>
Gai-jartzailletza eta epailletza sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde teknikoen osaketan laguntzea.</li> <li>- Talde bien arteko koordinazioa sustatzea.</li> <li>- Txapelketako kontestuan beharrezko azpiegitura eta babesa eskaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Ez da lortu. Elkartetik luzatu da proposamena, baina ez dira batu.</li> <li>- Egin da</li> </ul>
Gazteen plazaratzea sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gazteen plazaratzerako aukerak eskaintzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolatik plazara</li> <li>- Eskolartekoa</li> <li>- BBK sariketa</li> <li>- Plazara! → BERRIA</li> </ul> </li> <li>- Gazteen formazioan laguntzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sakontze Bertso Eskola, gazteentzako bertso eskola osagarria</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Egin da</li> <li>- Ez da sakontze egin, zalantzak sortzen ditu formatuak.</li> </ul>

## KOMUNIKAZIOA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
Barne komunikazioa lantzea	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zuzendaritza eta lan-taldearen arteko etengabeko informazioa bideak sustatzea.</li><li>- Bazkideekin izan beharreko komunikazioa zaintzea.</li><li>- Kanpo komunikazioa antolatzea: zer komunikatu, noiz komunikatu, nori komunikatu eta zelan komunikatu zehaztea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Erdizka. Ez da modu sistematizatuan egin.</li><li>- Erdizka. Emailerik komunikazioa handitzearen beharra azpimarratu da, eta pausuak eman dira bider horretan.</li><li>- Erdizka egin da.</li></ul>

## GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Urterako helburuak	BALORAZIOA
<p>2021 zalantza askoko urtea izango da, osasun krisiaren unean uneko egoerak asko baldintza dezakeelako. Dena dela, hezkuntzako proiektuaren kalitatean eta plazako jardunean jarri nahiko genituzke begiak, eta biei ala biei gertuko jarraipena egin. Honekin batera elkarteko funtzionamenduaren parte-hartze prozesua behar bezala eraman nahi genuke aurrera, beharrezko aldaketak egiteko.</p> <p>Zuzendaritza Batzorde berri bat izango dugu 2021ean, eta erronka izango da lana banaketa egin eta funtzionamendu egoki bat bilatzea.</p>	<p>2021erako jarritako helburu nagusiak bete ditugula esan genezake. Izan ere, hezkuntzako proiektuan aurrera pausu handiak eman ditugu berrikuntzari dagokionez, eta lanerako ohitura berriak sortu ditugu.</p> <p>Bestalde, Zuzendaritza Batzorde berri bat aurkitu dugu funtzionamendu egoki bat, eta kidei berriak eroso aritzeko gune bat eraiki dugu.</p>

### Zuzendaritza Batzordea:

- Lehendakaria: Asier Azpiroz
- Diruzaina: Maite Sukia / Oihana Aranguren

**Eragilea:** Eneritz Artetxe

### Arduradunak:

Sustapena: Ane Zuazubiskar / Ane Beloki

Hezkuntza: Iñaki Gurrutxaga (irakasleen ordezkaria), Unai Mendizabal

Bertso-eskolak: Asier Azpiroz, Aitor Urbieta

**Gainerako kideak:** Axier Iriondo, Joxe Mari Altuna

## IDAZKARITZA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
<p><b>Zuzendaritza:</b> Funtzionamendua</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde berriaren egonkortzea.</li> <li>- Batzordekide berrien arteko lan banaketa.</li> <li>- Funtzionamendu eraginkor bat adostea.</li> <li>- Bere funtzioetarako ahalduntzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ardura eta lan banaketa egin dugu Zuzendaritza Batzordean, eta taldearen funtzionamendua adostu dugu. Lan talde txikien martxa adostea falta izan zaigu.</li> </ul>
<p><b>Gogoeta estrategikoa:</b> Funtzionamenduaren parte-hartze prozesua behar bezala egitea eta lan moduak egokitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gipuzkoako gune guztietan diagnostikoak egitea.</li> <li>- Diagnostikoetan ateratako erronkei erantzuteko ekintza plana osatzea eta martxan jartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gipuzkoako gune guztietan landu dugu parte hartze prozesua: Zuzendaritzan, lan taldean, gai jartzaile taldean eta epaile taldean. Bertan ateratako erronka batzuei heldu diegu eta besteei heltzen joan beharko gara.</li> </ul>
<p><b>Kudeaketa:</b> Aurrekontuko sarrerak/gastuak aztertzea eta orekatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020ko emaitza ekonomikoa kontuan izanda eta osasun krisiak ekar dezakeen egoera kontuan izanda benetan proiektuari egokitutako erabaki batzuk hartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020ko emaitza positiboa kontuan hartuta ordezkotako irakasleen lan baldintzak aldatzea erabaki dugu. 2021eko urtarriletik ordezkotako lanaldi kalkulatuak ere talde kopuruaren arabera egiten ditugu.</li> <li>- Ordezko irakasle batzuei euren bailaretako bertso eskolen sarean eragiketo dedikazioa jarri diegu 2021eko irailetik aurrera.</li> </ul>

## HEZKUNTZA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
<p><b>Bertso-eskolak</b></p> <p>Bertso-eskolekin dugun harremana sendotzea eta horretarako bide zuzenak bilatzea. Dituzten beharrei erantzutea ahal den neurrian.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza: irakasleen formazioa eta konpartitzeko gunea.</li> <li>- Aisialdia: eskaintza irakasleekin elkarlanean antolatzea.</li> <li>- Ez dagoen lekuetan bertso eskola sustatzea.</li> <li>- Bitartekaritzak eta Administrazioarekin harremana.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleei lan egiteko baliabideak eskaintzea: proposamen didaktikoa eta materiala.</li> <li>- Bertso Eskolen Eguna: osasun krisia dela eta herrialde mailakorik ezin da egin, eskualdeka antolatzea bultzatzea horretarako baliabideak eskainiz.</li> <li>- Gazteen egonaldia: osasun neurriek uzten duten neurriko eskaintza bat egitea gazteei.</li> <li>- Aisialdiko ekintzen berri irakasleei zuzenean ematea (eta ez webgunearen bidez edo e-posta bidez bakarrik).</li> <li>- Motibazio saioak: eskatzen zaigun lekutan egin eta interesatzen zaigun lekutan eskaintzea.</li> <li>- Matrikulazio kanpainetan zubi lanak egitea bertso-eskolen eta ikastetxeen artean hezkuntza arautuko irakasleen bidez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskolek antolatutako matrikulazio kanpainetan lagundu dugu hezkuntza arautuko proiektuaren bidez.</li> <li>- Bertso eskoletarako irakasleak aurkitzeko zailtasunak izan ditugu leku batzutean: Mutriku eta Oiartzun. Bestela, eskaera egindako talde denetarako aurkitu dugu irakaslea. Baina gai honekin kezkatuta gaude.</li> <li>- Motibazioa saioak eskaini ditugu eskatu diguten lekuan edo interesgarri ikusi dugun lekuan. Bertso eskolek antolatutako motibazio saioetan ere parte hartu dute gure irakasleek.</li> <li>- Bertso eskolen egunaren ordezkariak bailarakako topaketak antolatu ditugu bertso eskoletako irakasleekin elkarlanean.</li> <li>- Ez dugu gazteen egonaldia egiterik izan.</li> <li>- 2021eko bukaeran bertso eskoletarako antolatzen ditugun aisialdi ekintzen inguruko gogoeta egin dugu horretarako lan talde bat osatuta. Gogoeta horretan orain artekoaren balorazio bat egin dugu eta aisialdi ekintzen funtzioak zeintzuk diren adostuta 2022rako lehentasunak markatu ditugu.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behar den lekuak irakaslea aurkitzea eta kontratazioa egitea.</li> </ul>	
<p><b>Bertso-eskolen arteko harreman sarea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lekuan lekuko topaketak bultzatzea eta herrialde mailako ekintzak baliatzea ume eta gazteek harremanak egiteko.</li> <li>- Helduen bertso-eskolen arteko harreman sareak eta beharrak aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bailaraka gaztetxoek irakasleak elkartzea eta topaketak egitea proposatzea.</li> <li>- Helduen bertso-eskola bakoitzeko ordezkari bana elkartzea ikasturte bukaeran. Ikasturte berrirako proposamenak jasotzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskoletako gaztetxoek irakasleekin elkartu eta aukera ikusi den eskualdeetan egin dira bertso eskolen egun txikiak: Goierrin, Tolosaldean, Urolan, Urola Kostan eta Debagoienan.</li> <li>- Helduen bertso eskolekin ezer egitera ez gara iritsi, ea 2022an heltzen diogun.</li> </ul>
<p><b>Umeen eta gazteen plazaratzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jendurrean trebatzeko neurriko aukerak eskaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolartekoa antolatzea.</li> <li>- Eskualdeka bertso eskoletako gaztetxoek jendurrean kantatzeko guneak bultzatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolartekoa antolatu dugu Ikastolen Elkartearekin elkarlanean. Gipuzkoako Bertsozale Elkartetik bat-batekoaren antolakuntzaz arduratu gara. Parte hartzeko izena 20 gaztek eman dute eta guztira 4 kanporaketa egin ditugu Oiartzunen, Asteasun, Azpeitian eta Arrasaten. Finala berriz Urnietan egin dugu. Osasun egoera dela eta aretoetako formatua mantendu behar izan dugu, baina balorazioan ahal denean berriz ere bertso afari formatua berreskuratzearen aldeko apustua egin da.</li> </ul>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualdeka antolatutako bertso eskolen topaketetan jendaurrean bat-batean egiterko tartea eskaini zaie 14 urtetik beherako ikasleei.</li> </ul>
<p><b>Hezkuntza arautua</b></p> <p>Metodo didaktiko berriaren inplementazioa orokortu eta ebaluazioa egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle mintegietan beharren araberrako bilera monografikoak egitea.</li> <li>- Aldaketak ikastetxeekin eta udalekin ditugun jarraipen batzordeetan lantzea, metodologia berriaren inguruko iritzia jasoz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bi astez behin bildu da irakasle taldea, hiru taldetan banatuta. Urtearen bigarren zatian bi taldetan banatzea erabaki da, ostiral arratsaldetan biltzeko. Bilerak emankorrak izan dira orokorrean, eta gelako jarduna izan dugu gai nagusi.</li> <li>- Batez ere ikastetxeei galdetu zaie aldaketen inguruko iritzia. Oso balorazio positiboa jaso dugu jarraipen batzordeetan. Egindako kontrasteaz gain, ordea, galdetegi bat bidaltzea ere egokia izan daitekeela ikusi dugu, jarraipen batzordeetan baino jende gehiagorengana heltzeko.</li> </ul>
<p><b>Hezkuntza arautua: lanaren kalitatea zaintzea</b></p> <p>Hezkuntzan ari garenaren kontzientzia hartzea eta ikaslea erdigunean jartzea. Proiektuaren helburuak berraztertzea eta betetzeko bitartekoak jartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleen formaziorako formatzaileak formatzea kanpo laguntza bidez (HUHEZI)</li> <li>- Irakasleen formazioa: HUHEZiko formazioan ikasitakoa lantzea, bideo grabazioen teknikaren bidez.</li> <li>- Irakasle lana hobeto egiteko hutsuneak identifikatu eta formazio espezifikoak antolatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleen formaziorako prestatzaile rola izango duten bi lagun ari dira HUHEZIn: Iñaki Gurrutxaga eta Mikel Artola. Autokonfrontazio saioak nola egin ikasten ari dira, besteak beste.</li> <li>- Bideo grabazioak ikusten hasi gara. Lehendabizi zati txiki batzuk ikusi ditugu, jaialdietakoak. Orain autokonfrontazio saioak egiten hasi berri gara, 2022an 5-6 irakaslek egiteko asmoz.</li> <li>- Bikote eta hirukote pedagogikoak osatu ditugu. Irakasleek elkarrekin egingo dute lan kurtsoan zehar,</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norbere lana ebaluatzeko tresnak eskaintzea.</li> <li>- Proiektua eta emandako emaitzak taldean ebaluatzea.</li> <li>- Ikasturte bukaerako jaialdietan bat-batekoa txertatzea.</li> </ul>	<p>eta konpartitu egingo dute gelan gertatzen dena. Ebaluazio gisa ere funtzionatuko du, kurtsu amaieran ateratako ondorioen berri emango duelarik talde bakoitzak.</p> <p>- Ikasturteko amaierako jaialdian bat-batekoa txertatu da. Lehen probek oso sentrazio ona utzi dute. Hori bai, jaialdiak gurasoen aurrean ala ikastxean bertan, formatu txikiagoan, egingo diren zalantza sortu da. Bigarrenaren aldeko jarrera nabarmen geratu da lantaldean.</p>
<p><b>Hezkuntza arautua: egitasmoa hedatzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gipuzkoa osoan proiektuen parte hartzen ez duten ikastetxeak identifikatzea.</li> <li>- Adin tarte zabalagoari eskaintzeko aukerak aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haur Hezkuntzan eta DBHn proiektua lantzeko aukerarik badagoen, eta, baldin badago, nola egin dezakegun aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da proiektu seriorik garatu, baina etxeko transmisioa eta jubilatuentzako eskaintza prestatzen hasi gara. Gai honek sakontasun gehiagoz lantzea eskatzen du.</li> </ul>

<b>IKERKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
Bertsolaritzaren oinarritzko fondo biltzen jarraitzea eta antolatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso-eskolei dokumentazio zentroaren berri ematea.</li> <li>- Handik eta hemendik jasotako materiala Xenpelarrera eramatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jaso dugun materiala Xenpelarrera bideratu dugu.</li> <li>- Lan taldearekin Xenplar ezagutzeko lan saio bat egin dugu Oihana Aranburuk gidatuta</li> </ul>

Bertso ekitaldien informazioa biltzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso-eskolei antolatzen dituzten ekimenen berri emateko eskatzea.</li> <li>- Jasotako informazioa Xenpelarrera bidaltzea.</li> </ul>	- Jaso dugun informazio Xenpelarrera bideratu dugu.
Argazki bilketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteak antolatutako ekitaldi guztietako argazkiak atera eta Xenpelarrera eramatea.</li> <li>- Bertso-eskolei eta antolatzaileei euren ekimenetan argazkiak ateratzea aholkatzea.</li> </ul>	- Guk antolatutako ekintza guztietan atera ditugu argazkiak eta denak Xenpelarrera bidali ditugu.
Plazaz plazako bertso ekitaldien grabazioen bilketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteak antolatutako ekitaldi guztiak bidez grabatzea eta Xenpelarrera eramatea.</li> <li>- Saioen antolatzaileei ekitaldiak grabatzeko aholkatzea.</li> <li>- Bertso-eskolei bideo kamera eskaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Guk antolatutako ekintza guztiak grabatu ditugu eta Xenpelarrera bidali ditugu.</li> <li>- Plazaren azterketan ari den tekinariarekin elkarlanean urteko azken 3 hilabetetan asteroko agenda hartuta, zeuden saioetatik zer grabatzera iritsi gaitezken aztertu eta ohi baino saio gehiago biltzera iritsi gara, bestela grabatuko ez liratekeen saioak.</li> </ul>

## SUSTAPENA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
<b>Plazaren azterketa eta eragitea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasun krisiak plazan izan duen/duen eraginaren jarraipena egitea.</li> <li>- Formazioa: epaileena, gai-jartzaileena eta bertsolari gazteena.</li> </ul>	- Sustapen batzordean egindako plazaren irakurketetan parte hartu dugu, baina Gipuzkoako plazei ez diegu 2020an adinako jarraipenik egin.
<b>Plaza Biziberritzen:</b> - Antolatzaileak zirikatzea.	- Antolatzaileengandik datozen deiei eta mezuei erantzutea.	- Ahal den neurrian Lankuren sozializazioa egin dugu jasoteko deiei informazio emanez.

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartea saio batzuen antolatzaile izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankuren berri eman eta antolatzaileen eskaera Lankura bideratzea.</li> <li>- Bertso Jasaren promozioa: udal eta gazteleku denetara bidaltzea.</li> <li>- Gazteen bertso zirkuitua antolatzea.</li> <li>- Bertso Egunaren antolakuntza Euskal Herriko Bertsozale Elkartearekin batera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso Jasaren berri eman dugu Udaletan eta gaztelekuetan. Honetarako emailez eskuorria eta promozio bideoaren lotura bidali ditugu.</li> <li>- Bertso Egun bat antolatu dugu Getarian EHBE-rekin batera.</li> <li>- Bertsolari gazteen Zapla! zirkuitua antolatu dugu.</li> </ul>
<p><b>Epailetza:</b></p> <p>Epaile taldearen funtzionamendua eta formazioa bermatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epaile eskola iraunkorraren jarraipena egitea Euskal Herriko sustapen eragilearen bidez.</li> <li>- Epaileei trebatzeko lekuak eskaintzea: adibidez sariketetan.</li> <li>- Epaile berri posibleei adi egotea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukera ikusi dugun sariketetan epaile taldeko epaileak aritu dira epaitzen.</li> <li>- Parte hartze prozesuan 2 aldiz elkartu gara epaile taldearekin, honek txapelketa gabeko urte bat izanik harreman iraunkor bat izatea ekarri digu.</li> </ul>
<p><b>Gai-jartzaitza:</b></p> <p>Gai-jartzaile taldearen funtzionamendua eta formazioa bermatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai-jartzaile berriei trebatzeko lekuak eskaintzea: adibidez sariketetan.</li> <li>- Gai-jartzaile berri posibleei formazio praktikoa eskaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukera ikusi dugun sariketetan gai jartzaile taldea aritu da gaiak jarri eta aurkezten.</li> <li>- Parte hartze prozesuan bi aldiz elkartu gara gai jartzaile taldearekin, honek txapelketa gabeko urte bat izanik harreman iraunkor bat izatea ekarri digu.</li> <li>- Gai jartzaitetzan interesa duten 6 gazterekin formazio saio bat izan dugu eta ondoren Zapla! bertsolari gazteen zirkuiturako gaiak jarri eta saio horiek aurkeztu dituzte.</li> </ul>
<p><b>Bertsolarien plazaratzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolarien plazaratzean elkarrearen ardurak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sariketetako antolatzaileei adin tarte bakoitzeko bertsolarien zerrenda bidaltzea.</li> <li>- Sariketen informazioa eskatzea eta jaso izana.</li> <li>- Bertsolari gazteen tailerrari jarraipena ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 18-25 urte bitartean dauden Gipuzkoako bertsolarien zerrenda eguneratu dugu sariketetako antolatzaileei bidaltzeko.</li> </ul>

<p>zeintzuk diren aztertzea eta behar denean esku hartzea.</p> <p>- Plazaratze bidean daudenei bide hori erraztea.</p>	<p>- Bertsolari gazteen bertso zirkuitua antolatzea.</p>	<p>- 2020an hasi genuen bertsolari gazteen tailerreko 3 lan saio izan ditugu 2021eko lehen zatian. Tailer horietan 9 gaztek hartu dute parte eta plazan bizi dutenari buruz aritzeko tartea izan dute plazaz plaza dabiltzan bertsolari desberdinekin.</p> <p>- Tailerrean parte hartu duten gazteekin eta hauen bertso eskolekin elkarlanean Zapla! bertso zirkuitua antolatu dugu. Guztira 6 saio egin dira Eskoriatzan, Azkoitian, Hernanin, Zarautzen, Legazpin eta Beasainen. Saio hauetan 9 gazte horiekin batera aritu dira plazan ibilbide luzeagoa duten 6 bertsolari.</p>
--	--	---

<b>KOMUNIKAZIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p><b>Komunikazio kudeaketa</b></p> <p>Barne komunikazioa: lan taldearen eta zuzendaritzaren arteko komunikazioa bermatu eta Euskal Herri mailako informazioa eta</p>	<p>- Zuzendaritzako bileretan informazio orria hileroko edukiz betetzea.</p> <p>- Kudeaketako bileretako informazio atala beti betetzea.</p> <p>- Kudeaketan hitz egiten dena lan taldera helaraztea (informazioaren kudeaketa zainduz).</p> <p>- Barne orria baliatzea.</p> <p>- Zuzendaritzaren eta lantaldearen arteko zubi lana behar den bezala egitea irakasleen ordezkariekin eta</p>	<p>- Parte hartu dugun batzorde guztietan bete dugu bileretarako informazio atala.</p> <p>- Zuzendaritzara herrialde guztietatik jasotako informazioa bidali dugu hileroko idatziz.</p> <p>- Barne orria une puntual batzuetan baliatu dugu, baina erabilera handiagoa eman behar diogu.</p> <p>- Zuzendaritza eta lan taldearen arteko zubilana egiteko urtean behin elkartu gara.</p>

<p>egitasmoa lan taldera eta Zuzendaritzara helaraztea eta alderantziz, herrialdekoa Euskal Herrira (kudeaketa). Kanpo komunikazioa: gure proiektuaren hedapena.</p>	<p>koordinatzailearen bidez. Urtean behin (gutxienez) Zuzendaritza eta lantaldea elkartzea.</p> <p>- Webgunea behar bezala elikatzea eta bestelako bitartekoak aprobetxatu: Bertsozalean Gipuzkoaren ekarpenak egitea.</p>	<p>- Komunikaziorako orain arte ez genuen dedikazio bat jartzeko erabakia hartu dugu, batez ere sare sozialak astintzeko.</p>
<p><b>Kanpo harremanak</b> Orain arteko harremanak behar bezala zaintzea.</p>	<p>- Udalen eta ikastetxeen zalantzei/beharrei erantzutea.</p> <p>- Foru Aldundiaren parte hartze prozesuetan parte hartzea, aukera den guztietan gure proiektua (bere osotasunean) ezagutaraziz.</p>	<p>- Udalekin eta ikastetxeekin etengabeko harremana izan dugu, behar den guztietan informazioa emanaz edo zalantzak argituz.</p>
<p><b>Internet</b></p>	<p>- Webgunean gure ekimen guztien berri ematea eta sare sozialen bidez hedapena bermatzea.</p>	<p>- Webgunea behar izan dugun guztietan baliatu dugu eta sare sozialen bidezko hedapena ere egin dugu.</p>

# NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Urterako helburuak	BALORAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egunerokotik harago, begirada estrategikoa txertatzea.</li> <li>- Parte hartze prozesua modu eraginkorren burutu, eta egitura eta funtzionamendua hobetzeko neurriak inplementatzea.</li> <li>- Bertso-eskolen gogoetari jarraipena ematea eta sakontzea: erabaki estrategikoak.</li> <li>- Hezkuntza arautuko proiektuaren hedapenaren inguruan gogoeta egitea eta hurrengo urteetarako plana diseinatzea.</li> <li>- Feminismo Batzordean sakontzea: gogoetatik neurri zehatzetara pasatzea.</li> <li>- Bertso plaza zabaldu eta egonkortzeko pausoak ematea.</li> <li>- Nafarroako Bertsolari Txapelketa ahalik eta baldintza hobereenetan antolatzea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Saiakerak egiten dira, arloka (adibidez, Bertso Eskolak), baina zaila da egunerokotasunak ez irenstea.</li> <li>2. Prozesua egoki egin da Nafarroan, talde ezberdinetan, parte hartze handiarekin eta sentsazio oso onekin. Hartutako erabakiak eta neurriak inplementatzea falta da.</li> <li>3. Sakondu da eta urratsak eman. Erabakiak sozializatzea eta gauzatzea falta da.</li> <li>4. Gogoeta egin da, baina aukerak mugatuak dira hedapen geografikorako.</li> <li>5. Feminismo Batzordeak 'Gure Aldetara' egitasmoa jarri du martxan (bertso bilduma CDa+bertso saioak), arrakasta handiz, eta saretzean urratsak emanez.</li> <li>6. Katalogoa publikatu eta hedatu da, eta sortu dira plaza berri (gutxi) batzuk. Zapla ere antolatu dugu, egitasmo gisara, baina inpaktu gutxi izan du.</li> <li>7. Txapelketa arrakasta handiz antolatu dugu; kopuru objektiboetan (entzuleak, irabazi ekonomikoak...) inoizko onena izan da. Ekoizpenean eta antolakuntzan badira kontuan hartu beharreko hobetze proposamenak.</li> </ol>

## Zuzendaritza Batzordea:

- Lehendakaria: Alaitz Rekondo
- Idazkaria: Ander Perez
- Diruzaina: Iker Gorosterrazu

**Eragilea:** Ander Perez

**Gainerako kideak:** Mintxo Astiz, Julen Zelaieta, Xabier Maia, Estitxu Arozena, Nerea Bruño eta Irati Majuelo



<b>IDAZKARITZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
Funtzionamendua egonkortzea eta fintzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lantaldearen barruko zereginen zehaztapenean eta ardura banaketaren antolaketan sakontzea.</li> <li>- Lantaldearen barruko koordinazioa indartzea: bileren dinamizazioa landu, eraginkortasuna bermatzeko. Ikasturteko plangintza oinarri hartuz, bileren antolaketa kronologikoa diseinatzea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lan-taldea egonkorra da, koordinazio guneak egonkorrak dira eta bulego barruko lanen banaketa fintzen doa. Parte hartze prozesuan hartzen diren erabaki batzuk inplementatzea falta da.</li> <li>2. Koordinazioa hobetu da, baina sakondu behar da.</li> <li>3. Bileren antolaketa kronologikoaren diseinua landu zen. Batzuetan, eguneroko lanek antolaketa hori zailtzen dute.</li> </ol>
Diruzaintza lanean sakontzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitasmoaren neurketa ekonomikoan sakontzea.</li> <li>- Diru-laguntzen mapa osatu: orain artekoak aztertu/birplantatu eta aukera berriak aztertzea.</li> <li>- 2021.urteko diruzaintza aurreikuspena findu eta egunean eramatea.</li> <li>- Maileguen itzulketa planifikatzea eta ahal den neurrian exekutatzea.</li> <li>- Aurrekontuaren exekuzioa urtean zehar jarraitzea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Pausu batzuk eman dira, baina egitasmoen neurketa ekonomiko errealagoa egin behar da (Hezkuntza Arautua, Bertso Eskolak, etab.)</li> <li>2. Dirulaguntzak: Eskatzen ditugun dirulaguntzen helburuak, aukerak, etab. aztertu dira eta horietako batzuetan aldatetako egin dira (Sustraiak dirulaguntzan beste proiektu bat sartu, beste dirulaguntza batzuetan justifikatutako gastuak birpasatu, etab.). Honetan sakontzen jarraituko dugu. <ul style="list-style-type: none"> <li>- 2021eko diruzaintza landu da. Denbora asko eskatzen duen zerbait izanik, datuak 3 hilabetetatik behin eguneratzen saiatu gara (gutxi gora-behera). Egokiena hilabetero eguneratzea litzateke.</li> <li>- Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin genuen 20.000 euroko mailegua bueltatu da. (60.000 euroko mailegua geratzen zaigu).</li> </ul> </li> </ol>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrekontu exekutatuaren jarraipena egiteko zailtasunak (soilik irailean egin zen balantzea). Etorkizunean jarraipen hau eguneratua eramatea izango litzateke egokiena, horretarako programa berriak aukerak eman ditzake.</li> <li>- Kontabilitate programa berria erabiltzen hasi ahal izateko, orain arteko datuen fitxategiak, informazioa, etab. moldatu dira, eta hainbat datu eguneratzeko aukera eman du horrek. 2022an moldaketa hauekin jarraitu beharko dugu.</li> </ul>
Instituzioekiko interlokuzioa mantentzea eta sakontzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Instituzioekiko interlokuzio ona mantentzea eta hitzarmenen berrikuspenean/egokitzean sakontzea.</li> <li>- Instituzioei lantaldearen funtzionamenduaren berri ematea, langile bakoitzak zein egitasmo kudeatzen duen argitzeko asmoz.</li> <li>- Elkartearen aurkezpen karta banatzea, gure egitasmoa ezagutarazteko.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Instituzioekiko harremana bide onetik doa, eta are, sakondu da. BTN22ko finalaren aitzakiak horretan ere lagundu du, ate gehiago zabalduz.</li> <li>2. Ez da egin.</li> <li>3. Ez da egin, edo oso bakanei.</li> </ol>
Zuzendaritza egonkortzea eta funtzioak argitzea.	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Parte-hartze prozesutik abiatuta, zuzendaritzaren zeregina fintzeko neurriak zehaztea.</li> <li>2. Zuzendaritzara kide berriak erakartzea.</li> <li>3. Lehendakaritzarako erreleboa prestatzea.</li> </ol> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza osatzen dugunon motibazioak eta interesak ezagutzea eta elkarbanatzea.</li> <li>- Ardura partekatzeko pausoak ematea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Parte hartze prozesuak zapora ona utzi zuen; neurriak ez dira zuzenean inplementatu, baina motibazioa hobetu da.</li> <li>2. Bi kide berri batu dira 2021ean.</li> <li>3. Hitz egin da, baina ez zaio zuzenean heldu.</li> <li>4. Parte hartze prozesuak lagundu du horretan.</li> <li>5. Ardurak banatzeko neurriak proposatu ziren parte hartze prozesuan, baina ez dira inplementatu.</li> </ol>

<b>HEZKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
<p>Hezkuntza arautuko eskaintza egonkortzea eta ahal den neurrian hedatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programaren neurketa ekonomikoa egitea.</li> <li>- Programaren hedadurari eustea eta ahal bada handitzea.</li> <li>- LHko programaz gain, DBHn egin daitekeen eskaintza aztertzea, 2021/22 ikasturtera begira.</li> <li>- Orain arte iritsi ez garen eremuetara programa hedatzeko aukerak aztertzea.</li> <li>- Pedagogia berritzeko prozesuan jarraitzea, eta aplikazio zehatzak bilatzea.</li> <li>- Ikastetxeetako irakasle "arruntek" bertsolaritzaren oinarriko edukiak jasotzeko formazio aukerak aztertzea.</li> </ul>	<p>1. Programaren neurketa ekonomiko erreala ez da egin, 2022an lan honi heldu nahi zaio. Hala ere, udalei aurkeztutako aurrekontuak bateratu dira, programaren koste berdina zehaztuz leku guztietan.</p> <p>2. Programaren hedadurari eutsi zaio eta pixka bat handitu da (Paz de Ziganda LH5, Tafallan jarraitu eta Irantzu Mankomunitatearekin aukerak aztertzen hasi).</p> <p>3. DBHn programa eskaintzeko aukerak baloratu ziren. Talde kopurua handitzen ez bada, DBHko eskaintza egin ahal izateko LHkoa murriztu beharko litzateke, eta lan-taldean LHko programa lehenestea ikusi zen egokien.</p> <p>4. Orain arte iritsi ez garen eremuetara iristeko aukerak aztertu ziren lan-taldean. Gaur egungo lanaldiekin programaren hedadura handitu ezin zela ondorioztatu zen. Programa zabaldu nahiko balitz (eremu berrietara iritsi edo ikasmaila gehiagotan eman), irakasleen jardunaldiak handiagoak izan beharko lirateke edo kontratazio berriak egin.</p> <p>5. Pedagogia berritzeko prozesuan jarraitu da. Ikerren jardunaldiaren ia %15a honi bideratua dago (UHEZiko formazioa, pedagogia batzordea...). Iker gainontzeko irakasleei ikasitakoa transmititzen hasi da, eta denak lanketa</p>

		<p>honetan hasi dira. 2022an honekin jarraituko dute eta lkerren eginkizunak zehaztuko dira.</p> <p>6. 2021-22 ikasturtean Ikastetxeetako irakasle "arruntei" zuzendutako ikastaroa eskaini da berriro ere. Urtarrila-otsailean ematen ari dira, Eneko Fernandez irakasle.</p>
<p>Bertso-eskolak: sarea egonkortzea, eskaintza hobetzea eta taldeen jarraikotasuna bermatzea: Bertso Eskolen Plana.</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bertso-eskolen gogoetari jarraipena ematea, ondorioak ateratzea eta erabaki estrategikoak hartzea.</li> <li>2. Taldeen jarraikotasuna bermatzeko neurriak hartzea: ikastetxetik herrira salto egitea, eta gune iraunkor bezala mantentzea.</li> <li>3. Bertso Eskolen Sarearen eskaintzaren hedadurari eustea, eta ahal bada talde berriak osatzea.</li> <li>4. Finantzazioa egonkortu. Bertso-eskolen neurketa ekonomikoa zehaztea.</li> <li>5. Bertso Eskolen Komunikazioa: irudi berria eta material propioa. Komunikazio kanpaina zaindu bat diseinatzea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bertso Eskolen gogoetan ateratako ondorioak kontuan hartzen saiatu gara Bertso Eskolen eskaintza egiterako orduan. Ikastetxetik herrirako saltoa eman da kasu gehienetan, gogoetan erabakitakoari jarraiki. Fokoen logika mantentzen ahalegindu gara (ikasleak fokoetara bideratuz, etab.).</li> <li>2. Taldeen jarraikotasuna bermatzeko arazoak ditugu. Ikasle kopuruak behera egin du azken urteetan. Gai hau landu beharra dago.</li> <li>3. Talde berriak: Tafallako Bertso Eskola (11 ikasle), Agerraldiaren laguntzarekin. Antsoaingo BE.</li> <li>4. Programaren neurketa ekonomiko erreala ez da egin, 2022an lan honi heldu nahi zaio. Hala ere, udalei aurkeztutako aurrekontuak bateratu dira, programaren koste berdina zehaztuz leku guztietan.</li> <li>5. Bertso Eskolen logoa egin zen eta kamisetak egin dira.</li> </ol>
<p>Aisialdiko jarduera osagarriak: gazteen plazaratzea, harremanak sendotzea, alderdi ludikoa eta aisialdizko bultzatzea...</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aisialdi egitasmoen azterketa: funtzioak, helburuak, eskaintza...</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aisialdi egitasmoen azterketa ez da egin. Egiteko beharra ikusten da.</li> <li>2. Eskolartekoa egin zen, Lesakan. 11 gaztek parte hartu zuten.</li> </ol>

	<p>2- Eskolartekoa: Bertso Eskoletako gazteen plazaratzea.</p> <p>3. Bertso Eskolen Eguna, egonaldi gisara (asteburu osokoa)</p> <p>4. Negulekuak.</p> <p>5. 17-20 urte artekoentzako gazte egitasmo berria diseinatzea eta aurrera eramatea.</p>	<p>3. Bertso Eskolen eguna Eskolartekoarekin batera ospatu zen. Egun osoko egitaraua antolatu zen, ez zen asteburu osoko egitasmoa izan.</p> <p>4. Negulekuak: Negulekuen prestaketa lan guztia egin bazen ere (45 ikaslek eman zuten izena), azken momentuan bertan behera utzi behar izan zen egitasmoa, Covid-19aren ondorioz. Bertan-behera utzi ordez, 2022ra atzeratzea erabaki zen (hau da, adin horretako ikasleei 2022an egonaldi bat eskainiko zaie).</p> <p>5. 17-20 urteko ikasleentzako egitasmo berria ez zen egin.</p>
--	---	---

<b>IKERKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
Bertsolaritzak Nafarroan uzten duen ondarea jasotzea eta gordetzea.	- Bertso saioetako argazki, audio eta bideoak jaso eta dokumentatzea.	- Egin da
2018ko Kultur Intereseko Ondasun izendapenari aplikazioak bilatzea.	- Nafarroako Gobernuaren izendapenari jarraipena emango dion aplikaziorik bilatzea: argitalpenen bat, jardunaldiak...	- 40.000 euroko partida nominatiba bat lortu da Euskarabidearen bitartez, ikerkuntzaren alorra finantzatzeo.
Nafarroako Bertsolaritzaren historia laburtua osatzea.	- Euskarri txiki bat sortzea, eskaerei erantzuteko: historia laburtua jasoko duen dokumentu bat	- Ez da egin
Bertsolaritza eta Nafarroako jota bateratuko dituen egitasmoa diseinatzea.	- Joten inguruko erreferentziak identifikatu eta interlokuzioa abiatzea	- Ez da egin

	- Balizko proiektuaren nolakotasuna aztertzea	
Nafarroan egindako elkarizketak eta ikerketak bildu	- Kike Diez de Ulzurrun eta Pedro Diez de Ulzurrunek bere garaian bildutako materiala jaso eta argitalpena aztertzea.	- Ez da egin
Elkarteko dokumentazioa eta fondoak antolatu, katalogatu eta eskuragarri jarri		- Antolatzeko lan bat egin da, eta XDZ-ren esku utzi da artxibo administratibo osoa.

<b>SUSTAPENA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>BALORAZIOA</b>
Plaza Biziberritzen Nafarroan I: Saioak antolatzen bultzatzeko plana <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nafarroako bertso plaza aberastu eta egonkortu</li> <li>- Antolatzaile berriak sortu eta egonkortu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Katalogoa diseinatzea eta hedatzea, udal teknikari eta programatzaileen artean.</li> <li>- Aurrez aurreko bilerak, lehentasunezkoekin.</li> <li>- Urtean bertso saio berri batzuk antolatzea bermatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da, eta zabaldu zaio ia 100 lagunei (kultur eta euskara teknikari, aretoetako programatzaile, ...).</li> <li>- Bakar bat baino ez da egin, Tafallan.</li> <li>- Saio berri gutxi batzuk sortu dira, baina ikusteke dago egonkortuko ote diren.</li> </ul>
Plaza Biziberritzen Nafarroan II: Zirkuitu propioa antolatu <ul style="list-style-type: none"> <li>- Txapelketa atzeratuta, nafar bertsolariei plaza bermatzea</li> <li>- Kultura, erantzukizunez, segurua dela aldarrikatzea, erakustea, eta eredu ematea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolari eta gai-jartzaileen izen ematea.</li> <li>- Saioen antolaketa eta hedapen egokia.</li> <li>- Publikoaren erantzuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nafar bertsolariei plaza eskaini zaie. (Zapla)</li> <li>- Udal ezberdinekin harremana eraiki da, saio horiek antolatzeko.</li> <li>- Publikoaren erantzuna eskas samarra izan da, eta balantze ekonomiko negatiboa utzi du egitasmoak.</li> </ul>

<p>Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2021</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egutegi berriaren araberako lan prozedura egokitzea; egutegi aldaketa ongi gizarteratzea.</li> <li>- Talde antolatzailea osatzea eta martxan jartzea.</li> <li>- Txapelketaren helburuak eta ezaugarri nagusiak zehaztea.</li> <li>- Txapelketaren mapa eta egutegia osatzea: herriak eta aretoak erabakitzea.</li> <li>- Parte-hartzaileekin hitzarmena eta barne komunikazioa.</li> <li>- Epaille eta gai-jartzaile taldeekin jarraipen zuzenagoa egitea.</li> <li>- Komunikazio lana ongi antolatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan antolaketa ongi egokitu zaio egutegi berriari, eta publikoak ere ongi barneratu du egutegi aldaketa.</li> <li>- Talde antolatzailea egoki aritu da, parte hartze eta erabakimen handiarekin.</li> <li>- Helburuak zehaztu dira, eta oro har betetzat ematen dira.</li> <li>- Txapelketa Nafarroako eskualde ezberdinetara eraman dugu. Aretoen arteko oreka ez da beti bermatu.</li> <li>- Hitzarmenak (araudiak) asko lagundu du talde antolatzailea, pausu garrantzitsutzat jo da. Barne komunikazioa egokia izan da, baina badira hobetzekoak.</li> <li>- Taldeekin jarraipen zuzena mantendu da, eta zeregin berri batzuk ere fintzen goaz (ordezkoen figura, eta abar).</li> <li>- Kanpo komunikazio egokia izan da.</li> </ul>
<p>Bertsokabi 2021: Bertsolari gazteen plazaratzea sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sariketak behar dituen berrikuntzak/aldaketak planteatzea.</li> <li>- Bertsolari gazteen bertsogintzan sakontzeko aukera gisara baliatzea.</li> <li>- Publiko berriengana iristea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da antolatu.</li> </ul>
<p>Bertsoaroa 2021: Trantsizio urtea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erreferentzia mantentzea, baina ez orain arteko ziklo gisara.</li> <li>- Egutegi aukerak aztertzea.</li> <li>- Bestelako formatuak/emanaldiak esperimentatzeko aukera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsoaroa ez da antolatu</li> <li>- Aurreko urteko Bertsopaper Lehiaketan irabazitako sarian oinarritutako emanaldia eskaini da; eta aukera baliatu da Bertsoaroaren aldaketa sozializatzeke.</li> </ul>
<p>Epaille eta gai-jartzaile taldeei jarraipena egitea eta baliabideak eskaintzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeak indartu eta egonkortzeko apustuak egitea, jende berria erakarriz.</li> <li>- Formakuntza jarraitua eta baliabideak eskaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Txapelketak hartu du taldeen jardunaren gehiengoa; oso ongi erantzun diote lan kargari.</li> <li>- Epaille taldeak egin ditu bere formakuntzak, baina ekimen propioz, ez bulegotik proposatuta.</li> </ul>

## KOMUNIKAZIOA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
Barne komunikazioa: lantalde, borondatezko eta bazkideak informatuta mantentzea	Batzar Orokorra Bertsozalea-n Nafarroako informazioa bermatzea. Zuzendaritzarekin harreman jarraitua. Bazkideen e-mail sarea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin da, eta funtzioa bete du. Zailtasunak daude bazkide gehienak erakartzeko. –</li> <li>- Bideratu da Nafarroako informazioa Bertsozale berripaperera.</li> <li>- Mantendu da, email zein whatsapp bitartez.</li> <li>- Oso gutxitan jo da bazkideen email sare zabalera.</li> </ul>
Kanpo komunikazioa: egitasmoen hedapena	Webgunea eta sare sozialak. Prentsarekin etengabeko harremana: hitzarmenen aukera zehaztea. Egitasmoen euskarri propioak. Bertso Eskoletarako irudi eta kanpaina propioa. Aurkezpen karta euskarri bezala baliatzea. Bertso saioak antolatzeke katalogoa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egunerokotasunean erabili dira, egitasmoen berri emateko. Formularioak ere gero eta gehiago baliatzen ditugu, oso erabilgarri zaigu.</li> <li>- Egitasmokako harremana egiten da, ez dago hitzarmen iraunkorrik.</li> <li>- Bai, egin dira eta hedatu.</li> <li>- Irudi berria sortu da, eta euskarrietan erabili (kartelak, eskuorriak, kamisetak).</li> <li>- Ia ez da hedapenik egin.</li> <li>-Diseinatu eta argitaratu da, eta baita postaz 100 lagun ingururi zabaldu.</li> </ul>

## FEMINISMOA

Helburuak	Ebaluazio adierazleak	BALORAZIOA
Nafarroako emakume bertsolarien sorkuntza ikusaraztea.	Nafarroako emakume bertsolarien bertsopaper bilduma: CD+liburuxka.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Feminismo Batzordeak 'Gure Aldetara' egitasmoa jarri du martxan (bertso bilduma CDa+bertso saioak), arrakasta handiz, eta saretzean urratsak emanez.</li> </ul>